

# t tipi-ttapa



ZOZKETA / 2



## BERAKO SAN JOSE ZAHAR ETXEA

Egoitza berriaren 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta, Berako zahar etxearen egunerokoa ezagutu nahi izan du TTIPI-TTAPAK Amaia Pando zuzendariarekin, Leire Ardanza dinamizatzailearekin eta Mertxe Retegi eta Luis Gerra egoiliarrekin. / 10

## 5.965 ikaslek hasi dute ikasturtea

Joan den urteko neurriak hartuta itzuli dira ikasleak ikastetxeetara. Abendura bitarte behintzat jardunaldi jarraitua izanen dute. / 14




**Leire Ortuostek sei hilabete daramatza Doneztebeko alkate lanetan** / 8



**Doneztebeko Gazte Burrenba elkartearen hizpide Mikel Retegi gaztearekin** / 27



**Iñaki Ariztia Urdazubiko alkatearekin herriko kontuez solasean** / 48



**Txapelarekin borobildu ditu herri kiroleko 20 urteak Josetxo Urrutiak** / 56



**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**789** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

- Donostiako aquariuma - Bi sarrera**  
Nagore Eskudero Baleztena | ERATSUN
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**  
Martin Irazoki Danboriena | LESAKA
- La Rhune - Sarrera bat**  
Jose Manuel Olazabal Treku | ARESO
- Kukuka haur arropa denda - Lote bat**  
Begoña Goienetxe Arrijuria | IRURITA
- Irrisarriland - Sarrera bat**  
Maite Urreaga Burgete | DONEZTEBE
- Arrate Estetika Zentroa - Lote bat**  
M<sup>a</sup> Angeles Jaimerena Sarratea | ZIGA
- Wow park- Bi sarrera bikoitz**  
Rosa M<sup>a</sup> Maiz Goñi | ARANTZA
- Blanca Verdu Irigoien | URDAZUBI**
- Elkar - Bi liburu**  
Begoña Ariztegi Fagoaga | LEITZA
- Elkar - Bi liburu**  
Mayi Elizalde Agirre | BERA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Haurrendako kamiseta bat

**SALTING IRUÑA**

[www.saltngcenters.com](http://www.saltngcenters.com)



Bi sarrera

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



Sarrera bat

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



Sarrera bat

**MANUELA ARIZTELA**

[www.manuelaariztela.com](http://www.manuelaariztela.com)



Poltsa eta aurrekomantala



**WOW PARK**

[www.wowpark.fr](http://www.wowpark.fr)



Bi sarrera bikoitz

**LI  
BU  
RU  
AK**



- Badatzkat nire zulutxoan...



- Familia Xelebrea

**Wowpark**  
Votre Parc Aventure

**ikaselkar**

[www.ikaselkar.eus](http://www.ikaselkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.baga-biga.eus](http://www.baga-biga.eus)



[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)





## NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

### Plazara

Gauza anitz galdu ditugu azken urte eta erdian. Sobera. Jendea anitz galdu dugu azken urte eta erdian. Sobera. Jendea ez digute bueltan ekarriko. Gainerako gauzak berreskuratzeko gauza ote garen zalantza dut. Eta berreskuratzekotan, nola. Zerbait faltan sumatzen badut, plaza da. Plaza galdu dugu. Topalekua, bertze herritarrekin elkartzekoa, burbuila-taldetik haratago, adin desberdinetako jendearekin elkartzea, gurutzatzea, solas egitea, elkarrekin gauzak egitea, herria osatzea. Izan ere, plazarekin batera galdu baitugu herri-mugimendu guztia.

**«ZERBAIT FALTAN SUMATZEN BADUT, PLAZA DA. PLAZA GALDU DUGU»**

Urtetan euskararen, feminismoaren, kulturaren, kirolaren, aisialdiaren edota gizarteko bertze aldarrikapen batzuen inguruan bildutako jendeak batzeari utzi dio, diogu. Aisa ekitaldi gutiago antolatzen da han-hemenka, instituzioek antolatutakoetatik harago. Eta lehendik ere moteltzen eta ahultzen ari zen mugimendua, arunt ukitua gelditu da. Ia gauza garen herritarrak, aldarrikapenak, bestak... plazara biltzeko, topagune izan daitezen, berriz ere. Horrek bereizten baikaitu, neurri handi batean.



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Medikurik gabeko herri biziak?

Landa eremuaren biziberritzearen alde lan egiten dugu, oinarrizko zerbitzuak bermatuz, herri ttikietako bizilagunek bertan sustraitzeko aukera izan dezaten eta belaunaldi berriak sorterrian gelditu daitezen, txor-txor-txor... zenbat solas polit eta asmo eder, hiru hitzekin eta ekintza bakarrekin deusetan gelditu direnak: asteburuetakoa medikua kendu.

## NABARMENTZEKOAK



**PATRIZIA ETXEGARAI**  
ARTISTA



**XANTA SOUSA**  
HERRI KIROLARIA

Patrizia Etxegarai Altuna Lesakako artistak *Larrosak nire sahasen azpian* erakus-keta zabaldu du Lesakako euskarritan egindako marrazkiak dira.

Berriz ere txinga-eramatzen Nafarroako txapeldun izan da Xanta Sousa lesakarra. 2011n irabazi zuen lehen txapela, Nafarroakoa eta Euskal Herrikoa. Geroztik hainbat txapel jantzitakoa da.

## ATZERA BEGIRA



2011-09-15 · TTIPI-TTAPA · 550 zk.

### Andoni Saldias profesionaletan

Aimar Saldias oiztarra da gaur egun frontoiz frontoi erremon-tean dabilena, baina duela hamar urte Andoni bere anaiak debutatu zuen erremon-te profesionalean, 19 urterekin. Hori aitzakiatzat hartuta elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPA Andoni. Herriko frontoian laxoan jokatuz eman zituen bere lehenbizi-ko pilotakadak eta 14-15 urterekin Doneztebeko erremon-te eskolan eman zuen izena. Iruñerako bidea hartu zuen gero eta Hernaniko Galarretara joan zen segidan. 2011ko abuztuaren 13an egin zuen debuta, aitzinetik «bi hilabete profesiona-lekin entrenatzen» ibili ondotik. Bere ezaugarri nagusia indarra zela aitortu zuen, eta hobetu beharrekoa, teknika: «ez dut teknika aunitzik eta ikasi beharra dut».



**Argitaratzailea**  
Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,  
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola  
**Publikitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usoa Vicente  
**Berriemalleak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztebea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2021eko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 40€  
Leitza 30€  
Hego Euskal Herria 48€  
Ipar Euskal Herria, Europa 94€  
Amerika eta Australia 140€



## Buruan duzu erosketa-zerrenda?

Uste oker bat dago gizon-emakumeek osatutako bikoteki-deen artean: etxeko lanak gero eta orekatuago banatzen direnaren ustea. Egia da gizonek orain hogeitau urte baino etxeko lan gehiago egiten dituztela, oro har, baina orekarik ez dago, ikerketek berretsi dutenez. Ezta hala uste duten bikoteen artean ere. Ez baita aski garbigailua paratzea, erratza pasatzea, janaria prestatzea edo seme-alabak eskolara eramatea. Horiek noiz, nola eta zerekin batera egin behar diren pentsatu behar da, eta 'ezkutuko' lan horiek oraindik emakumeen ardura dira. Hala erakusten dute azken emaitzek. Eta zein diren 'ezkutuko' lan horiek? Bada, buruarenak: seme-alaben matrikulazio datak kontrolatzea, apalean zenbat esne-kaxa dauden jakitea, osasun hitzorduak egutegian apuntatzea, oporrak planifikatzen hasi behar zarela oroitaratzea... Kontu txikiak, bai, baina bat bertzearen gibeletik pilatuz gero, zama galanta.

Ikerlariek hiru kategorietan banatzen dituzte lan horiek. Lan kognitiboa deitzen diote tenorez zer egin behar den pentsatzeko lanari. Lan emozionala da, bertzetik, familiaren edo bikotearen eguneroko martxari eusteko zaintza, adibidez, seme-alabak ikastetxean nola dauden jarraipena egitea, bikotekidearen aldartea behatzea... Azkenik, eta bien arteko

### «'EZKUTUKO' LANAK, BURUARENAK, ORAINDIK EMAKUMEEN ARDURA DIRA»

lotura dena, karga mentala deitutakoa dago: eguneroko kontu txiki guzien kontrola, antolaketa eta bideratzea. Ikerketek erakutsi dute, etxeko lanak banatzen saiatzen diren bikote heterosexualen artean ere, emakumeak direla ia lan

horien guztien ardura hartzen dutenak. Gizonen batez ere parte hartzen dute azken erabakietan, hau da, behin betiko erabakia hartu behar den unean. Baina ordura arte egin beharrekoetan, ardura gutxi. Emakumeak dira etxeko behar txikiak identifikatzen dituztenak, aukera posibleak aztertzen dituztenak, eta bikotekideari erranda, azken erabakia elkarrekin hartzen dutenak. Hortaz, ikerketek diote gizonen azken erabakian parte hartu bai, baina bertze fase guztietan lan gutxi egiten dutela. Eta guztia pilatuz gero, sekulako lan zama da emakumeentzat, lan mentala izanda ere.

Garrantzitsua da lan hori ere banatzea, adituen hitzetan, baduelako eragina. Erraterako, ikerketek erakutsi dute horren ondorioz emakumeek buruhauste handiagoz bizi dutela seme-alaben zaintza, baita etxean ez daudenean ere, eta estresa areagotzen du; beti baitago presente, baita bertzelakoetan zabilzanean ere: mendian ibiltzen, telebista ikusten, baratzean edo lagunekin kafea hartzen... Burua ez da itzaltzen. Berdin seme-alabarik ez duten bikotekideen artean ere. Ardura buruan baduzu, denbora gehiago eskainiko diozu, eta etxeraterakoan, lehenago hasiko zara lan horiek egiten, banaketa desorekatuz.

Hortaz, lanen banaketa egiterakoan, ardura mentalak sartu behar dira etxeko lanen zerrendan. Buruan izan ditzagun, behinik behin, emakumeen buruaren orekaren mesedetan.



## Pandemia 6.000 kilometrora

Covid-19aren pandemia ez da erreza izan inorentzat, bereziki gaixotasuna lehen pertsonan edo gertuko pertsonetan bizitu dutenentzat. Artikulu honetan pandemia atzerrian bizitu dugunen ikuspuntua partekatu nahi nuke. 2020eko martxoan, bat-batean, sorpresan, atzerrian lanean harrapatu gintuen itxialdiak, nire kasuan Estatu Batuetan. Zientzia-fikzio pelikula batean geundela zirudien baina hilabete gutxi batzuetan bukatuko zela pentsatu genuen. Urte eta erdi geroago hementxe segitzen dugu, Estatu Batuetatik mugitu gabe.

Arazo logistiko asko jasan behar izan ditugu eta oraindik jasaten ari gara gure ama-lurrera bisitan itzuli nahi dugunok. Hasiera batean hegaldi guziak bertan behera gelditu ziren, bidaia plan guziak alde batera, diru mordoa airelineatan bahitua. Ondoren, mugak itxi zituzten eta europarrak ezin ginen Estatu Batuetan sartu turista edo lan bisarekin. Beraz, herrialdetik ateraz gero ezin zinen itzuli, enbaxadara joan eta bisa eta itzultzeko baimena lortzen ez bazenuen. Enbaxada, berriz, itxia. Orain, gauzak aldatu dira, hegaldiak eta enbaxadan hitzorduak eskuragai daude baina ziurgabetasun asko dago oraindik: bidaiatzeko errekerimenduak (PCR testa, QR codea, bisa, itxialdiak, koarentenak) egun batetik bestera alda daitezke.

### «PERSPEKTIBA ZABALAGOA LORTZEN DUZU LEHENTASUNAK ARGI IKUSIZ»

Okerrena, noski, arlo pertsonalean bizitu dugu. Hasteko, aurrekaririk gabeko egoera batean geunden, jakin gabe hurrengo egunean zer gertatuko zen, eta beste kultura batean murgilduta.

Gu bezala immigranteak ziren lagun gehienek ospa egin zuten beraien herrialdeetara, ez baitzitzaien axola lana galtzea. Edozein arazo suertatuz gero, adibidez, familiako kide bat gaixotu eta larri egonez gero, ezin ginen azkar edo erraz bueltatu etxera. Oso estresagarria izan da, isolatuta eta lekuz kanpo sentitzen zara, aterperik gabe. Hala eta guztiz ere, dena ez da txarra izan. Kontutan eduki beharra dugu etorkin pribilegiatuak garela, nahi dugulako gaude hemen eta behar izanez gero etxera itzul gaitezke dena utzita. Ziurgabetasun egoera honetan zure egoera berdinean dauden pertsonen erlazioak asko sakontzen dira, beraiek baitira zu ulertzen zaituzten bakarrak. Lagunak familia bihurtu dira. Horrez gain, konturatzen zara uste baino indartsuagoa zarela eta egoera zailei aurre egiteko gai zarela. Azkenik, perspektiba global eta zabalagoa lortzen duzu, lehentasunak argi ikusten dituzu. Hainbeste maite ditugun familia, lagunak, kultura, herria, bizimodua eta osasuna dira garrantzitsuak. Musukoa eramatea, ezin izatea tabernara edo kafetegira joan edo distantzia soziala mantentzea ez zaizkigu hain gogor egin perspektiba horri esker.

Dena dela, gauzek beste kolore bat hartzen dute hegaldiak eskuratzen dituzunean, paper guziak prestatuta daudenean eta bidaiatzeko eguna gerturatzen doan heinean. Azken finean, itxarroteak merezi izan du!



## 11 GALDERA LABUR

OIHERRUTIA BALLARENA ERRATZUKO GAZTEA

## «Edozein gaik zein pertsonak badu zer erran eta zer konta»

**Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

Buruan galderak bertzerik ez dituen 19 urteko erratzuarra. Zein dira zure zaletasunak? Segun eta noiz galdetzen didazun, aunitz aldatuko dira. Momentuan, bainu bat hartzea, irakurtzea, eguzkia hartzea eta ingurukoekin denbora pasatzea.

**Zer ari zara ikasten?**

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua ikasten ari naiz Gasteizen.

**'Xorroxin irratian' irratsaio berri bat aurkeztu duzu udan Aintzane Ariztegiarekin, 'Izerditan Blai'. Nola sortu zitzaizuen aukera?**

KLAKen, Euskal Herriko gazteen komunikazio proiektuan, hila batean behin, podcasteko atal bat prestatzen nuen. Pod-

cast hori, *Xorroxin irratian* ere ematen zuten eta honi esker ailegatu zitzaigun bertan parte hartzeko proposamena.

**Horrelako zerbait egiten duzun lehenbiziko aldia da?**

Erran daiteke horrelako gauza batean parte hartzen dudana lehenbiziko aldia dela. Egia da, hala ere, gutitan izan dudala jendearen aitzinean solastatzeko arazoak.

**Eskualdeko jende aunitz elkarriketatzen aukera izan duzu. Nolako esperientzia izan da?**

Arras aberasgarria izan da ekainetik irailera hamaika gazte zein errealitatearen inguruan aditzea, kasu aunitzen irakaskuntza propiorako ere baliatu baititugu gonbidatuekin izandako mahai-inguruak eta elkarriketak.



**Eguerditan ere aditu dizuegu bioi irratian. Lasaiago hartzen zenu-ten bigarren saio hau?**

Egia erran, bai. Egunero interesatzen zitzaigun gai bat aukeratu, horren inguruan informatu eta prestaketa labur bat egiten genuen. Hori egin da, inprobisatzerat!

**Egunero gai berri bati buruz solastatzea erraza da?**

Bai, edozein gaik zein pertsonak badu zer erran eta zer konta. Gaia bururatu, aukeratu eta interesgarriak iruditzen

zitzaizkigun galderak prestatzen genituen, betiere naturaltasunez solastatzeko. Formatu erlaxatu bat nahi genuen.

**Errepikatuko zenuke?**

Nork daki bizitzako bertze momentu batean zer nahiko dudana da arras gustura ibili naizela.

**Zure asmoak epe motzera?**

Ondokoak zaintzea eta lasaitasunean egotea.

**Eta epe luzera?**

Bidean ikasiz, kontent bidez.



1951tik

**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Mairidireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

### Nafarroako Osasun Zerbitzuak babesik gabe utzi gaitu

**PELLO SARRATEA SANZBERRO** (ALMANDOZKO ALKATEA), **ISABEL ALEMAN IRUNGARAI** (AMAIURKO ALKATEA), **KRISTINA FERNANDEZ PEREZ** (ANIZKO ALKATEA), **IMANOL ETXEBERRIA ANTIXORENA** (ARIZKUNGO ALKATEA), **JOSE LUIS RETEGI ITURBIDE** (ARRAIOZKO ALKATEA), **AITOR ITURRALDE ELIZALDE** (AZPILKUETAKO ALKATEA), **JOSEBA OTONDO BIKONDOA** (BAZTANGO ALKATEA), **CARLOS GARAIKOETXEA EL SO** (BERROETAKO ALKATEA), **IMANOL JUANIKOTENA TABERNA** (ELBETEKO ALKATEA), **AITOR BAZTERRIKA ZELAIETA** (ELIZONDOKO ALKATEA), **KAIET ITOITZ IBARRA** (ERRATZUKO ALKATEA), **FERNANDO ARRAZTOA LARREGI** (GARTZAINGO ALKATEA), **PELLO MIRENA IRIARTE ZELAIETA** (IRURITAKO ALKATEA), **ERNESTO PRAT URZAIANKI** (LEKAROSKO ALKATEA), **JORGE OTEIZA UGARTE** (ORONOZKO ALKATEA), **JOSE ANTONIO ETXEBERRIA OSAKAR** (ZIGAKO ALKATEA)

Aitzineko asteburuan [abuztuko hondarreko asteburuan], Nafarroako Osasun Zerbitzuak guardiako medikurik gabe utzi zituen Urdazubi eta Zugarramurdiko herritarrek, honek suposatzen duen guztiarekin. Larrialdi kasua izan zezakeen edozein herritar Elizondoko kontsultategira bideratua izan zen, edota kasu larrienetan, Elizondoko medikuak herri hauetara joateko betebeharrak zuten, bertako kontsultategiko larrialdiak artatzeko langilerik gabe utziz.

Hau honela izanik, ezin dugu ahaztu ez dela Urdazubi eta Zugarramurdiko herritarren arazoa soilik, Elizondoko kontsultategiari ere bete-betean eragiten baitio. Domino fitxen gisara, Urdazubi eta Zugarramurdiko guardiako medikua kentzeak Erratzu, Arizkun, Azpikueta, Amaiur, Elizondo eta Elbeteko herritarrek ere guti goiti-beheiti 3-4 orduz medikurik gabe uztea dakar. Domino fitxekin jarraituz, herri hauetako batera

mediku batek etorri beharko balu, Oronozko kontsultategiko medikuak mugitu beharko luke, Gartzain, Lekaroz, Irurita, Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz, Arraioz eta Oronozko herritarrek ere 3-4 orduz medikurik gabe utziz.

Domino joko honen lehen fitxa mugitzeak, Urdazubi eta Zugarramurdiko medikua kentzeak, 17 herrietan biltzen garen 8.000 biztanle baino gehiagoren osasuna jokoan jartzea dakar. Medikuen jubilazio eta bajak ordezkatzen ez diren momentutik, gure herritarren biziak jokoan daude eta horren erantzulea Nafarroako Gobernu da.

Gure herri eta bailarako alkateok, herritarren osasuna, bizitza eta eskubideak defendatzen ditugunez, Nafarroako Osasun Zerbitzuari falta diren medikuak lehen unetik ordezkatzea eskatzen diogu.

Herritarrik ez, mediku zerbitzurik gabe!

### Txibite eta suhiltzaileen deialdia

**FERMIN ZABALTZA ALEMAN** | ADMINISTRAZIOAN  
EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Txibite da Nafarroako eremu mistoan alemana baloratu bai eta euskara baloratu ez duen lehendakari bakarra. A zer meritua!

Halaxe egin du suhiltzaileen azkeneko lehiaketan (2021eko abuztuaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Bertan, zehazten da alemana, frantsesa eta ingelesa Nafarroa guztian baloratuko direla merezimendu gisa, eta euskara, aldiz, eremu euskaldunean bakarrik (I. eranskina, C atala).

Euskararen Foru Dekretu berria ere, baldin legegaldi honetan azkenik onesten bada, ildo horretatik joanen omen

da, Nafarroako Gobernuak aurreratu duenez.

Berriki, Alesbesko herritar batzuek sailatu dute beren herriko eraikin barrokoetako buruzko audioak prestatu dituela udalak, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez bakarrik. Txibite lehendakariak esku hartu beharko du istantean. Ez dute alemanez jarri!

## BOTA BERTSOA

**BEÑAT  
IPARRAGIRRE GOMEZ**  
BERAKO BERTSOLARIA  
BAZTAN-BIDASOKO  
BERTSOPAPER  
LEHIAKETAN B MAILAN  
BIGARREN SARIA



### Itsasoa

Doinua: Iskin hontatik idazten dizut

*Gizakiak botatzen dugula  
plastikoa uretara  
Eta horregatik gure lurrak  
egiten du lurrikara  
plastikoak lurra suntsitzen du  
egiten baitio traba  
Horrela gizakiak lur honen  
etsaiak bihurtu gara.*

*Lurraren ozeano urdina  
suntsitu dugu zeharo  
Horrelaxe jarraitzen badugu  
planetakin gu akabo  
zeren itsasoan plastikozko  
kontinente bat badago  
gainera ari dela bihurtzen  
geroz eta handiago.*

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahali eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



# Zaindu maite duzun hori...

## Nola erran?

\* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

\*'Ordu batak dira' edo 'Ordu bata da'?

Gainerako orduetan aditza pluralean erabiltzen da: ordu biak dira, hirurak dira, laurak dira... Baina 'ordu bata' salbuespena da.

- Ordu bata / oren bata
- Bi orenak / biak / ordu biak
- Hiru orenak / hirurak

Eta kasu-markak eranstea:

- Ordu batean / oren batean
- Ordu bietan / bi orenetan / bietan
- Hiruretan / hiru orenetan...

## Hizki-zopa

Bilatu eskualdeko hamar mendiren izenak!

H	E	K	A	I	T	Z	A	F	K	O	Y	U	Q
G	Y	G	U	R	A	T	Z	C	G	A	G	Q	J
C	B	O	L	L	S	I	Y	W	X	L	T	I	J
D	B	A	X	K	I	N	Y	W	R	B	U	R	J
S	E	T	B	P	A	Z	K	U	A	G	Q	A	M
F	B	X	A	B	S	A	I	O	A	R	Q	K	A
F	U	D	C	U	N	A	U	G	I	Q	K	U	N
Z	L	O	J	N	Z	S	K	K	B	X	O	R	D
R	N	P	R	O	Z	A	Z	R	O	L	H	R	O
L	V	Z	Q	C	M	E	N	D	A	U	R	I	E
V	U	D	W	I	L	A	R	H	U	N	S	X	G
R	N	H	Q	Y	V	B	Y	D	F	N	D	T	I

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

# Zein da zuzena?

## Berandu(ago) ≠ gero(ago)

Berandu eta gero bi gauza dira.

- Berandu-k atzerapena adierazten du, goiz hitzaren kontrakoa:

- Jon berandu ailegatu da.

- Gero-k 'bertze zerbaiten ondotik' adierazten du. Ez du deus ikustekorik puntualitatearekin edo garaiz ibiltzearekin; segida kronologiko hutsa adierazten du. 'lehenbizi...', gero..., geroago' da sekuentzia:

- Zu ailegatu zara lehenbizi, eta ni gero.

Baina Euskaltzaindiak dioenez, «gauzak ez dira hain zorrotz hartzekoak beranduago eta geroago direnean, beranduago izatea geroago izatea ere bada eta». Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera, beranduagok bi adierak ditu.

1- Atzerapena (beranduago, alegia):

- Berandu afaltzen du beti, hamaikak aldera; sarritan beranduago ere bai.

2- Segida (geroago, alegia):

- Sartzen dena goizago edo beranduago lohituia geldituko da.

## «Alkatetza kargu konpartitua da niretako, taldeko zerbait da»

LEIRE ORTUOSTE GARTZIA DONEZTEBEKO ALKATEA

Pandemia baten erdian hartu du Leire Ortuoste Gartziak Doneztebeko alkatetza. Lan aunitz eta buruhauste bat edo bertze ekarri dio. Baina baita momentu hunkigarriak ere, 80 urteko herritarrak Covid-19aren aurkako txertoa hartzen hasi ziren momentua adibidez

M.MARTIARENA | DONEZTEBE

Gutxik jakinen dute Gasteizen sortu eta Arrasaten hazi zela Leire Ortuoste Gartzia (1978), baina honez gero denek jakinen dute otsailaz geroztik Doneztebeko alkatea dela. Agintaldi erdian hartu zuen herriko aginte makila, Xanti Utergaren eskutik. Zinegotzi izatek alkate izatera pasatzearen erabakia aitzinetik hartua zuten, beraz ez du sorpresaz harraipatu karguak eta ardurak handitu zaizkion arren gustura dabil eginkizun berrietan. Alkatea pertsona bakarra izaten da, baina Ortuostek «gu» errepikatzen du aunitzetan karguari buruz solas egiten duenean, gauza aunitz taldean bizi dituelako. Egun bakoitzak zer ekarriko dion ez dakien arren, bazekien TTIPI-TTAPAREkin hitzordua zuela alkatetzako lehen sei hilabeteen balantzea egiteko eta halaxe ekin diogu solasaldiari.

**Otsail bukaeran hartu zenuen alkate kargua, ze balantze eginen zenuke ordutik hona?**

Orokorrean egiten dudana balantzea edo balorazioa ona da, aunitz ikasten ari naiz eta orain uda lasaia goa izan denez gehiago ikasteko aprobe txatu dut. Sei hilabete hauetan, momentu potenteak bizitzea tokatu zait, agian espero ez nituen egoerak eta pandemiak horrelakoak ekarri ditu ohar-tu egin gabe. Momentu horiek pixka bat estresatu naute eta



Sei hilabete bete berri dira Ortuostek Doneztebeko alkatetza hartu zuenetik.

pasatzea ere pixka bat kosta da, baina gustura nabil.

**Aitzinetik zinegotzi aritu izanak zertan lagundu dizu?**

Desberdina da zinegotzia izan edo alkate izatea. Ez nuke

erranen antzik ez dutenik, baina desberdina da. Zinegotzi izanda gai batzuk bertzeak baino gehiago menperatzen nituen. Kultura, berdintasun eta turismo zinegotzia nintzen

**«ALKATE IZATEA EDO ZINEGOTZI IZATEA DESBERDINA DA»**

**«XANTI UTERGA ONDOAN IZANDA, BERTIGOA TXIKIAGOA DA»**

eta arlo horiek menperatzen nituen, horietan aritzen nintzelako. Nahiz eta lantaldean bertzeen berri izan eta jakin bertze arlotan zertan aritzen ziren ez nituen hainbertze lantzen. Gauza aunitzetan den artean hartzen genituen erabakiak, eta zertan aritzen ziren jakiteak eman dit gaien gaineko halako ikuspegia. Baina oraingo ardurarekin aunitz ikastea tokatu zait.

**Zertan aldatu zaizu herriarekiko zenuen ikuspegia?**

Herriarekiko ikuspegian ez dut alde handirik sumatu, zinegotzi izanda ere hagitz hurbil egon izan naizelako perspektiba horretatik. Aizineko agintalditik Xanti (Uterga) eta Pello (Grazenea) alkate eta bigarren alkateordearekin eskuz esku aritu naiz lanean eta lan aunitz egin dugu modu horretara. Horrek jada emana zidan Doneztebeko nahi-ko ikuspegi globala.

**Zubietako zinegotzi eta alkate ere izan zinen aitzinetik. Doneztebera salto handia al dago udalgintzan?**

Ez du deus ikustekorik. Doneztebe 1.800 biztanleko herria da eta Zubietan biztanle aldetik ez da laurdena ere. Donezteben arloka egiten dugu lan eta Zubietan ia dena batera lantzen da. Doneztebeko Udalak 24 langile ditu, musika eskola, haur eskola, merkataritza, trafikoa eta bertze hainbat gauza kudeatu behar dira. Lan egiteko modua eta kudeaketa hagitz desberdinak dira.

**Zainetan daramazu udalgintza edo herrigintza?**

Hori askotan galdetu izan didate, ez delako ohikoena bi herritan alkate eta zinegotzi izatea. Zubietan parean tokatu nintzen. Taldea osatu behar zen eta kasualitatez sartu nintzen, bertako alkate izatea nolabait egokitu egin zitzaidan, horrela tokatu zelako. Doneztebeko zinegotzi izatea ere antzekoa izan zen, aitzineko agintaldian taldea osatu behar zen, gero jarraitu egin genuen eta ondotik



alkatetza hartzea aitzinetik solas egina genuen.

**Ez da ohikoena agintaldi erdian Kargu aldaketa egitea. Zergatik hartu zenuten erabakia?**

Gure taldearen bigarren legealdi honetan jende berria sartzea zen helburua eta erabaki hau ere taldean hartu genuen. Alkate izateko pausoa ematea ez da erraza eta azkenean Xantik (Uterga) eman zuen berriz ere. Hala ere sobera pisu ez izateko, aitzinetik lau urte eginak zituelako, alkate aldaketa egotearen aukera jarri genuen mahai gainean. Xantik ere baditu bere lan eta bizitza pertsonaleko proiektuak eta horrela berarendako ez zen agintaldi hain luzea suertatu eta hurrengoari, kasu honetan niri, denbora eman dit pixkanaka prestatzen joateko. Hasieratik alkatetza kargu konpartitua izan dela erran daiteke. Hala ere bizi dut, taldeko zerbait da. Kanpotik ulertzeko agian ez dirudi erraza, baina guk argi ikusi genuen nola egingen genuen eta nola moldatuko ginen. **Pandemia erdian kargua hartu beharrak ez al zizun bertigorik eman?**

Bertze hainbat gauza nituen buruan eta momentuan ez nuen horretan pentsatu ere egin. Ez nuen pentsatu oztopo haundirik izanzen zela bidea hartutakoan. Egia da, hilabeteak pasatu ahala nahiko momentu gogorak izan ditugula eta erabaki aunitz hartu behar izan ditugula. Horrek denbora kendu digu bertze lan batzuk egiteko. Kargua hartutakoan baino gehiago ondotik sentitu dut pandemiaren bertigoa.

**Krisi sanitarioak zertan eragin du alkatetzan?**

Eraikin publikoetako protokoloetan eragin zuzena izan du, musika eskolan, haur eskolan eta kiroldegian adibidez. Txertaketak ere egunerokoan eragin digu eta osasun etxearekin lanean aritzea tokatu zaigu. Hasieran Malerrekako txertaketa eraman behar izan genuen, orain eskualdekoa dagokigu eta horrek aldaketak



Otsailaren 24ko udalbatzan hartu zuen aginte makila Leire Ortuostek Xanti Utergaren eskutik.

egitera behartu gaitu. Etxeratzeko aginduaren berri ematea, udaleko langileen bajak, ordezkapenak, beti suertatzen dira azken ordukoak eta horrek alertan egotera behartzen zaitu etengabe.

**Nolakoa da zure egunerokoa alkate bezala?**

Egun guztiak desberdinak dira, agendan dena txukun apuntatuta izan arren, jaiki eta ez dakizu egun horretan zer gertatzen ahal zaizun. Ahal dugun bezala eta ahal dugun hobekien eramaten saiatzen gara. Udaltalde hagitz ona dut, hagitz harreman ona eta estua dugu eta denak daude beti laguntzeko. Alde horretatik babes hori izatea haundia da eta ez nago kexatzeko.

**Xanti Uterga, aitzineko alkatea, ondoan izateak zertan laguntzen dizu?**

Berak sei urte egin ditu alkate eta esperientzia hori baduela nabaritzen zaio. Bere iritzia, esperientzia eta laguntza beha-

rezkoa eta ezinbertzekoak dira niretako. Edozein zantzara argitzeko hortxe dago beti eta Xanti ondoan izanda lehen aipatutako bertigoa txikiagoa izan da.

**Nola uztartzen duzu alkatetza lanarekin, familiarekin eta zale-tasunekin?**

Hori da agian gehien kosta zaidana, izan ere, alkate aste-zazpi egunetan eta eguneko 24 ordu zara, nahiz eta deskonektatzen saiatu. Lanean jarraitzen du eta familiarendako ere denbora gutxiago dut, hilabeteak pasata neurria hartu diot eta eurak ere bai. Lagunen eta familiaren babesa dut eta horrek ere aunitz laguntzen diu egunerokoan.

**Zein izan da hilabete hauetan hartu duzun erabakirik gogorrena?**

Ez besten ondotik herrian positiboek kasuak goiti egin zuten egun zailak izan ziren. Udalean langileen bajak, altak, herritarren positiboak, itxial-

diak... Udala kudeatzea ez zen erraza izan. Lan handia pilatu zen 15 egun izan ziren, agenda guztia bertan behera utzi beharra, igerilekua zabaldu eta seguitan ixteko erabakia hartzea. Buruhauste gehien izan genuen momentua izan zen. Herritarrek ulertu zuten ez zela momentu erraza inorendako, babes hori sentitzeak ere lagundu zigun egoerari eusten.

**Zein dira Doneztebeko Udalaren datozen hilabeteetako erronkak eta proiektuak?**

Erronka handiena herrian trafikoarekin dugun aferak konpontzea da. Bi karriketan moldatze lanak egin behar ditugu, herri osoan pintaketak egingo ditugu, aparkalekuak markatu eta seinaleak paratu. Herriaren erdigunean oinezkoen eta autoen espazioa definitzea da gure asmoa.

**Agian goiz da, baina hurrengo agintaldira aurkeztuko al da Leire Ortuoste?**

Orain agintaldi hau ateratzea da dugun helburu bakarra eta indar guztiak honetan jarriko ditugu. Ondotik zer egingen dugun? Auskalo, baina gustatuko litzaidake jende berria sartzea. Bertze ikuspegi bat duena, hori ona delako zentzu guztietan herri batendako.

**«EZ BESTEN ONDOTIK UDALA KUDEATZEA EZ ZEN ERRAZA IZAN»**

**«ERRONKA TRAFIKOAREKIN DUGUN AFERA KONPONTZEA DA»**



Mertxe Retegi, Amaia Pando, Leire Ardanza eta Luis Gerrarekin ezagutu dugu Berako San Jose zahar etxeako egunerokoa.

## Zahar etxeak, oraina eta etorkizuna

Mende laurden bete du Berako San Jose zahar etxearen egoitzak. Historia aunitzez ere luzeagoa du, 1883an zabaldu baitzuten lehen egoitza. 25. urteurreneko ospakizunen ondotik bertako egunerokoa ezagutu nahi izan dugu zuzendariarekin, dinamizatzailearekin eta bi egoiliarrekin.

### M.MARTIARENA | BERA

Familia handi bat bizi da Berako San Jose zahar etxean, egoiliarrek, euren familiek eta bertako langileek osatzen dute. Gizartean geroz eta garrantzi handiagoa duten tokiak dira, baina era berean oraindik ere aurreiritzi aunitz daude euren inguruan. COVID-19ak eragin da urte gogorra izan bada, zahar etxeak bereziki kolpatuak eta zigortuak izan dira. Zahar etxeak izan arren, oraina eta etorkizuna duten etxeak dira eta Beran hori hagitz presente dute.

Amaia Pando Aramendi (Bera 1979) San Jose zahar etxeako zuzendaria da, 2020ko urtarri-laren leian hasi zen postu horretan lanean. «Kasualitatez ailegatu nintzen postu honetara», aitzinetik gizarte zerbitzuetan aritua zen lanean eta San Joseko zuzendariak utzi

zuenan berari lehengo lana bukatzen zitzaion eta postua eskaini zioten. Gestio lanak dira Amaia-aren eguneroko egin-kizun nagusiak: Nafarroako Gobernuarekin dituzten plaza kontzertatuak kudeatu, hobe-tzeko gauzak antolatu eta lan-gileen antolaketa daude bere lanen artean. «Azkenean urteko 365 egunetan, 24 orduz dago martxan eta engranajeak ongi funtzionatu behar du», denbora bertan ez da gelditzen.

Leire Ardanza Urrutia (Bera 1982) duela 15 urte ailegatu zen lehen aldiz Berara. Ikasketak bukatu eta lehenengo

### «ZAHAR ETXEEN BEHARRA HANDITU EGINEN DA»

AMAIA PANDO ZUZENDARIA

Lesakako zahar etxean arituz, gero Elizondoko Benito Mennin, berriz Lesakara itzuli eta «hemen animatzaile bezala hasteko aukera suertatu zen». Erizain laguntzaile eta animatzaile lanak batera eginez hasi zen, «baina konturatu ginen zaharrek ez zutela noiz nuen lan bat eta noiz nuen bertzea bereizten». Hori ikusita animatzaile figuraren aldeko apustua egin zuten. Animatzaile bezala aritua zen bertze alor batzuetan eta bere apunteekin etorri zen, «konturatu nintzen ez zutela hemen balio eta zerotik hasi nintzen».

### «EGOILIARRAREN NAHIAK BETETZEN SAIATZEN GARA»

LEIRE ARDANZA DINAMIZATZAILA

### Bizileku eta etxe

Zahar etxe baten definizioa eskatuta, bat etorri dira «aurreiritzi aunitz» daudela erraterakoan eta «normalean ez dira aurreiritzi hagitz positiboak». Adineko pertsonak, euren etxean bakarrik defendatzen ez direnean bizitzera joateko leku bat da, «labur-labur erranda bere etxea» gaineratu du Pandok. Jendeak kanpotik «toki grisak» direla uste du eta errealitatea aurkakoa dela diote. «Familiek ez dituzte zaharrak abandonatzen» jarraitu du, «hagitz sartuta daude egunerokoan eta euren ongizatean». Familia batentzat ez da erabaki erraza izaten «erruduntasun sentimendua izaten dute eta hausnarketa fase baten ondorioa da» familiako bat zaharren egoitza batera bizitzera joatearena. Seme-alabek euren buruari aunitzetan galdetzen omen diote «nola utzi behar dut hemen ama edo aita?», baina gero dena ongi doanean «aunitz lasaitzen dira».

Leire Ardanza-aren hitzetan «senideek parte-hartze aktiboa» dute egunerokoan eta bisitak egiteaz gain, «gauza eta ekin-tza aunitzen» parte dira. «Familiek eurek erraten dute bertze familia handiago baten





## «ITXIALDIA ZAHARRENTZAT ZIGORRA IZAN ZEN»

AMAIA PANDO ZUZENDARIA

parte sentitzen direla» eta egoiliarrek euren etxean izanen lituzketen gauzak «eskura jarzen saiatzen gara». Adineko aunitzek etxean goiz osoa bakarrik eta telebista ikusten pasa beharrean «hemen bertze mila plan eta zer egin» izaten dituztela azpimarratu du Leirek eta orduan «bizia eman diot» pentsatzen dute.

### Egokitzapena

Berako San Jose zaharren egoitzara ailegatzen den egoiliar berriak egokitzapen fase bat izaten du. «Sartu berriak direnean terapeutek eta Leirek garrantzi handia dute» dio zuzendaria. Ailegatu berria denaren bizitza eta historia jakiten ahallegintzen dira, ongi ezagutu zer bizitza izan duten, «garrantzitsua da zer interesatzen zaion jakitea» gehitu du. Ardanzak argi du, hasieran beraiekin denbora gehiago egon behar dutela, «horrelako etxe handi batean kokatu behar dute». Gakoa «laguntza eta motibazioa» direla dio. Kolpean bertara bizitzera joan beharrean, egokitzapen prozesuak ere proposatzen zaizkie egoiliar izan direnei. «Aukera ematen diegu eguneko egonaldia egin eta zentrorra ohitzen hasteko eta hilabetera edo bizitzera etortzeko».




## «SENIDEEK PARTE HARTZE AKTIBOA DUTE»

LEIRE ARDANZA DINAMIZATZAILEA

Dinamizatzaile lana izanda, Ardanzen burua «beti martxan» egoten da. Pandemiaren ondotik egoiliarrek «kanpora joateko beharra eta erlazioatzeko gogoia dute». Orain, beraz, ahal duten guztietan kanpora ateratzen saiatu dira eta horretarako hagitz garrantzitsua izan da boluntarioen laguntza. Urte osoko plangintza antzekoa izan dela dio. Egunerokoan berriz goizetan egunkaria leitzen dute, gimnasia ariketak eta egoiliarrek gustuko dituzten gauzak egiten dituzte «hainbat eskaintza egiten ditugu denak gustura egon daitezen». Horien artean daude, adibidez, baraztea, loreen zaintza, gozogintza edo jostea. Uda aldera, berriz, «ateratzea gustatzen zaigu» eta lau bat irteera edo egiten saiatzen dira. Era berean, Ardanzen ustez, garrantzitsua da kanpoan gertatzen denarekin «erlazioatuta egotea» eta azken urteetan herriko bi ikastetxerekin, Labiaga Ikastolarekin eta Jesusen Bihotzarekin bealunaldien arteko proiektuak egin izan dituzte. Haurrekin hagitz giro «berezia» sortzen dela dio Ardanzak.

Geroz eta gizarte zaharragoa da gurea, jendea geroz eta adin gehiagorekin hiltzen da eta zahar etxeek geroz eta garran-



## Milagros Aldabek 100 urte bete ditu

Abuztuaren 21ean bete zituen 100 urte Milagros Aldabek beratarrek. Mendeurrena ospatzeko egun berezia antolatu zuten Berako San Jose zaharren egoitzan bere omenez.

tzia handiagoa izan behar lukete. Eskaria eskaintza baino handiagoa da. San Jose egoitzak itxaron zerrenda bat du «horrek argi uzten du gizarte honek horrelako zerbitzuen eta etxeen beharra dela, behar hori handitzen joan da» dio Pandok. Zahar etxe guztietan kexa bera dela dio «administrazioen apustua behar da, euren parte-hartzea». Berako San Jose egoitza fundazio bat da, autonomoak dira, nahiz eta Nafarroako Gobernutik diru laguntzak hartu.

### COVID19-a

Pandok zuzendari kargua hartu eta hilabete gutxira ailegatu zen COVID-19. «Hasieran Txinako zerbait zen, urrutikoa eta Gasteizera iritsi zenean konturatu ginen hurbil zegoela». Ardanzak gogoan du Zestoako zahar etxea itxi zutenean hartu zutela eurek ere ixteko erabakia «Nafarroako bertze zentroak baino lehen itxi genuen». Material falta oroitzen dute, ez zuten maskararik eta brikolaje denda batera joan ziren maskarak erostera «horiekin ibili ginen hasieran». Itxialdia zaharrentzat «sufri-mendua eta zigorra» izan zela dio Pandok, «zigortu genituen elkarrekin bizi direlako eta

koronabirusa sartuz gero boba bat izan zitekeelako». Osasuna aitzinetik jarri behar dela dio, baina argi du «oraingo perspektibatik ikusita» ezin dela horretara itzuli.

Ezjakintasun horretan hila-beteak pasa zituzten COVID-19 kasurik gabe San Jose egoitzan, baina azaroan iritsi zen COVID-19a. Egoiliar batek sukarr-zuela eta hurrengo egunean PCRak egin zituzten, zortzi kasu izan zituzten kolpean, hurrengo egunean bertze hainbertze. «Ez genekien nondik hasi, zer egin» dio Ardanzak, koronabirusaz zerbait gehiago jakin arren. Kaosak hartu zuen egoitza, ez baitziren egoiliarrek bakarrik gaixotu, langileen % 80ak ere positibo eman zuten. Eztanda baten modukoa izan zela erran dute «zaharrak euren logeletan itxita suhiltzaileak etorri ziren oheak mugitzen laguntzera eta eguneroko lana zein zen zekiten langileak falta» zela dio Pandok. «Orduak pasa eta egunak ez ziren bukatzen, negar aunitz egin genuen, gaineratu du dinamizatzaileak.

### Elkarbizitza

Horrelako egoitza batean elkarbizitza ere batzuetan ez da erraza izaten. Etxe guztietan



Joan den irailean etorri zen Berako egoitzara Luis Gerra.

## «Batzuetan hotelean gaudela pentsatzen dugu»

**LUIS GERRA URTXEGI** EGOILIARRA

Urtebete beteko du Luis Gerra Urtxegi (1942) igantziarrak Berako San Jose zaharren egoitzan. Etxean «bezain ongi» dagoela dio bertan eta etxeaz ere ez dela oroitu ere egiten. «Kontent naiz bertan»; jatekoa ona dela dio, langileekin duen harremana eta tratua hagitz ona, esker oneko hitzak bertzerik ez ditu bertakoentzat. Eguneko martxa hartua dutela dio Luisek, «goizetan txukun jartzen laguntzen didate, gosaltzeko denboran gosari elegantea izaten dugu egunero eta pasioan joaten gara ondotik». Boluntarioak ere joaten zaizkiela azaldu digu eta eurekin «hagitz ongi» moldatzen direla. «Batzuetan pentsatzen dugu hotel batean gaudela, igualtsua izanen dela pentsatzen dut». Baratzean ere aritzen da Luis, Manurekin batera «biok aritzen gara eta beti bada zer egina». Letxugak bildu eta gehiago paratu behar zituztela erran zion TTIPI-TTAPARI elkarrizketa egindako garaian eta tomateak zaintzen ere izan dute lana. Berako udaletxeari «landare gehiago paratzeko kajoak» eskatu behar zituztela erran zigun. Luisen ilobak egindako bisitetako batean mangera paratu zuen, landareak behar bezala urreztatzeko.

### Familiarekin hartutako erabakia

Luisek astean bi aldiz izaten du etxeko bisita. Anai-arrebak edo ilobak joaten zaizkio. Eurekin hartu zuen zahar etxera bizitzera joateko erabakia. «Hanka moztu zidatenean egoitza batean hobeki egonen nintzela» pentsatu zuten eta horrela lehenik Milagroko egoitzan egin zituen bortz hilabete inguru. Gero Beran lekua bazela erran zioten eta berriz ere Bortzirietara itzuli zen. Familiarentzat erosoagoa da «Milagron arront urruti nintzen» eta orain etxe ondoan naizela «aunitzez hobekiago» dagoela dio eta horrela «denak kontent» daudela. Oraingoz ez duela «etxera bueltatzeko intentziorik» erran digu.

bezala daude «gaizki ulertuak eta errietak» dio Ardanzak, baina orokorrean «giro ona dugu eta badugu familia garen sentsazioa». Egun txarrak mundu osoak izaten dituela dio

Pandok eta momentu batzuetan hemengo batzuek «nahiago lukete euren etxean egon». Baina hori «langileoi ere gertatzen zaigu» dio eta egunak aitzinera egiten du.



Mertxe Retegik ez du San Jose egoitzarekin inongo kexarik.

## «Egoitzan hobeki egonen nintzela erraten zidaten»

**MERTXE RETEGI PETRIKORENA** EGOILIARRA

Eratsunen jaio eta bertan bizi izan zen Mertxe Retegi Petrikorena (Eratsun, 1932) 23 urtera arte. Ezkondu zenean joan zen Lesakara bizitzera eta bertan bizi izan zen 63 urtez. «Ongi bizi izan nintzen Lesakan, etxean lan eginez, umeak hazi, lagunekin egon» eta alargundu zenean ere etxean bakarrik bizitzen jarraitzea zen bere asmoa. Semearekin «sesioan» ere aritu omen zen, hark «etxean ezin nuela bakarrik egon» erraten zion eta Mertxek baietz «posible nuela pentsatzen nuen». Etxeko langile bat hartzea ere mahai gainean jarri zuten aukera moduan bakarrik egon ez zedin, baina Mertxeri ideia ez zitzaion aunitz gustatu. «Egoitza batean hobeki egonen nintzela erraten zidaten», etxean bakarrik edozer gertatuta ere laguntzarik ez zuela izanen eta halako batean «konformatu» zen proposamenarekin eta egoitzarako pausoa eman zuen. Eta ez da geroztik damutu.

### Erabaki ona

«Hagitz kontent nago erabakiarekin» gaineratu du Mertxek, hori erraten die familiakoei, bertako langileei, lagunei eta baita TTIPI-TTAPARI ere. Hasieran «etxearen txirrinta» izan omen zuen, baina iada ohitu da San Jose egoitzako egunerokora. Telebista pixka bat ikusi, irakurri, tarteka josi, eguzkia hartzera atera, paseatu. «Ez dut aspertzeko astirik izaten» eta bere zaletasunekin inguruko konpainiarekin aise pasatzen zaizkio egunak. Bisitak ere izaten ditu Mertxek, semea, bilobak, ilobak eta horren «kexarik ez» du. 2020ko itxialdia «gogorra» egin zitzaion, barrenean egon beharra eta «ezin inor etorri bisitan». Bideo eta telefono deiekin eramangarriagoa izan omen zen dena, «horrela ikusten genituen eta ez zen gutxi». Hilabete horiek kenduta, Mertxek «ez du inongo kexarik» azken hiru urtetako bere etxearekin.

Amaia Pando eta Leire Ardanzari galdetu diegu ea zahartzen direnean San Jose zaharren egoitza bezalako lekuren batean imajinatzen duten euren burua. Ez dute erantzun

garbirik. Momentua ailegatzen denean erabakiko dutela diote, bitartean Berako San Jose zaharren egoitzako egoiliarren ongizatean jarraituko dute lanean.






Errehabilitazio-zentroa

**PRIM**



Regina Tolosa  
Pedro Wodnik

 Centro Prim

 regina tolosaechepare



## K-STRETCH PRIM

Luzatze-ariketetan oinarritzen den jarrera-metodoa da, muskulatura lantzen duena gorputzaren jarrera hobetzeko. K-STRETCH hamakarekin sistema miofasziala modu erraz, eroso eta azkarrean bigundu eta berrerekatu dezakezu.



### K-STRETCH METODOAREN ONURAK

- Muskuluen tentsioa berrerekatzen eta normaltzen du.
- Gorputzaren jarrera zuzentzen eta hobetzen du.
- Mugikortasun artikularraren hobetzen du.
- Odolaren zirkulazioa hobetzen du.
- Gorputz-kontzientzia eta motor kontrola hobetzen ditu.
- Egoera fisiko orokorra hobetzen du.
- Kirol errendimendua eta indarberritzea hobetzen ditu.
- Estresa murrizten laguntzen du.

### NORENTZAT DIRA KLASEAK?

EDONORENTZAT!  
Kirolariak, gazteak, adindunak, haurdunak...

### K-STRETCH KLASEAK

Ordubeteko saioak izanen

dira, sei laguneko taldeek osatuak. K-STRETCH, kirol eta jarduera fisikoetan prestatutako fisioterapeuta batek emanen ditu klaseak. PRIM zentro berrian izanen dira (S. Esteban, 17), 80 metro karratuko eta aireztapen oneko areto batean.

### PREZIOAK

K-STRETCH klaseen tarifa hitzartuta dago eta asteko saio kopuruaren arabera da. Astean klase batera joanda, **hilabeteko tarifa 60 euro**ko izanen da, eta astean behin baino gehiagotan izanda beherapen gehigarri bat egingen dugu.

### NON EMAN DEZAKET IZENA?

Deitu 629 72 93 70 edo 948 62 52 06 telefono zenbakira eta eman izena. K-STRETCH metodoa gustuko izanen duzun edo ez ziur ez bazaude, **probatu lehenengo saioa DOAN**. Deitu eta lortu zure plaza!

### IRUN

Colon Pasealekua, 6 atzea  
Tel.: 943 63 30 50

[info@rehabilitacionprim.com](mailto:info@rehabilitacionprim.com)

### BERA

San Esteban, 17 **zentro berria!**  
Tel.: 948 62 52 06

[www.rehabilitacionprim.com](http://www.rehabilitacionprim.com)

## Eskualdeko 5.965 ikaslek hasi dute ikasturtea

Aurten ere neurri bereziekin hasi dute ikasturtea Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan

### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
<b>BAZTAN</b>	0	0	205	6	0	449
Almandoz IP			7			2
Amaiur IP			10			19
Arizkun IP			8			22
Arraioz IP			7			19
Azpilkueta IP			7			16
Baztan Ikastola			65			130
Elizondo IP			54	6		139
Erratzu IP			10			24
Gartzain IP			6			7
Irurita IP			20			36
Lekaroz IP			2			10
Oronoz IP			8			17
Ziga IP			1			8
<b>BERTIZARANA</b>	0	0	20	0	0	52
Legasa IP			9			30
Narbarte IP			11			22
<b>BORTZIRIAK</b>	10	10	224	34	18	532
Arantza IP			12			46
Bera (Ricardo Baroja)			52			140
Bera (Labiaga Ikastola)			42			99
Bera (Jesusen Bihotza)	10	10		34	18	
Etxalar IP			22			60
Igantzi IP			18			34
Lesaka (Irain IP)			50			90
Lesaka (Tantirumairu)			28			63

\*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
<b>BAZTAN</b>	32	0	335	0	0	120
Lekaroz	32		335			120
Elizondo						
<b>BORTZIRIAK</b>	25	8	331	0	0	107
Arantza IP			12			
Bera (Toki Ona)	25	8	272			107
Bera (Labiaga Ikastola)			47			
<b>LEITZALDEA</b>	0	0	247	0	0	111
Goizueta			13			
Leitza (Amazabal)			234			111
<b>MALERREKA</b>	0	0	241	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			241			
<b>XARETA</b>	431	98	11	0	0	0
Senpere**	431	98				
Urdazubi-Zugarramurdi			11			
<b>Guztira</b>	488	106	1.165	0	0	338

\*\*Senperen Bigarren Hezkuntzako datuak Arretxea Kolegiokoak dira eta Heziketa Zikloko datuak Laborantza Lizeokoak.

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
<b>LEITZALDEA</b>	0	0	125	0	0	285
Areso IP			13			16
Goizueta IP			20			42
Leitza IP (Erleta)			92			227
<b>MALERREKA</b>	0	0	140	0	8	319
Doneztebe (S. Migel)			91		8	212
Ituren IP			22			50
Saldias IP			3			9
Sunbilla IP			24			48
<b>XARETA</b>	86	182	105	188	222	160
Sara (Publikoa)		24		8	21	
Sara (St. Joseph)		46		13	50	
Sara (Olhain Ikastola)			40			66
Senpere (Publikoa)	30	68		65	92	
Senpere (Amotz publ.)	17	10		47		
Senpere (Zaldubi ikas.)			54			63
Senpere (St. Joseph)	39	34		55	59	
Urdazubi-Zugarramurdi			11			31
<b>Guztira</b>	96	192	819	228	248	1.797

### HAUR HEZKUNTZA

**-% 1,42**

### LEHEN HEZKUNTZA

**+% 2,82**

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
8		31		141		31	
	8		31		141		31
4		0		45		30	
	4		0		45		30
0		0		0		0	
	0		0		0		0
0		0		0		198	
	0		0		0		198
12		31		186		259	

### BIGARREN HEZKUNTZA

**+% 14,42**

### BATXILERGOA

**-% 3,70**

### HEZIKETA ZIKLOAK

**+% 5,86**



## Euskaltegian izena emateko epea zabalik da

Matrikulazio kanpaina girotzeko Mikel Tabernaren azken liburuaren aurkezpen musikatua egingen dute Lesakan

### TTIPI-TTAPA

Doneztebe eta Lesakako euskaltegian izena emateko epea irailaren 30era arte ireki dute. Ikasturte berria hasiko da irailan eta honekin batera erronka berriak planteatzeko unea. Euskara ikasteari ekitea, orain arte ikasitakoa finkatzea eta lortutako maila hobetzea erronka pozgarriak izan daitezke eta horretan esperientzia handia daukate Bortzirietako eta Malerrekako euskaltegiak, maila guztietako ikastaroak eskaintzen baitituzte. Informazioa lortu edo matrikulazioa egin nahi duenak, 948 63 77 96 edo 948 45 17 46 telefonoztara deitu behar du.

Gainera, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskara sustatzea du helburu, eta euskara ikasteko %100eko dirulaguntza emanen diete Arantzan, Beran, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan erroldatutako 16 urtetik goitiko herritarrei, beti ere asistentzia %85etik goitikoa denean. Asistentzia %50 eta %85 bitartekoa denean %75 ordainduko zaie eta ez dute dirulagun-

tzarik jasoko klase erdietara baino guttiago joaten direnek. Malerrekaren ere osorik ordainduko diete matrikula %86 eta %100 arteko asistentzia ziurtatzen dutenei, matrikularen %75 ordainduko diete %70 eta %85 arteko asistentzia dutenei eta ez dute dirulaguntzarik jasoko %69 edo guttiagoko asistentzia dutenek. Dirulaguntzei buruzko informazio gehiago Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ([www.bortziriak.eus](http://www.bortziriak.eus)) eta Malerrekako Mankomunitatearen ([www.malerrekakomankomunitatea.eus](http://www.malerrekakomankomunitatea.eus)) webgunean topa daiteke.

### Mikel Tabernaren azken liburuaren aurkezpena

Kanpaina girotzeko, irailaren 16an, ortzegunarekin, *Arkanbele kantak: poema errezitaldi musikatua eta irudiz lagundua* ekitadia egingen dute Lesakako Harriondoan, Bortzirietako Euskaltegiak eta Euskara Mankomunitateak antolatua. Bertan, Mikel Tabernak bere azken liburuko olerkiak errezitatuko ditu, Joseba Irazoki eta Oier Fuentesen laguntzarekin.



Bi txirrindulari Bidasoko Bide Berdean. 10.000 baino gehiago ibili dira aurten.

## Bidasoko Bide Berdea da oinezkoek eta txirrindulariek gehien erabiltzen dutena

### TTIPI-TTAPA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak oinezko eta bizikleten kontagailuak jarri ditu Nafarroako toki turistiko enblematikoetan eta emandako datuen arabera, baliabide turistikotara eta Nafarroan egindako ibilbideetara joateko joera berreskuratzen ari da.

2021eko urtarriletik abuztura, 31.299 lagun ibili dira bizikletarekin leku enblematikoren batean. 2020an 27.071 izan ziren eta 2019an 22.811, beraz, gorakada nabarmena izan da. Oinezkoen berreskuratzea ere garrantzitsua da; 2019an 467.566 ziren oinezkoak, 2020an 293.498 eta 2021ean %25 berreskuratu ziren, 364.680 oinezkoekin.

Bizikletan ibiltzeko leku enblematiko hauen artean, Bidasoko Bide Berdea izan da

bisitatuen, 10.326 lagunekin. Bigarrena Arlabango mendatetik Lizarrara doan Bide Berdea izan da, 6.078 txirrindulariarekin eta hirugarrena Tarazonikako Bide Berdea, Tuter eta Tarazona lotzen dituen, 3.491 lagunekin. Aipatzekoa da ere Plazaolako Bide Berdeak izandako jendetza Irurtzungo (2.809 pertsona) eta Lekunberriko (2.314 lagun) tartean.

Oinezkoen artean, Irunberriko Arroila (93.416 bisitariarekin), Urederrako Iturburua (56.567 lagunekin) eta Amaiur (28.393 bisitariarekin) izan dira aurten gehien aukeratu dituzten helmugak.

Bide berdeen artean, Bidasokoa da aukeratuena oinezkoen artean ere (28.974 bisitari), eta Plazaolakoa da bigarren (20.711 lagun Irurtzundik eta 15.681 Lekunberritik).

**Lizarralde ORTOPEDIA**  
Bizi kalitatea hobetuz

**ALOKATZEN DIRA:  
GURPILDUN AULKIAK  
OHE ARTIKULATUAK**

**FAKTURAREKIN  
DIRULAGUNTZA  
ESKA DEZAKEZU  
NAFARROAN**

Lizarralde Ortopedia  
Kazkazuri plaza I - behea  
20180 Oiartzun

Eskailera-igogailuak instalatzeko zerbitzua dugu

Tel: 943 54 35 85 - 688 67 85 83  
[andoni@lizarraldeortopedia.eus](mailto:andoni@lizarraldeortopedia.eus)  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)



Arreitunandia, Elzaurdia eta Sarobe, emakumeen podioa.



Gachen, Barberena eta Larqué, gizonen podioa.

## Elzaurdia eta Barberena garaile VII. gau lasterketan

71 korrikalari bildu zituen Manttale Mendi Lasterketa Taldeak irailaren 4an antolatutako probak

### TTIPI-TTAPA

Ane Elzaurdia beratarrek eta Alberto Barberena baztandarrak irabazi zuten irailaren 4an, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak antolatutako Berako Gau Krosaren zazpigarren edizioa. Denera 71 korrikalari osatu zuten 7,3 kilometro luze eta 300 metroko desnibela zuen ibilbidea eta taldeka Anbrunak izan zen garaile.

Gizonetakoan, Alberto Barberena Elizondoko korrikalariak ordu erdi baino gehixea go (32.13) behar izan zuen lasterketaren ibilbidea osa-

tzeko, Bera inguruko karrika eta mendietatik zazpi kilometro eta 300 metroko desnibel positiboa duena. Mathieu Gachen saratarrek (33.03) eta Gwendal Larqué beratarrek (33.22) podiuma osatu zuten bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren. Barberena (2014an bigarren izan zena) egin diren Gau Krosaren zazpi edizioetan zazpigarren irabazle desberdina da.

Emakumezkoen kategorian, Ane Elzaurdia Manttaleko lasterkariak bigarren garaipena lortu zuen Gau Krosan (2018an ere irabazi zuen),



Anbrunak kuadrilla izan zen onena taldeka.

40.42ko denborarekin Ines Arreitunandiaren (44.00) eta Lorea Sarobe beratarren (45.12) aitzinetik.

### Taldeka Anbrunak

71 korrikalari hartu zuten parte, eta COVID-19aren aurkako neurriak betez egin zuten lasterketa.

Anbrunak kuadrilla (Gwendal Larqué, Jon De la Cruz, Ruben Zapirain, Lorea Sarobe eta Carlos Torres) izan zen

azkarrena, Arrastakaren aitzinetik (Oihan Pikabea, Amaier Goñi eta Aritz Gartzia).

Parte-hartzaile guztiak korrikalariaren poltsa bat jaso zuten Martiko, Zalain Janariak eta S. Mazizior Edariaren produktuekin.

Lerro hauen bitartez, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eskerrak eman nahi dizkie proba antolatzen lagundu zuten boluntarioei, erakundeei eta enpresei.



Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

EDERKI tailerra



CITROËN  
ZERBITZU OFIZIALA

‘Latigillo’ hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525





Gaita eta atabala ikasteko aukera emanen dute aurten ere. ARTXIBOKOIA

# Aurten ere ez dute Lurraren Eguna antolatuko

Urriaren 16an egin nahi den Merkatu Eguna prestatzen hasteko bilera izanen dute irailaren 15ean

## TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, aurten ere osasun egoerak ez du Lurraren Eguna ospatzen utziko. Hala ere, Merkatu Eguna egingen dute urriaren 16an, larunbatarekin, Altzateko plazan eta Merkatu plazan. Honetaz aritzeko, Kultur Batzordeak bilera irekia egitekoa du irailaren 15ean, asteazkena, Herriko Etxeko batzararetoan, 17:30ean. Hainbat gairen artean, Merkatu Eguna jorratuko dute eta ekitaldiaren xehetasunak emanen dituzte. Gainera, elkarte eta norbanakoei dei egin diete ekarpenak egin ditzaten.

## Gaita eta atabal tailerra

Gaita eta atabal tailerra antolatu dute aurten ere Kultur Batzordeak eta udalak. Saioak urritik ekainera izanen dira larunbatero Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan, 12:00etatik 13:00etara. Izena emateko azken eguna irailaren 30a izanen da.

Kurtso guztiak 100 euro balioko du eta ikastaroa egin dadin gutienez bortz lagun beharko dira. Argibide eta informazio gehiago nahi duenak kultur etxera deitu edo idatzi dezake. 948 63 12 22 telefonora edo [kultura@bera.eus](mailto:kultura@bera.eus) e-postara.



UTZITAKO ARGAZKIA

## JAC abeslariaren kontzertu ederra

Jaime Alvarellos Correcher (JAC) abeslari, gitarra-jotzaile eta musika irakasleak *Raw* aurkeztu zuen irailaren 3an, bere bakarkako lehen lana, Herriko Etxeko Plazan eskaini zuen emanaldian. Ez zen jende sobera bildu, baina bertan izan zirenek kontzertu ederraz gozatu ahal izan zuten.

## Hezkuntza Bereziko bi ziklo eskainiko ditu Toki Onak

Hezkuntza Bereziko bi ziklo ireki dituzte Toki Ona institutuan, Baztan, Bidasoa eta Bortzirietako premia bereziko nerabeentzat. Nafarroan, ikastetxe arrunt batean Hezkuntza Bereziko zikloak irekitzen lehena da Toki Ona. 14. orriko kuadroan agerienez, bertalde, 943 ikasle hasiak dira ikasturte honetan herriko lau ikastetxetan: 491 Toki Ona institutuan, 192 Ricardo Baroja eskola publikoan, 188 Labiaga ikastolan eta 72 Jesusen Bihotza ikastetxean.

## Musika klasikoa eta modernoa datozen bi asteburutarako

Iraila bukatzeko, datozen bi asteburuetan bi musika estilotako kontzertuak izanen dira. Igande honetan, irailak 19, Keu Agirretxea & Pablo Novoa entzuteko aukera izanen da 18:00etan Alzateko plazan. Irailaren 25ean, berri, larunbatean 18:30ean San Esteban elizan, Valentin Larrearen omenez organo kontzertua emanen dute Ignacio Arakistainek (organoa) eta Xabier Barriolak (tenorea). Azken emanaldi hau Nafarroako Gobernua antolatu du, udalaren laguntzaz.

**Arduo**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lantzeria  
Alzate, 30 BERA T. 948 630 136

**JAIONE-COXOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

**xirgil**  
jaione goya  
ileapaindegi mistoa  
Alzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

Astelehenetik ortziralera:  
07:15etik aitzinera  
**LABE ZAR**  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
· BOLETIN INDUSTRIA  
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
Legia, 23 - BERA

**Ansoenea** ostatu · jatetxea  
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 • BERA

## Plaza inguruko lanak egiten hasi dira astelehenean

Sasoi Eskabazioak enpresak eginen ditu 532.410,93 euroren truke (gehi BEZa) eta urte bukaerarako bukatzea espero dute

### AITOR AROTZENA

Erdigunearen eraberritze planaren barrenean, irailaren 13an, astelehenean hastekoak ziren Plaza Zaharra, Beheko Plaza eta Arretxea karrikan egitekoak dituzten lanak. Hori dela eta, obraren nondik-norakoak azaldu eta izan daitezkeen zalantzak argitzeko bilera egin zuten irailaren 7an Herriko Etxean. «Jende dezentte bildu zen eta beraien kezka azaldu zituzten, batez ere inguru horretan komertzioak dituztenek: karga-deskargak nola egiten ahal diren, trafikoa nola bideratuko den, lanaren garapenaren arabera aldatzen joanen dena... Etxe guztietara eta komertzio guztietara oinezko pasabidea bermatua egonen da uneoro», aipatu digu Ladis Satrustegi alkateak.

Lanak Sasoi eraikuntza enpresak eginen ditu eta abenduaren 23rako burutuak izan beharko ditu. Hasierako aurrekontua 608.817,54 euroko (gehi BEZa) baldin baten ere, 532.410,93 eurotan (gehi BEZa) eginen ditu. Aurkeztutako hiru enpresen artean eskaintza

Sasoiena izan zen. Lanen erredakzioa Gotzon Olarte arkitektoak egin du, 14.900 eurotan (gehi BEZa) eta Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolaketa zuzendaritza nagusiaren eskutik 10.000 euro izanen du udalak, hirigintza berritzailea sustatzeagatik. Obren zuzendaritza Igor Lopez de Uralde eta Beñat Alemanek eginen dute, 14.420 eurotan (gehi BEZa).

### «Lanak hiru zatitan»

Hiru zatitan ekinen diote lanari. «Lehenbizikoan Beheko Plaza eta udaletxearen aitzinaldea eginen dituzte, bigarrenean Plaza Zaharretik Matxinbeltzenea aldera doan karrikarena eta hirugarrenean zeharbidea dena, plazatik Albistur karrika aldera doan zatia». Zati honetarako hitzarmena sinatzekoa dute udalak eta Herrilan Departamentuak eta dirulaguntzaren bat espero da. Espaloiak zabaldu eta ibilgailuen abiadura murrizteko zola aldatzeaz gain, argindar eta bertze saretarako kanalizazioa prestatuko dute.



AITOR AROTZENA

## Patrizia Etxegarai lanak komentuan

Patrizia Etxegarai Altuna (Lesaka, 1995) artistaren *Larrosak nire sahasen azpian* erakusketa ikusgai dago komentuan. Irailaren 4an egin zuen inaugurazio ekitaldia, K Kolektiboarekin batera egindako performance batekin. Iraileko larunbat eta igandetan ikusgai izanen da bere lana, 17:00etatik 20:30era.

## Mendi bizikleta ibilaldia iganderako prest Beti Gaztek

Irailaren 19an, igandean 09:00etan abiatuko da Harriondoatik Beti Gaztek antolatutako mendi bizikleta ibilaldia. 53,69 eta 23,79 kilometro luzeko ibilbideak izanen dituzte txirindulariek aukeran, 1.623 eta 742 metroko desnibela dutenak, hurrenez hurren. Izen-ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian egin daiteke irailaren 17ra arte. Antolaketa hainbat lanetarako laguntzaileak behar dituela ere jakinarazi du Beti Gaztek. Horretarako 696 80 98 86 telefonora (Whatsapp) dei daiteke.

## Auzo batzarrei ekinen die berriz ere udalak

**Irailaren 20an** Legarbaratzean, Azkaine, Otsango eta Albistur karririkak (18:00) eta Itturrunzubin, Antoiu, Koskontako bidea, Itturrunzubi, Estrata eta Albistur karririkak (19:30). **Hilaren 22an**, Bixkantxenean, Albistur, Zarrandia, Arretxea, Ote eta Pikuzelaia (18:00) eta plazan, Beheko Plaza, Plaza Zaharra, Plaza Berria eta Sumusa (19:30). **Hilaren 23an** Linddurren bordan, goitiko auzoak (19:00). **Hilaren 24an**, Bittiriko plazan, Bittiria eta Garaiko mendi (18:00) eta Eltzetan, Eltzeta, Arratzubi eta Martxanpaita (19:30).

### Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - [ainhoaaltzuguren@gmail.com](mailto:ainhoaaltzuguren@gmail.com)

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zolain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

### E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
[tabernabera@gmail.com](mailto:tabernabera@gmail.com)  
[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)





Mikel Urtxegi herritarra mendi bizikletako zatian. OSKAR TXOPERENA

## Mendi Duatloi zirkuituko lehen proba arrakastatsua

Erreleboka, Sunbillako Koldo Herrera eta Txantreako Aitor Blanco nagusitu ziren eta bakarka, Iñaki Isasi

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko lehen proba egin zuten buruilaren 5ean, Biltokik antolatua. Bero sargoriari aurre eginez emakume nahiz gizon andana hurbildu zen Euskal Herriko hainbat txokotatik. 5,96 kilometroko mendi lasterketa egin zuten lehenik, 13,72 kilometro mendi bizikletaz ondotik, eta berriz ere 2,93 kilometro lasterka bukatzeko.

Bakarkako proban Iñaki Isasi Robles izan zen bizkorrena (1.43.15), Paul Bereziartua Plaza bigarren (1.44.38) eta

Josu Urrestarazu Gartzia hirugarren (1.49.12).

Erreleboka berriz, Sunbillako Koldo Herrera Urroz eta Aitor Blanco Urmeneta izan ziren bizkorrenak (1.34.42), bigarren Asier Aburuza Belamendia eta Enaitz Roteta Erkizia (1.41.52) eta hirugarren Ibai Ormaetxea Ezpeleta eta Xabi Abasolo (1.42.04).

### Duatloi ttikia ere egin zuten

Proba hau herrian zela aprobetxatuz, Igantziko haurrek ere duatloi ttikia egiteko aukera izan zuten eta aunitz animatu ziren parte hartzera.

## Bestarik gabe ere ekitaldiz betea dator buruileko bigarren hamabostaldia

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Iaz bezala, aurten ere San Migel besta ofizialik ospatzerik izanen ez bada ere, buruileko bigarren hamabostaldia ekitaldiz beteta heldu zaigu aurtengoan ere.

### Grafiti tailerra larunbatean

Aste honetako larunbatean, irailaren 18an, egun osoko grafiti tailerraz gozatzeko aukera izanen dugu. Goizean, 10:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:30era eskainiko dute.

### Dantza taldearen saioa

Buruilaren 25ean, berriz, larunbatearekin, herriko dantza taldeak saioa egingen du. 20:00etan izanen da hitzordua frontoian. 16 urtetik goitikoak

ariko dira dantzan. Gazteek eta ttikiek abenduan izanen dute beraien lana erakusteko aukera.

### Gazta lehiaketa

Aurten ere, hutsik egin gabe, hilaren 26an, igandean, gazta lehiaketa izanen da Biltoki Elkartearen eskutik, eta beti bezala, herriko etxeetan egiten diren gaztak aurkezten ahal dira.

### Ruper Ordorikaren kontzertua

Buruilaren 26an, igandean, 19:00etan Ruper Ordorika abeslari famatua izanen dugu gure artean, Udalaren eskutik. Kontzertua igerilekuaren eremuan dagoen tenis pistan izanen da eta eguraldi txarra egingen balu, frontoian.



Ruper Ordorikaren kontzertuak borobilduko du buruileko egitarau zabala.



**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11



**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@ zumarbel@hotmail.com  
[www.zumarbel.es](http://www.zumarbel.es)



**BIDASOA**  
ascensores



IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA



**IRUN:** Primautzar 19 - T. 943 05 90 53

**ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



Iparragirre eta Otazo txapeldunak eta Olivier eta Arburua txapeldunordeak.



Eneko Dorronsoro, Fredi Pelaez eta Peio Irigoien musikariak plazan. I. ELIZAGOIEN

## Abuztu hondarreko asteburua ekitaldiz hornitua joan zen

Aitor Danborienaren omenez jokaturako pilota txapelketan Unai Otazo eta Oihan Iparragirre suertatu ziren txapeldun

### IRUNE ELIZAGOIEN

Abuztuaren 27an, ortziralean, Altxata elkarteak antolatuta, musika emanaldia izan zen Eneko Dorronsoro, Fredi Pelaez eta Peio Irigoienen eskutik. Elkartearen 30. urteurrena ospatzeko laugarren ekitaldia izan zen eta urtea bukatu arte bertze hainbat izanen dira oraindik ere.

### Aitor Danboriena memoriale

Larunbatarekin, berriz, X. Aitor Danboriena memorialeko azken pilota partidak jokatu zituzten. Txapelketan hirugarren postua Beñat Irazoki eta

Julen Telletxeak lortu zuten, 21-19ko markagailuarekin Andoni Iribarren eta Jon Santesteban garaitu ondotik, Videssa edariak-en eskutik ardo kaxa bana jaso zuten.

Finala, Unai Otazok eta Oihan Iparragirrek jokatu zuren Olivier eta Unai Arburuaren aurka. Hagitz partiduluzea eta gogorra jokatu ondotik, Unai Otazo eta Oihan Iparragirre nagusitu ziren 22 eta 21. Bigarren sailkatuek kopa bana jaso zuten Etxalarko gazteen eskutik, eta txapeldunek txapelak Haritzpe okindegiak emanda. Eskerrak Elutsa Os-

tatuari ere, txapelketa honetarako eman dituen pilota eta kamisetengatik.

### Herri kirolak igandean

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa eta emakumezkoen eta gizonezkoen Nafarroako txinga-eramate txapelketak ere jokatu zituzten abuztuaren 29an. Horren informazio zabalagoa kirol orrialdetan topatuko duzue, baina txingekin, Xanta Sousa lesakarra eta Iosu Marturet antsoaindarra suertatu ziren txapeldun. Aizkoran, berriz, irailaren 11n Beran jokatzekoa zen finalerako txartela lortu zuten Victor Suarez madrildarrak, Endika Goia beratarrak, Iker Gorritik (Uharte-Arakil), Iosu Santamariak (Iturgoien) eta Jazinto Etxekonaneak (Beintza-Labaien).

Asteburu guzian zehar jende andana ibili zen herrian eta giro polita sortu zen hiru ekitaldietan.

## Hizkuntza bimodala ikastaroa guraso elkartearen esku

### TTIPI-TTAPA

Hizkuntza bimodala (Zeinu hizkuntza + hitzak) ikasteko ikastaroa antolatuko du Landagain Guraso Elkarteak. Ikastaro hau La Caixa Fundazioak emandako dirulaguntzari esker garatuko dute eta helburu nagusia, hizkuntza bimodalaren oinarriak ikastea da, egunero-kotasunean erabilgarri izateko. Ikastaroa Berako Ane Pachecok eskainiko du larunbat goizetan. Saioak ordu betekoak eta guttiz doakoak izanen dira. Izenematea [landagain.guraso.elkartea@gmail.com](mailto:landagain.guraso.elkartea@gmail.com) e-posta helbidean egin daiteke.

Hasiberriendako yoga ikastaroa ere eskainiko dute asteartetan 18:00etatik 19:30era eskola zaharrean.

**Baztango**  
higiezin agentzia

San Esteban 11 behea  
BERA (31780)  
Nafarroa

620 028 625  
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2\*  
DONOSTIA (02004)  
Gipuzkoa

**caser**  
residencial  
www.caserresidencial.es

**Egonaldi motak**

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
  - 365 egunetan irekiak
  - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
  - Iparaldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169





Joan den urtekoan baino mugimendu handiagoa izan zen enkantean. I. ELIZAGOIEN

## la 40.000 euro bildu dituzte uso postuen lehen enkantean

Hasierako prezioan aurreikusitakoa baino 4.260 euro gehiago dira, asteartean egitekoa zen bigarren enkantearen esperoan

### IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietako uso postuen lehen enkantea irailaren 4an egin zuten kultur etxean. Denera 21 ehiza postu esleitu zituzten eta horietatik hiru hutsik gelditu ziren. Gainerako 18 postu-tuengatik gutienez 39.650 euro bilduko ditu udalak, guztiengatik aurreikusitakoa baino 4.260 euro gehiago.

Joan den urtean izandako lehen enkante motelarekin konparatuta (hasierako prezioetik beheiti eman zuten) kopuru polita da, baina gogoratu behar da, halere, 2000. urtean 50.000 euro lortu zi-

tuela udalak eta 2004an 81.875 euro.

Bertze urtetan bezala, bi posturik garestienak zortzigarrena eta hamaikagarrena, bakoitza 3.380 eurotan atera zituzten. Azkenean, tasatutako prezioan esleitu zuten zortzigarrena eta hamaikagarrena, aldiz, 121 tanto hobetu eta 4.590 eurotan esleitu zuten. Dena den, hamabigarren postua izan zen lehen enkantean gehien hobetu zutena 1.710 eurotik 3.450 eurotara altxatuz. Hutsean gelditu ziren, aldiz, 15, 16 eta 17. postuak. Lehen enkantearen ondotik sesta

### LEHEN ENKANTEA

POSTUA	PREZIOA
1	950 > 1.390
2	950 > 2.490
3	2.285 > 2.285
4	1.780 > 1.780
5	2.285 > 2.285
6	1.780 > 1.780
7	2.285 > 2.285
8	3.380 > 3.380
9	2.305 > 3.105
10	2.305 > 2.965
11	3.380 > 4.590
12	1.710 > 3.450
13	1.505 > 1.505
14	950 > 950
15	950 > 0
16	740 > 0
17	740 > 0
18	740 > 740
19	950 > 1.250
20	1.710 > 1.710
21	1.710 > 1.710
Denera	35.390 > 39.650

**Irailaren 4an egindako enkanteko behin-behineko esleipeneko prezioak eurotan. Irailaren 14an egitekoa da bigarrena**

emateko prozedura ireki zuten Sei egun naturaleko epea zuten (irailaren 10a arte) sasoi honetan Iarmendi mendira ehizatzen joan nahi dutenek behin-behineko esleipenak hobetzeko. Horrekin, bigarren enkantea egitekoa zen irailaren 14an, astearte arratsaldean. Ondotik jakinen da udalak behin-betikoz bilduko duen dirua. Esleitutako postuaren aprobetxamendua behin betiko esleipenaren egunean hasiko da eta abenduaren 12an bukatuko da. Egun horretatik aitzinera postuak desmuntatu ahal izanen dira.

## la mila bisitari pasatu dira turismo bulegotik uda honetan

### I. ELIZAGOIEN

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, 967 pertsona pasatu ziren turismo bulegotik, haue-tatik % 95 espainiar estatutik etorriak eta % 5 frantziar estatutik. Bartzelona, Madril, Valentzia, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorri ziren batez ere bisitariak Etxalar ezagutzera.

### Sevilla eta Zaragozatik aunitz

Aurtengoan gorakadarik handiena Sevillatik eta Zaragozatik etorri direnekin izan da, batez ere talde kozkorretan etorri direlako gehienak. Inguruko herrietara eta kulturarekin erlazionatutako bisitetara hurbiltzen hasi da berriz ere jendea. Hirietara ez joateko tendentzia mantendu da uda honetan ere. Orain dela pare bat urtera arte, Donostia eta Biarritz aldera joaten ziren turista aunitz egun-pasa eta, aurtengoan aunitzek nahiago izan dute herri tikieta gelditu, mendian ibili edo errekan sartu. Bisita gidatuei dago kienez, lau bakarrik egin ahal izan dituzte herrian, horretarako jende nahikoa bildu denean. Herriko eta inguruko historia eta anekdotak kontatuz egin dute ibilbidea.

DenokBat  
Hemen erabili  
**kattagorria**  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea  
**ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA**  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
**629 449 602**

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214 M. 605 631 244  
**ETXALAR**

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

## Pelle Ttiki haur txokoa berriz ireki dute

Bortz neska-mutiko hasi dira Pelle Ttikin eta astelehenetik ortzirralera 09:00etatik 13:00etara biltzen dira

### NEREA ALZURI

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, Pelle Ttiki haur txokoak berriz ireki ditu ateak. Aitzineko ikasturtean haur bakarrak eman zuten izena eta udalak bideragarria ez zela ikusita, zerbitzua alde batera utzi behar izan zuten. Ondoko urteei begira, ordea, haur gehiago apuntatuz gero, berriz ere funtzionamenduan jartzeko aukera mahai gainean utzi zuten udalak, eta halaxe izan da.

Bortz neska-mutikok eman dute izena: Joshua Arian Arauz

Polanco, Suhar Sorli Lizardi, Xuban Ordoki Hualde, Lizar Eskudero Almandoz eta Alaia Madariaga Beizama. Magalako Ttikiak enpresak hartu du Pelle Ttikiren ardura eta Ane Gurrutxaga lesakarra da haurren hezitzailea. Abuztuaren 30ean hasi zen lanean hezitzailea eta geroztik 08:30etik 13:30era aritzen da. Neska-mutikoak, berriz, irailaren lehen estreinatuta zuten guztiz itxuraldatua dagoen haur txokoa. Astelehenetik ortzirralera, 09:00etatik 13:00etara ematen dute zerbitzua.



Hauxe oinez egiteko ibilaldien informazio-panela. JOSE RAMON AMOROS

## Oinez eta bizikletaz egiteko mendi ibilaldiak prestatu ditu udalak

### NEREA ALZURI

Oinez eta bizikletaz egiteko mendi ibilaldien informazio panelak paratu ditu udalak herri sarreran uda honetan.

Ibilbide guztiak herri sarrerako aparkalekutik hasten dira. Guztira oinez egiteko zazpi eta bizikletarekin egiteko bortz ibilbide dira, batzuk luzeak eta

bertzeak motzak, mendizaleak nahi duena aukeratu dezan.

Beti ere, naturaz gozatuz eta natura errespetatuz, eta herria zainduz egiteko ibilbide ederrak dira. Ibilbide guztien eta herriko zerbitzuen informazioa [www.arantzaturismo.eusen](http://www.arantzaturismo.eusen) bildu dute eta triptikoak ere prestatu dituzte.



IBAN ZUGARRAMURDI

## Etxekoak musika emanaldietan

Irailaren 4an, udako kontzertuen zikloari akabaila eman zioten Aterpean. Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelenarekin kontzertu bazkaria izan zen, giro ederrean. Abuztuaren 27an, Esne Beltza eta Amak taldeen saio politaz gozatzeko aukera izan zen. Iban Zugarramurdi herriko bateria-jotzaileak etxean jo zuten.



Irailaren 4an gaztainondoei buruz egindako saio teorikoa. UTZITAKOA

## Gaztainondoak txertatzeko ikastaroarekin aitzinera segitzen dute

### TTIPI-TTAPA

Bertako gaztainondoak berreskuratzeko bidean, udalak antolatutako ikastaroaren berte saio bat egin zuten irailaren 4an, Efen Martin adituak gidatuta. 17 lagunek parte hartu zuten Argatsoro parajearen egin zuten goizeko saio teorikoan. Txerto motak izan zi-

tuzten hizpide, eta udaberriaren eginiko txertoek izan duten bilakaera ere ikusi zuten. Arratsaldeko saio teorikoan, berriz, hamar lagun elkartu ziren eskolako gimnasioan, gaztainen gaitz eta plagen inguruko azalpenak aditzeko. Negu akabailan edo udaberri hasieran egingen dute hurrengo saioa.



# Nafarroa iparraldeko ekoizpen ekologikoa

CPAEN/NNPEK Nafarroako elikagai ekologikoak ziurtatzen dituen erakunde publikoak 25 urte bete ditu

## BERTAKOAK ETA EKOLOGIKOAK, PUNTA-PUNTA KOAK

Nafarroa osoan 2.500 elikagai ekologiko daude, eta 724 operadore ziurtatuta. Horien artean 25 operadore Baztangoak, Bertizaranakoak, Bortzirietakoak, Malerrekakoak, Leitzaldekoak, Urumealdekoak eta Xaretakoak dira: abeltzaintza, gazta eta esnekiak, ardo zuria, sagardoa, arrautzak, eztiak eta kiwiak.


Urtero CPAEN/NNPEK erakundearen ikuskaritzek ekoizpen ekologikook bisitatu dituzte, Europako araudia betetzen dutela bermatzeko. Erakunde honek, gainera, ekoizpen ekologikoari, ingurumen-jardunbide onenei, biodibertsitate-maila handiari, baliabide naturalen babesari eta animalien ongizateari buruzko arau zorrotzak ditu.

## EKOIZLE BILATZAILEA, KLIK BATEAN

Zure zonaldeko ekoizle eta enpresa guztiak kontsulta ditzakezu [www.cpaen.org](http://www.cpaen.org) webgunean. Bertan Nafarroako operadore guztiak daude, baita Nafarroa iparraldekoak ere, herrien, produktu-moten eta operadoreen arabera sailkatuta. Horrez gain, [www.navarraecologica.org](http://www.navarraecologica.org) webgunean Nafarroako sektore ekologikoaren albiste guztiak daude, baita agenda eta saltoki eta ostalaritza ekologikoen zerrenda ere. Profesionalentzat, Ekoaldek elikagai ekologikoak hornitzen dizkie txikizkariari, hala nola, dendak, kontsumo-taldeak eta Horeca kanala. Webgunea [www.ekoalde.org](http://www.ekoalde.org) da.

## ETIKETAK

Elikagai ekologikoen erreferentzia egiten diote ekoizpen ekologikoari, babestutako 'ekologiko', 'biologiko' edo 'eko' eta 'bio' terminoak erabiliz. Euro orriari esker identifikatzen dira, eta kontrola adierazten duen logotipoa eta zenbakizko kodea dituzte. Nafarroan, "ES-ECO-025-NA" da CPAEN/NNPEK identifikatzen duen zenbakia.



CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA  
NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

Irailaren 24tik 26ra... Zatoz Noingo Zentzumenen Parkean eginen dugun urteurren ospakizunera eta gozatu bertako produktuez!

[www.cpaen.org](http://www.cpaen.org)

[www.navarraecologica.org](http://www.navarraecologica.org)



ARGAZKIAK: GORKA BEUNZA





# «Inguru erdalduneko haurrei euskaraz aritzeko espazioa ematen diegu»

**MAITE ARRAZTOA LAZKANOTEGI** TOPAGUNEKO HEZITZAILEA

'Solasean' egitasmoa aurkeztu zuen Topaguneak joan den urtean Bortzirietan, euskararekin zailtasunak dituzten haurrei euskaraz bizitzeko baliabideak eskaintzen dizkien programa. Aurtengo ikasturtean ere Beran eta Lesakan izanen dira.

**R. OSKARIZ** | BORTZIRIAK

Topaguneko hezitzailea da Maite Arraztoa Lazkanotegi (Bera, 1997) joan den urteko urritik, eta saioak antolatzeaz, dinamizatzeaz eta materiala prestatzeaz arduratzen da *Solasean* egitasmoan. Pasa den urtean abiatu zuten lehenengo egitasmoa eta «emaitza polita» ikusita, aurrean ere errepikatuko dute.

**Zer da 'Solasean'?**

Euskararekin zailtasunak dituzten 8-12 urte bitarteko haurrei euskaraz bizitzeko baliabideak eskaintzeko egitasmoa da. Bortzirietan egingen dugu, Beran eta Lesakan, urrian hasita maiatzera arte.

**Zeintzuk dira egitasmoaren helburuak?**

Euskararekin zailtasunak dituzten haurrei laguntza gehigarri bat eman nahi diegu. Eskolaz kanpo euskaraz harremak izateko eta euskaraz aritzeko espazio bat sortzea dugu helburu.

**Helburu hauek betetzeko, nolako da proiektuaren dinamika?**

Astero bi orduko saio bat egingen dugu. Lehen orduan alderdi ludikoarekin eta aisiarekin loturiko ekintzak egingen ditugu. Bigarren orduan, berriz, ekintza formalagoak egingen ditugu, haurren ahozkotatuna, ulermena eta idazmena landuz, bertzeak bertze. Normalean baliabide eta dinamika ludikoak, jolasak, ipuinak, kantauak... izaten ditugu euskarri gisa.



'Solasean' egitasmoa saioak antolatu eta dinamizatzen ditu Maite Arraztoa.

**Zein da Bortzirietako haur etorkinen egoera?**

Normala den moduan, etorri berriek ez dute egokitze-prozesu erraza izaten. Aunitzek betiko lagunak, ohiturak eta familia giblean utzi dituzte eta, hortaz, aldaketa handiak bizi dituzte. Aldaketa horien guztien artean, euskarak bertze erronka bat suposatzen du. Izan ere, eskolan beharrezko harrera eta laguntzak jasotzen dituzten arren, eskolatik kanpo aunitzek ingurugiro erdalduna dute eta horrenbertez, ez dute etxean ez inguruan beraien prozesu akademikoarekin eta hizkuntzaren garapenarekin lagunduko dien inor.

**Nola laguntzen die egitasmoak sozialki?**

Egitasmoak sozialki harreman berriak sortzen eta, bereziki, ulertuak sentitzen diren gune bat aurkitzen laguntzen die. Egitasmoan hainbat adin, eskola eta egoeratako haurrak biltzen dira, eta horietako batzuk egoera beretsua bizi izan dute eta beraien esperientzia konpartitzen dute. Gainera, hainbat adin eta eskolatakoak direnez, bata bertzeari elkarren lagunak aurkezten dizkiete. Giro hagitza polita sortzen da. Bertzetik, egitasmoan betitik herrikoak diren haurrak ere baditugu, familian ingurugiro erdalduna dutelako edo euskararekin

zailtasunak dituztelako, eta hauek ere herria eta bertako haurrak ezagutarazten laguntzen diete. Orokorrean, aunitz laguntzen diete elkarri eta eskolatik kanpo edo jolas garaian maiz elkartzeko ohitura dute.

**Eta akademikoki?**

Arlo akademikoan, egitasmoak eskolatik kanpo bi ordu euskaraz aritzeko aukera ematen die. Era honetan euskara ez da soilik eskolako testuingurura mugatzen, aisialdian eta lagun artean euskara praktikatzeko segitzen dute.

**Herritarren artean integrazten laguntzen die?**

Lekuko hizkuntza jakiteak bizilekuaren edo kolektiboaren parte sentiarazten zaitu. Hortaz, tikitatik komeni da haurra bere testuinguruko hizkuntza ikastera animatzea. Gure zonaldean euskaraz jakiteak sozialki nahiz laboralki atek ireki ditzake, eta atzeritar helduak ere aukera hauetaz baliatzeko eskubidea dute.

**Nola eragin dio koronabirusak programari?**

Lehenengo urtea berezia izan zen. Ezjakintasun eta ziurgabetasun handia zegoen, baina orokorrean ongi moldatu ginen. Printzipioz koronabirusak ez duhaurren arteko harremanean eragin. Hala ere, egia da egitasmoz kanpoko haurrekin ezin izan ginela elkartu eta zenbait ekintza edo jarduera ezin izan genituela egin. Aurrean egoerak hobera egitea espero dugu.

**Eskualdean bertze programarik egin duzue?**

Udan Bortzirietako herri guztietan udalekuak antolatzen dira. Udalekuek egitasmoaren helburu bera dute, hau da, inguru erdalduna duten haurrei eskolatik kanpo euskaraz aritzeko espazio bat ematea eta euskara ludikotasunarekin lotzea.

**Zer asmo ditu Topaguneak etorkizunerako?**

Posible bada, programa indartzea eta euskaraz zailtasunak dituzten haurrei laguntza gehigarri hau ematen segitzea.





Irailaren 4an Lesakan egin zuen Sarek Nafarroa osoan barna ibiliko den martxaren aurkezpena. UTZITAKO ARGAZKIA

## Lesakatik abiatuko da presoan aldeko Nafarroako martxa

Irailaren 29an abiatu eta 72 ordu eta 350 kilometroren ondotik, Berriozarrera ailegatuko da urriaren 2an

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 29tik urriaren 2ra Nafarroa zeharkatuko duen martxa bat antolatuko du Sarek. Gauetz eta egunez ibiliko dira, Lesakatik Berriozarrera. Presoen etxeratzea eskatuko dute: «Denak, behingoz, etxerako bidean jarri behar ditugu» aipatu zuten irailaren 4an Lesakan egindako aurkezpenean.

«Sarri luzea da bidea, bazuetan malkartsua, bertzeetan bidegurutzetaz betea. Baina bidea da bide, norabait aile-

gatzeko bide. Norberak egiten duena edota taldean. Izan ere, bidea egin egiten da. Urratsez urrats, ibilian-ibilian». Eta bide hori egiteko prest dago Sare: irailaren 29tik urriaren 2ra Nafarroa zeharkatuko duen martxa bat egingen dute, Lesakatik Berriozarrera. Gauetz eta egunez ibiliko direla jakinarazi zuten Lesakan egindako agerraldian: guztira 74 errelebo egingen dituzte, 72 orduz atsedenek gabe ibiliz, 352 kilometro osatzeraino.

Sarek agerraldian nabarmenduzenez, pixkanakabada ere aldatzen ari da euskal presoan egoera, hiru hamarkadaren ondotik. Ohartarazi dute, halere, «persona aunitzen esfortzuarri esker» lortu dela hori: «Euskal Herriko hiritar, alderdi politiko, sindikatu, hainbat eta hainbat herri eragile, instituzio, eta, noski, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideei eta hainbat biktimen esfortzuarri esker».

Hala ere ez da lortu oraindik «presoan korapiloa erabat askatzea», Sareren erranetan. «Legea erabilizuten eskubideak ukatzeko, legearen interpretazio ankerrena egin zuten espetxe politika gizagabea abian jarri eta bideratzeko. Gibelean utzi nahi ditugu legea eskubideak urratzeko erabiltzen ziren garaiak. Gibelera utzi aitzinera egin nahi dugulako, aitzinera egin ahal izateko, baina noraino? Presoak

etxean izateraino. Eta horretarako, denak behingoz, etxerako bidean jarri behar ditugu».

Finean, urteetan indarrean egon den salbuespeneko espetxe politikarekin bukatzea doazela erraten ari dira. «Salbuespen-politika urratzaile horrekin amaitzeko bidean gaude, urteetan zehar betikotu dutena, eta espetxean egonaldi eternalak eta senide eta lagunentzako sufrimendu-urteak gogortu dituen amaitzeko bidean dugu, eta behin betiko amaitu behar dugu espetxean dugun herritar bakoitza etxerako bidean jartzeko» dio Sarek.

Nafarroako herritarrei deia egin diete irailaren akaberan hasiko den martxan parte hartzeko. «Presoak etxerako bidean jarri behar ditugu. Eta bide hori guztion artean egin behar dugu, ibilian-ibilian, egin dezagun elkarrekin, preso, iheslari eta deportatuen etxerako bidea!».

### Ibilbidea

Lesaka-Igantzi -Sunbilla-Donztebe-Urroz-Beintza-Labaien-Saldias-Ola-Orokieta-Jauntsaras-Latasa-Irurtzun-Satrustegi-Ihabar-Irañeta-Uharte Arakil-Lakuntza -Arbizu -Etxarri -Abartzuza -Lizarrar-Arellano-Lodosa-Carcar-Lerin-Larraga-Tafalla-Tiebas-Ezperun-Agoitz-Garralda-Zubiri-Larrasoña-Ilurdiotz-Atarrabia-Burlata-Txantrea-Alde Zaharra-Donibane-Arrotxapea-Berriozar.

**ANTZUZELAI**  
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK

**ORBELA**  
SENDERSMOA  
ATERPETXEA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

*Eramateko janaria  
astehenetik ortzirralera*

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK  
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

**DESINBERA**



## Ekitaldiz betetako asteburuak izan dira uda borobiltzeko

Guraso elkartearen eskutik egindako 'Ttibur' zezensuzkoa ere jendaurrean aurkeztu dute egunotan

### MAIDER PETRIRENA

Uda akitzeko asteburu mugituak izan ziren abuztuko azkena eta iraileko lehena.

Abuztuaren 27an herri kiroltan aritu ziren haur eta gazteak. Sokatiran gurasoen kontra ere tiratu zuten. Gero, Jalisko eta Jontxurekin musika eta zezensuzkoa izan zuten. Biharamun goizean, zapatil eta boneta tiraketa txapelketak egin zituzten. Bietan ere parte-hartze handia izan zen. Boneta tiraketan, gazteen artean, Lukas Ezkurra izan zen txapeldun, Aimar Agesta bigarren, Xabi Armendariz hirugarren eta Hegoa Irazoki laugarren. Helduetan, berriz, Raul Petri, Pablo Maritxalar eta Gorka Antuña nagusitu ziren. Zapatil tiraketan ere gazteen artean Lukas Ezkurra irabazi zuen, Marko Igoa, Xabi Armendariz eta Maialen Maritxalaren aitzinetik. Helduetan, berriz, Asier Zugarramurdi, Julen Lazkano eta Koldo Herrera izan ziren onenak. Arratsaldean, jende aunitz bildu zen plazan Eñaut Elorrietaren kontzertua aditzera. Bezperan bezala, zezensuzkoa arekin lasterka ibili ziren.

Abuztuaren 29an, igande eguerdian Txutxin Ibañezen mariatxiak aditzeko momentu paregabea izan zen. Aipatzekoa da, Txutxinek, bere lagun eta taldekide izan den Aitor Ibarra *Jaliskori*, beraiekin kanta pare bat jotzeko aukera eman ziola.

Irailaren 3an, Andus taldeak kontzertua eman zuen eta berriz ere zezensuzkoa ibili zen. Biharamun goizean, toka txapelketa jokatu zuten. Hiru

kategorietan banatu ziren: 0-3 kategorian Erik Napal izan zen partaide bakarra. 4-12 kategorian Ibai Maritxalar txapeldun, bigarren Eneko Ibarra, hirugarren Adei Uriz eta laugarren Xabi Armendariz. 13-100 kategorian berriz, Bixente Ibarra txapeldun, bigarren Aitor Ibarra *Jalisko* eta hirugarren Iker Urroz.

Arratsaldean, Xabat Illarregi, Nerea Elustondo eta Aitor Mendiluzeren eskutik bertso saio ederra aditzeko aukera izan zuten. Ondotik, bi bingo txanda izan ziren. Lehen txandan linea Pablo Maritxalarrek eta bingoa Joseba Gartzia egin zuten. Bigarren txandan berriz, linea Jaione Agirrek eta bingoa Garaine Iriartek egin zuten. Gero, herriko talogileek egindako talo goxoak dastatzeko aukera ezin hobea izan zuten. Bi asteburu eder hauei bukaera zezensuzkoarekin eman zieten.

### 'Ttibur' zezensuzkoa guraso elkartearen eskutik

Aipatzekoa da orain arte zezensuzkoa Orkoiendikekartzan zela. Oraingoan, berriz, eta ekitaldi hauek antolatuta zuedela aprobetxatuz, *Ttibur* zezensuzkoaren aurkezpen ofiziala egin zuten herri kirol saioan. Eskerrak eman guraso elkarteari egindako proiektua eder honengatik.

Bertzetik, eskerrak eman behar zaizkie bi asteburu eder hauek antolatzen aritutakoei, baita Doneztebe eta Arantzako udalei, Nafarroako Herri Kirol Federazioari, ostatuei, dendei, talogileei eta Elgorriagako bainuetxeari ere.



Hainbat irudi ikusgarri utzi dituzte bi aste honetarako. MAIDER PETRIRENA



## MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491




BORDALARREA

Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com




LIZUN  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



# «Herriak elkartuta segitzeko Burrenba ezinbertzekoa da»

MIKEL RETEGI URROZ DONEZTEBEKO GAZTEA

Irailean ospatu ohi dituzten besta ttikiei «keinuren bat» egiteko asmoa dute Gazte Burrenba elkarteak kideek. Hala ere, «posible dena eta ez dena» ongi aztertu nahi dute aitzinetik eta horren arabera antolatatu. Herritarrei «prest egoteko» deia luzatu diete

## TTIPI-TTAPA

Herria bizirik eusteko eta herritarrak elkartzeko lan egiten du Doneztebeko Gazte Burrenba. Horregatik eta horretarako jo zuen elkarteak atea orain bostz bat urte Mikel Retegi Urrozek (Doneztebe, 1997). Gaur egun, bertze hamar lagunekin batera, batzordeko kidea da Retegi eta «urte batzuek» behintzat halaxe segitzeko asmoa du.

«Lagun artean eta giro onean» egotea du gustuko Doneztebeko gazteak eta argi du zaleatasunei bide emateko, elkartzeko eta gozatzeko aukerak sortu behar direla. Horren gustuko dituen «futbola, mendia, surfa... edo bertzelako kirol ekintzek» eta ospakizunek irekitzen diote bidea. Eta nola ez, zerbait izateko aitzinetik dena behar bezala antolatu egin behar izaten da. Bide horri tiraka, sartu zen Gazte Burrenban: «herria bizirik mantentzeko pieza nagusia horixe dela pentsa-tzen dut eta herrian ekintzak antolatzen direnean batasuna sortzen da...».

## Zailtasunei ilusioa gainjarriz

Azken aldian, pandemiak eragindako egoera tarteko, Nafarroako Gobernuak ezarritako segurtasun neurriengatik, «herria elkartu eta ekintza bereziak antolatzea ezinezkoa» izan zaie. Eta, ondorioz, Burrenba antolatzen dituen «besta ttikiak, inauteriak eta



Orain bostz bat sartu zen Gazte Burrenban Mikel Retegi eta ez da damutu.

urtean zehar egiten diren bertzelako planak» alde batera utzi behar izan dituzte. Onartu duenez, «pena handia» izan da eurentzat «gazteak elkartzeko aukera hori ez izatea», baina, modu berean, «ulergarria» izan delakoan dago Retegi: «bizi dugun egoera larria delako».

Denbora tarte honetan guztian ilusioari eutsi diote eta ez dute ereindakoa eta egindakoa bazterrean utzi: «pandemia

**«URTEAN ZEHAR EGITEKO HAINBAT EKITALDI DITUGU BURUAN»**

egoeran edozer antolatzeko zailtasunak izan ditugu eta oraindik ere zailtasunak badaude baina hilabete behin egoera azter-tzeko eta erabakiak hartzeko bildu gara». Orain, gainera, argia ikusten hasiak dira: «egoera hobetu dela dirudenez bilera gehiago egiteko esperantza dugu».

**Besta ttikiei «keinu egiteko» lanean**

**«JENDEA BAZKIDE EGITERA ANIMATU NAHI DUGU»**

Bilerak eta ekitaldiak eskutik heldu dira. Izan ere, irailean egitekoak zituzten besta ttikiei begira «keinu ttikiren bat» egiteko lanean ari dira: «oraindik aunitz ezin dut erran, momentu honetan horretan ari garelako baina zerbait egiteko asmoa badugula aitzineratuko dut».

Lehendik ere ez da saiatu faltan izan. Udan burua martxan ibili zuten eta, nahiz eta ez duten aitzinera eramaterik izan, esku artean hitzordu polita izan zuten: «uztailean mendi irteera bat egin nahi genuen baina agerraldi bat tarteko bertan behera utzi behar izan genuen».

Zuhurtziaz jokatu dute, eta hori argi diote: «zer egin daitekeen eta zer ez bereizten ari gara baina aitzinera eraman daitezkeen ekintzak izanen dira, horiek lantzen ari gara buru-belarri». Hortik harago ere jo nahi izan dute, «urtean zehar egiteko ideia gehiago ere» badituztela jakinaraziz. Momentuz, herritarrei «prest egoteko» eskatu diete: «Gazte Burrenba indartsu heldu da eta».

## Herritarren beharra

Elkarteak herria eta herriak herritarrak behar dituztela argi dute Burrenban daudenean. Eta gaur egun «122 bazkidek» osatzen dutenari etorkizuneari «aunitz gehiago» gehitzea nahi dute, lanak eta parte hartzeak norabide berean jo behar dutelako. Hortaz, «jendea bazkide egitera animatzearekin» batera, zenbat eta gehiago izan hobe dela ikusarazi nahi izan du Retegik: «azken batean Gazte Burrenbako bazkideek urtean 20 euroko kuota bat ordaintzen dute baina horrekin herritar guztientzat ekintzak antolatzen dira».

Bide batez, elkartearen presutasuna nabarmendu nahi izan du, beti hor daudela eta egonen direla oroitaraziz: «herria edozer antolatzen denean Gazte Burrenba esku bat botatzeko prest izaten da beti».



Ikasturte honetatik aitzinera aterpea izanen dute ikasleek.

## Mugikortasuna hobetzeko lanak egin dituzte

Horrez gain, ikastetxean estalpea egin dute eta 300.000 euroko dirulaguntza jaso dute horretarako

### MARGA ERDOZAIN

Udala, azken hilabeteetan, herriko mugikortasuna hobetzeko asmoz herrian hainbat lan egiten ari da.

### Amezti zeharbidean eta

#### Rosa Seminarion hainbat lan

Bertzeak bertze, Amezti zeharbidearen bigarren fasea egin du eta karrika horretako espaloiak handitu eta aparkalekuak txukundu ditu. Horrez gain, Rosa Seminario karrikan aparkaleku gehiago sortzeko lanak ere egin ditu. Lan horiek Doneztebeko Udalak aurtengo onartutako 2.078.155 eu-

roko udal aurrekontuaren barne egin dituzte.

### Ikastetxean estalpea egin dute

Horrekin batera, aipatzekoa da udan ikastetxeko estalpea ere eraiki dela. Azpiegitura hori egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza berezia jaso zuen (zehazki 300.000 euroko dirulaguntza jaso zuen udalak).

Modu horretan, San Migel eta Mendaur ikastetxeetako ikasleek ikasturte honetan eurria ari dutenean lasai egoteko aukera izanen dute.

### Eskoletako jangela Auzo Lagunek kudeatuko du

Udan honetan izan den esleipenaren ondotik, San Miguel eta Mendaur Institutuko jangela zerbitzua berriz ere Auzo Lagun enpresak eskuratu du. Ondorioz, zerbitzuak enpresa beraren eskutik izanen du segimendua bertze lau urtez.

### Bertso eskoletan izena emateko epea irekita dago

Nafarroako bertze tokietan bezala, bertsogintzan tratatzeko, euskararekin jolasteko, sormena garatzeko, ideiaz pizteko eta ahozotasuna lantzeko eta ongi pasatzeko aukera izanen da. Argibideak jasotzeko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) helbidera jo behar da.

### Kontsumitzaileendako zerbitzua irailaren 24an emanen dute

Mankomunitateko kontsumitzaileendako bulegoaren zerbitzua irailaren 24an gurean izanen da. Doako zerbitzu hau erabili nahi dutenek aitzinetik hitzordua eskatzeko 948 45 17 46 telefonora deitu behar dute. Irache Kontsumitzaileen zerbitzuak argibideak, laguntza juridikoa eta konponbideak ematen laguntzen du. Aipatu behar da etxe guztietara Irachetik Nafarroako Psikologiaren Elkargo Ofizialak lagundutako diptiko bat igorri dutela, non aholku batzuk ematen dituzten gure osasun mentala eta emozionala nola zaindu behar dugun koronabirusaren garaian: gomendio orokorrak, heldu, gazte edo familiaredako aholkuak eta laguntza profesionala noiz bilatu behar den...

### Euskaltegietan ikasturterako matrikula zabalik da

Malerrekako Ika Euskaltegian izena emateko epea zabalik egonen da irailaren 30era, hondarreko ortzegunera, arte. Joan den urteetan bezala, maila guztiak, baita EGA edo C1 prestatzeko ikastaroak ere eskainiko ditu aurrez aurrez edo online.

Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitu edo [malerrekaika@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerrekaika@ikaeuskaltegiak.eus) helbidera idazten ahal dute. Ikastaro hauek Malerrekeko Mankomunitateak diruz lagunduak izanen dira. Dirulaguntza ikastaroan izandako asistentziaren arabera izanen da eta horri buruzko xehetasunak 32. orrialdean daude. Malerrekeko Mankomunitatearen webgunean edo telefonoz deituz informazio gehiago eskuratu ahal izanen da.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
*Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu*



**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS



[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net) ☎ 943 616 587  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



# Pulunpa eskolan martxan dira dagoeneko

Eskolaz kanpoko jardueretan izena emateko epea zabalik dago

## TTIPI-TTAPA

Irailaren 1ean hasi ziren buru-belarri prestatzen herriko eskolako irakasleak. Ikasleek, aldiz, bertze eskola aunitzetan bezala, ikasturtea irailaren 8an hasi zuten. 2021-2022ko ikasturtea aitzinekoa bezala hasi dute, protokolo berarekin, distantziak, musukoa, burbuiak... ongi zainduz. Ikasturte honetan bederatzi ikasle ari dira eskolako egokitzapena egiten eta lagun berriak egiteaz gain, ikasten.

English week ingeleseko murgiltze ikastaroan buru-belarri hasi dira 5. mailako ikasleak, Cenaik bidalitako irakasle batek eta Mixel ingeleseko maisuak lagunduta. Aste guztian klaseak ez ezik, irteerak, kirola, jolasak... izaten ari dira. Ingelesa lantzea eta ongi pasatzea du helburu ikastaroak.

## Eskolaz kanpoko jarduerak

Aurten ere Nafarroako Bertsozale Elkarteak hainbat herritan haur zein helduentzako bertso eskolak antolatu ditu. Aitzineko bi urteetan Iker Gorosterrazurekin aritu dira herriko gazteak eta hala nahi dutenek irailaren 24ra arteko epea dute izena emateko. Kamiseta bat ere jasoko dute opari.

Horrez gain, Mendaur trikitixa eta pandero eskolak urrian hasiko ditu eskolak. Iazko ikasturtea berezia izanagatik ikasleak gustura aski aritu ziren kantuak ikasi, kantatu eta kontzertuetan aurkezten. Aurten ere halaxe izatea espero dute. Matrikulazioa zabalik da eta horretarako Ainara edo Arkaitz Mingegiarekin harremanetan jartzea aski izanen da.

## Joaldunen Egunik ez da ospatuko aurten

Aurtengoan ere ez da ospatuko Joaldunen Eguna. Bertze urte batez herrian hain errotua dagoen besta handia 2022an egiteko esperantzarekin bertan behera utzi dute. Ongi gorde indarrak, ospakizunak baimentzen direnean gogotsu har ditzagun!

## Ehiztariak bikain hasi dute denboraldia

Uso ehizarako oraindik egun batzuk falta dira, baina ehiztariak bilerak eginak dituzte eta laister hasiko dira postuak moldatzen.... Hala ere, ehiztariak ez daude geldirik, basurde ehizan hasiak dira... Eta, nola gainera! Hamar basurde bota dituzte dagoeneko.



UTZITAKOIA

## Elizalde eta Leiza irabazle

Ola sagardotegiak antolatutako txapelketan izan dira Enaitz Elizalde eta Iñaki Leiza. Erreka klubeko bikotea Txarutako Aiert Urrutia eta Gaizka Azkarragaren kontra aritu zen hilaren 29ko final handian eta irabazle izan ziren. Mattin Leizak eta Mikel Ezkurak ere gailentzea lortu zuten.

# WIKAI

HEMENGOAK GARA,  
ZUREKIN GAUDE.

ABIADURA BIZIAN NABIGATU  
GURE INTERNET ZERBITZUAREKIN

ESKATU INFORMAZIO GEHIO:

948 030 500

%50

DESKONTUA ALTA  
BERRIENTZAKO.  
DEITU ORAIN!

DAITA ZURE  
BASERRIAN ERE!

Nafarroan komunikazio sarerik handiena eraikitzen ari gara, konexiorik onena zure etxeraino edo enpresaraino eramateko. Iruñean gaude, eta loguntza tekniko eskaintzen dugu urteko egun guztietan goizeko 8.00etatik goieko 10.00ak arte.

[info@wikai.es](mailto:info@wikai.es) | 
 [948 030 500](tel:948030500) | 
 [www.wikai.es](http://www.wikai.es)

## Inauteriei buruzko informazio panelak paratuko dituzte

Irudi eta testuak ez ezik, herritarren testigantzak ere bildu dituzte QR kodearen bidez

### F. ETXEKOLONEA

Udalak inauteriei buruzko lau informazio panel egin ditu eta herrian zintzilikatuko ditu. Horrela, irudi eta testuen bidez, inauterien historia eta informazioa bildu nahi izan du eta, besteak beste, inauteriak noiz ospatzen diren, egunez egun zer egiten den, inauterietako pertsonaia nagusiak zein diren, pertsonai horiek zer janzkera izaten duten... azaldu du.

### Inauteriei buruzko informazioa eta bitxikeriak

Paneletan herritarren testigantzak ere gehitu dituzte. Zehazki, Eusko Kultur Fundazioari esker, Maite Lakarrek 2011n Ignacio eta Alejandro Santesteban Santesteban anaiei egindako elkarrizketak erabili dituzte. Hala, herrira

bertaratzen direnek antzinako inauteriei, gerra ondokoei, inauteriek izandako aldaketari, joareei, 1950ean izan zen pauso aldaketari, piper-opilei, jantziei, karrozei, datei... buruz gehiago jakiteko aukera izanen dute. QR kodeak erabiliz, gai bakoitzari buruzko informazio nagusia Youtuben ireki duten kanaleko bideoekin lotu dute.

### Herritarren eta Joaldunen Elkarteen laguntza

Gainera, informazioa Luis Mari Etxarte eta Izaskun Zubialde Grajirena herritarrek utzitako argazki zahar eta berriekin hornitu dute eta panelen diseinua Pello Iriartek egin du. Horrez gain, udalak Joaldunen Elkarteen laguntza ere izan du proiektu hau aurrera eramateko.



I. ZUBIALDE

## Bertso saio bikaina

Abuztuaren 29an, hondarreko igandean, Julio Sotok, Iker Zubeldiak eta Maialen Lujanbiok girotutako bertso saio ederraz gozatu zuten herritarrek. Ander Fuentes *Iturririk* paratutako gaiei txukun aski erantzun zieten hirurek. Entzuleen txaloak izan ziren gozamenaren lekuko.

## Oberena dantza taldearen saioa igande eguerdian plazan

### F. ETXEKOLONEA

Udalak antolatuta, Oberena dantza taldearen emanaldia izanen da irailaren 19an, igandean, herriko plazan. 12:00etan dute hitzordua eta emanaldiaz gozatzeko indarrean dauden segurtasun neurriak betetzeko eskatu dute.



Plazan izanen da emanaldia.



UTZITAKOA

## Ogia egiteko tailerra

Edorta Salvador okinaren eskutik, orantzez egindako ogia egiten ikasteko aukera izan zuten irailaren 4ko tailerlean. Udalak antolaturiko ikastaroan guztira 13 herritar bildu ziren eta arretaz aditu zituzten Salvadorren azalpenak. Bide batez, bakoitzak bere ogia ere egin ahal izan zuen.

## Landarte programa lantzen ari dira

Udala, hainbat herritarrekin elkarlanean, arte-kultura garaikidea herri txikietara hurbiltzeko proiektu bat garatzen ari da. Aurrerago emanen dute egindakoaren berri.

## Bi ikasle eskolaratuko dira

Inhar Baleztena eta Aiara Loiar-te aurtan hiru urteko gelan hasi dira. Ilusio handiz prestatu dituzte motxilak eta batakiak eta lagun gehiago egiten hasiak dira dagoeneko.

## Aizkolari eta harri-jasotzaileak irailaren 26an

Iraileko hondarreko igandean herri-kirol erakustaldia izanen dute. Herriko plazan izanen den emanaldia 12:00etan hasiko da. Antolatzaleek, lerro hauek idazterako orduan, kirolariak zehaztekoak zitzutela adierazi zuten.





# Bertso eskoletan izena emateko epea zabalik da

Nafarroako Bertsozale Elkarteak eskaintzen dituen 37 taldeetatik 21 eskualdean izanen dira. Irailaren 24ra arte eman daiteke izena eta urriaren 4an hasiko dira lanean

## TTIPI-TTAPA

Irailaren 24ra arte izanen da aukera 2021-2022 ikasturteko bertso eskoletan izena emateko. Haur zein helduentzako 37 talde eskainiko ditu Nafarroako Bertsozale Elkarteak, horietatik 21 gure eskualdean. Urriaren 4an hasiko dira klaseak.

## Eskualdeko taldeak

**Leitza** (LH6-DBH4). Ostiralak, 15:30-16:30, Erleta ikastetxean. Irakaslea: Xabat Illarregi.

**Ituren** (LH4-DBH2). Ortzegunak, 17:00-18:00, eskola zaharrean. Irakaslea: Iker Gorosterrazu

**Doneztebe** (Malerrekako helduak). Ortziraleak, 18:00-20:00, Herrigunean. Irakaslea: Iker Gorosterrazu

**Doneztebe** (11-13 urte). Asstelehenak, 15:00-15:55, Herrigunean. Irakaslea: Estitxu Arozena

**Donamaria** (12-15 urte). Asstelehenak, 16:05-17:00. Irakaslea: Estitxu Arozena.

**Lesaka** (Helduak). Ortziraleak, 17:30-19:30, Arranon.

**Lesaka** (Helduak, bertsogintzaren hastapenak). Ortzegunak, 19:00-21:00, Arranon.

**Lesaka** (18-20 urte). Igandeak, 12:00-13:30\*, Arranon.

**Lesaka** (1517 urte). Ortziraleak, 16:00-18:00, Arranon.

**Lesaka** (12-15 urte). Asteazkenak, 16:00-17:00, Iturrinxulon.

**Lesaka** LH5-6 (10-12 urte). Asteazkenak, 15:00-16:00\*, Iturrinxulon.

**Lesaka** LH3-4 (8-9 urte). Ortziraleak, 15:00-16:00, Iturrinxulon.

**Bera** (14-16 urte). Astearteak, 16:30-18:00, Beralandetan.

**Bera** (12-14 urte). Astearteak, 15:30-16:30, Beralandetan.

**Bera** (8-11 urte). Astearteak, 14:50-15:30, Beralandetan.

**Etxalar** (10-16 urte). Astearteak, 18:30-19:30, Iharrian.

**Arantzaz** (12-17 urte). Asteazkenak, 18:00-19:00, Baskulan.

**Igantzi** (8-12 urte). Ortzegunak, 15:00-16:00. Eskolan. Bortzirietako talde guztietan

Estitxu Arozena izanen da irakasle.

**Irurita** (8-13 urte). Ortziraleak, 16:30-17:30. Erdiz gelan. Irakaslea: Estitxu Arozena.

**Elizondo** (Helduak, bertsogintzaren hastapenak). Ortziraleak, 19:00-21:00. Arizkunenean. Irakaslea: Xabier Silveira.

**Elizondo** (Helduak, bat-batean). Ordutegia eta lekua zehazteke\* Irakaslea: Xabier Silveira.

## DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA



Erakutsi eta  
aprobetxatu  
aukerak!

 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA eskoletan eta oroigarrietan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Koskontako bidea, 7-1   LESAKA T. 948 63 54 58   bagoaz@ttipi.eus</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA produktuetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Intzarkardi, z/g   DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Zazpigurutze, 1   DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Nagusia, 4   DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Kale Nagusia, 1   DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA kontsultetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">T. 948 45 14 73   DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA kosmetikan 50€tik goiti</p> <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Amezitia   DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 2. produktua erostean</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Eliza, 18 behea   DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 60€tik goitiko elektrogailu txiketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Amezitia, 1   DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA bortz saiko bonoan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Elizagibela, 4 behea   DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Parrokia, 11   DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta elikagai komplementuetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">T. 948 45 14 73   DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA estetika naturala, mesoterapia birtuala eta diamantezko pilinga</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Santa Luzia plaza, 2   DONEZTEBE T. 667 30 88 26</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%5</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA zakur eta kaluen pentsuan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Mourges, 20 Nabe 1   DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>
 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%100eko</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA Bela-gelaren erabilieran *Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitartekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute.</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Amezitia, 13   DONEZTEBE T. 948 63 74 04   T. 948 19 70 70</p>	 <p style="text-align: center; font-size: 1.5em; font-weight: bold;">%10</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.8em;">DESKONTUA oinetakoetan</p> <p style="text-align: center; font-size: 0.7em;">Parrokia, 17   DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>

## Euskara ikasteko dirulaguntzak eskatu ahal izanen dira

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan edo 948 45 17 46 telefonora deituz lor daiteke informazio osoa

### TTIPI-TTAPA

2020/2021 ikasturtean euskara ikasten aritu ziren ikasleendako dirulaguntza deialdia irekita dago. Ikastaroan izandako parte-hartzearen arabera izanen da laguntza, % 85etik goitiko asistentzia izan dutenek doan izanen dute; % 70-% 85 bitartekoa izan dutenek, berriz, matrikularen % 75 jasoko dute.

Dirulaguntza eskaera egiteko eta dokumentazioa aurkezteko urriaren 1era arteko epea dute eta mankomunitatean egin dezakete. Eskae-

ra orria ez ezik, nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiko izen-emate eta matrikularen ordainagiria, asistentziari buruzko datuak biltzen dituen agiria eta administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztien aitortpena aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi dutenek [www.malerreka.eus](http://www.malerreka.eus) helbidean, 948 45 17 46 telefonoan edo [euskarazerbitzua@malerreka.eus](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.eus) emaillean eska dezakete.



Beintza-Labaienen 'Porrutata, ez porru ez patata' ikusi zuten.

## 'Oinak hodeietan' kultur programak ia 1.500 bildu ditu uda honetan

### TTIPI-TTAPA

*Oinak hodeietan* programaren bigarren edizioan 1.480 lagunek parte hartu dute eta Nafarroako ikuskizun eszenikoez gozatu ahal izan dute abuztuko asteburuetan, Nafarroako hamabi kokagune berezitan. Eskualdean, Beintza-Labaienera bakarrik aile-

gatu da programa, Demode produkzioak taldearen *Porrutata, ez porru ez patata* antzezlanarekin zuten.

Baluarteko Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Arte Eszenikoen elkartekin eta jarduerak egin diren tokiko erakundeekin elkarlanean bultzatutako programa da.



UTZITAKOIA

## Leurtzan ibilaldiak egin dituzte

Cederna Garalurrek kontratatuta, bi langile bisita gidatuak egiten aritu dira abuztuan Leurtzan. Uztailean formakuntza jaso ondoren, Beintza-Labaiengo bi mutil, Javier izenekoak, aritu dira zeregin horretan. Irailean Urrozko eta Beintza-Labaiengo herritarrekin egin zuten bisita.

## Lesagibel eskultorearen erakusketa iraileko asteburuetan Donamarian

### TTIPI-TTAPA

Lesagibel eskultorearen N-estetika izeneko erakusketa ikusgai egonen da iraileko asteburuetan herriko jauregian. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bisitatu ahal izanen da eta musukoa derrigorrezkoa izanen da.



Lesagibel.



UTZITAKOIA

## Ur depositu bat paratu dute Donamarian

Herritarren erabilerarako, ur-depositu bat paratu du Donamariako Udalak herriko hilerriaren kanpoko aldean. Depositua horri esker, behar dutenek loreak ureztatzeko ura ondo-ondoan izanen dute aurrerantzean eta ez dute garrariatzen ibili beharko.



## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



**«Uztailetik gaur egunera egoerak hobera egin du»**

**KOLDO URKIZA EXPOSITO**  
ZORTZIKO LABETXEA - LEITZA

Astizko aterpean 21 urtez egon ziren Koldo Urkiza eta Nerea Albes umeeekin lanean. 2020ko uztailean utzi zuten, Leitzako Zortziko Labetxea hartzeko. Garai gogorra izan zen ostalaritzarako, «baina hobera bakarrik egin genezakeen». Pastelak, tartak, ogia... kafetegi eta taberna zerbitzua daukate. «Produktu batzuk guk egiten ditugu, adibidez, *borrachitos* izeneko croissant txikiak. Txokolataarekin apainduak eta jelean bustiak laboratzen ditugu, ostiral, larunbat eta igandetan. Egunero ez dagoen zerbait denez, asteburuetan gustura jaten dituzte». Negozioa uztailean hasita, egoerak hobera egin duela dio; «hasi ginenean barrukoa itxita zegoen, gipuzkoarrak ezin ziren pasatu, terrazarekin bakarrik ginen... egoera ezin zen txarragoa izan, horregatik hobera egin dugu. Oso pozik gaude orain».



**«Adin guztietako jendearentzako ariketak ditugu»**

**IRATZ UDAETA ZUBIETA**  
URDIBERA KIROL ZERBITZUAK - BERA

Bizimodu osasuntsu bat izan nahi dutenentzat aukera zabalak eskaintzen dute Toki Ona kiroldegian: «Udako jarduerak gehiago igerilekuari begira antolatzen ditugu, baina negukoak, orain hasiko dena, beti zabalagoa da, normalean hemengo jendeak instalazio itxietan nahi izaten baitu kirola egin. Udan kanpora gehiago ateratzen dira, mendira joateko eta bizikletan ibiltzeko ohitura handia baitago». Hainbat ekintza mota dituzte, «eta urtero ia gehienak ateratzen dira: zumba, *strong*, ciclo, pilates, *cross training*, G.A.P... umeentzako eskola kirola eta psikomotrizitatea ditugu». Gainera, aurten bi jarduera berri aterako dituzte; *stretchinga* eta *crosskida*. Honez gain, *fitness* salan bakoitza bere kabuz joateko edo monitore batekin entrenamendu pertsonalizatuak egiteko aukera ematen dute.



**«Miguelenako hirugarren belaunaldia gara»**

**ROBER MIGUELENA BALDA**  
MIGUELENA - DONEZTEBE

Negozio familiarra da Doneztebeko Miguélena eta hirugarren belaunaldia da Rober Miguélenarena. «Gure atautxi hasi zen dendarerkin, 40ko hamarkadan erloju-denda bat ireki zuen Titi ostatuaren parean. Gero *attak*, amak eta osabak hartu zuten negozioa eta bertze lokal batean, sukaldeak eta etxe-tresnak saltzen eta muntatzen hasi ziren. Orain anaia eta biok gaude, eta lokala berriro eta dena batera paratu dugu». Sukaldeko etxe-tresnak saltzen eta muntatzen dituzte batez ere, baita komuneko etxe-tresnak, pareta- armairuak «eta erlojuak ere, baina ez hainbertze». Muntaketaz gain, konponketak ere egiten dituzte etxez etxe. Azken urtean lan handia izan dute; «jendea ez zen etxetik ateratzen, baina gu berdin-berdin joaten ginen haien etxeetara».



**«Leku gehiago badugu Iruritan eta abantaila handia da denendako»**

**IÑAKI URRUTIA JUANIKOTENA**  
GUREAUTO TAILERRA - IRURITA

8-10 urtez Datucelayko langile izan ziren Iñaki Urrutia eta Mikel Iparragirre Elizondon. 2016an hartu zuen erretiroa nagusiak eta biok hartu zuten tailerra. Urtea pasata, Iruritar mugitu zuten; «industria-nabe berria zen eta makineria berria sartu genuen. Beldurra genuen hasieran Elizondon jendearengandik hurbilago ginelako, baina aparkatzeko leku gehiago dago eta abantaila handia da hori. Elizondon etxebizitzaren artean ginen eta ez zegoen leku aunitzik. Alde horretatik hobeki gaude eta jendeak estimatzen du. Guk ere erosoago egiten dugu lan eta ez dugu inor molestutzen». Autoak, furgonetak eta 3.500 kilo baino guttiagoko kamioiak konpontzen dituzte Gureauton; mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen azterketak, olio eta gurrpil aldaketak...



## Talo Eguna ospatuko dute igande honetan

Artisau azokaz gain, umeentzako talo tailerra eta helduentzako talo lehiaketa egingen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Taloaren bueltan egun osoko ospakizuna izanen da igande honetan, irailaren 19an, plaza inguruan; beste urte batez, Talo Eguna antolatu baitute. 10:00etatik aurrera 20 bat artisaurekin azoka zabalduko dute, herrikoak eta kanpokoak izanen dira eta denetarik izanen da ikusgai eta erosgai: bitxiak, egurrekin egindako eskulanak, jatekoa, jantziak... Artisau azokaz gain, Saralegi taloen eskutik taloak dastatzeko aukera izanen da.

11:30ean, berriz, umeentzat talo tailerra egingen dute eta 12:00-12:30 aldera talo lehiaketa hasiko da. Helduei bideratutakoa izanen da eta nahi duenak parte hartzeko aukera izanen du. Interesatuz gero, goizean bertan ematen ahalko du izena. Parte hartzen



Igandean taloak aukeran izanen dira.

dutenen artean, onenak aukeratuko ditu epaimahaiak eta sari banaketa 13:30 aldera egingen dute.

Goizeko hitzorduak 14:00 arte iraunen du eta 16:30ean izanen du segida. 20:00 arte berriz ere taloak jateko eta artisauen lanak ikusteko eta erosteko aukera izanen da plazan.

Eguna bukatu aurretik, 17:30 aldera DJ Porrurik ikuskizuna emanen du.

## Erleta eskolako komunak goitik behera berritu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Erleta eskolako beheko solairuko bi hegaletako komunak guztiz berritu ditu udalak, eta horrekin batera, komun bat behar bereziak dituztenentzako egokitu du. Hala, «ikastetxean inklusiorako bidean beste pauso bat» eman dutela adierazi du

udalak. Lanak 77.498,81 euro kosta dira (BEZA barne) eta Nafarroako Gobernuak % 40 ordainduko du: 30.571 euro. Gainerakoa, 46.927,81 euro, udalaren gain geldituko da. Obraren egin duten enpresa ia gehienak bertakoak izan direla nabarmendu du alkateak.



Goian, ezkerrean, komun bat lehen eta beste bietan berritu ondoren. UDALA



AURRERA DANTZA TALDEA

## Dantzarien saio ederraz gozatu dute herritarrek

Beste behin, txistularien doinuek lagunduta, ikuskizun gustagarria eman zuten Aurrerako dantzariak joan den irailaren 4an. Eguraldi lagun, jendetza bildu zen plazan saioa ikustera eta dantzariak ikusleen txalo zaparrada jaso zuten. Argazkian ageri dira eguneko protagonistak... Segi horrela, hankak eta eskuak arin-arin dituzuela!





Erraldoiak eta buruhandiak artxiboko irudi batean.

## Erraldoi berriak urriaren 2an aurkeztuko dituzte

Egun horretan konpartsa eta bi erraldoi berriak aurkeztuko dituzte eta ekitaldian «sorpresak» izanen direla aurreratu dute

### TTIPI-TTAPA

Lizarrak, Garazik, Piratak, Amonazaharrak, Kantiflasek, Ipotxak, Barriolak, Fridak eta Gafotasek lagun berriak edukiko dituzte laster, udalak erositako azken bi erraldoiak urriaren 2an aterako baitituzte jendaurrera.

Eguna ailegatzeko «gogotsu» daudela adierazi dio Jon Arangoa konpartsa kideak TTIPI-TTAPARI. «Pandemiaren aurretik hasi ginen erraldoi eta buruhandien konpartsa egituratu eta dinamizatu nahian. Konpartsa kide izateko gonbidapena ere zabaldu genien herritarrei, emakumeei zein gizonetzkoie».

Gaineratu duenez, pandemia tarteko, «nahi baino gehiago luzatu» zaie kontua, baina azkenean, prest dira konpartsa eta erraldoi berriak plaza-ateratzeko. Urriaren 2an egingen dute agerraldia, 18:00etan plazan. Ekitaldian «irudiek eta pertsonen garrantzi berezia» hartuko dutela aurreratu du eta gehiago ere bai; «sorpresak» izanen direla adierazi du. Hortik aurrera, «herrian gure ekarpenak egi-

teko prest egonen gara, irekiak gaude».

### 25 laguneko konpartsa

Arangoak azaldu duenez, «gazteak kontatuta» 25 bat lagunek osatzen dute gaur egun konpartsa eta «lau erraldoi handi, bi ertain, bi tiki eta zazpi buruhandi ditugu».

### Aurreraren eta udalaren babes

Bestalde, konpartsa Aurrera Kirol Elkartearen txertatu dute eta hala, hemendik aurrera elkarteko beste batzorde bat izanen da. Horrekin batera, «lana ahalik eta txukunen egiteko eta nolabaiteko ofizialtasuna emateko» arautegia zehaztu dutela eta aseguruia kontratatu dutela argitu du. Eta bide horretan, hori horrela izateko, «udalak eta Aurrera Kirol Elkarteak emandako babes» nabarmendu nahi izan du. «Urte askotan, modu prekarioan eta oraingo baliabiderik gabe erraldoiekin eta buruhandiekin lan egin duten herritarren lana» ere gogoan izan du Arangoak eta «haiei eskerrak» eman nahi izan dizkie.

## Sarek ibilaldian parte hartzeko deia luzatu du


### JM BARRIOLA

*Ibilian ibilian etxerako bidean* lelopean, Sarek antolatu duen martxan parte hartzeko deia luzatu die Leitzako Sarek herritarrei. Irailaren 29tik urriaren 2ra, Lesakatik hasi eta Berriozarrera joanen da ibilbidea, guztira 74 txanda osatuz. Leitzarrei 25-30 kilometro tartea egokitu zaie, Saldias inguruan eta irailaren 29an egin behar dute, 23:00 aldera. Gisa honetara, beste behin euskal presoaren egoera salatu eta etxeratze eskatuz osatuko dute ekitaldia.

## Kiroldegiko ordutegia aldatu dute

### TTIPI-TTAPA

Irailarekin batera, Anikote kiroldegia ordu egokitu dute. Asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era irekitzen dute; larunbatetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara; eta igande eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara. Bestalde, haur, gazte eta helduentzako ikasturte honetako kirol eskaintza ere prest dute. Irailaren 15ean, asteazken honetan, bukatzekoa zen izena emateko epea.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIAK: UDALA, JM BARRIOLA ETA UTZITAKOIA

## Ekitaldiz betetako asteburuak

Azken asteburuak ekitaldiz beteak izan dira. Abuztuko azken larunbatean Tio Teronen Semeak saioa izan zen eta iraileko lehen asteburuan Aurrerako dantzarien saioa, Kaxkabeltza elkartearen azoka, Incansables txarangaren 50. urteurreneko emanaldia, gaztetxoentzat zinema... izan ziren.



Medikuaren kontsultategia Errekaundin izanen da bi hilabetez. ALAITZ ESKUDERO

## Mediku kontsultategia berritzen hasi dira

Astelehenaz geroztik Gizarte Zerbitzuen lokalean dago medikuaren kontsultategia

### TTIPI-TTAPA

Aste honetan hasi dituzte mediku kontsultategia berritzeko lanak, eta dena bide onetik badoa azaro bukaerarako amaituko dituztela aurreikusi du udalak. Hala jakinarazi dio Unai Miranda alkateak TTIPI-TTAPARI. Tarte horretan hainbat lan eginen dituzte, kontsultategia berritzearekin batera, larrialdiak artatzeko gune berri bat egokituko dute eta komunak irisgarri bihurtuko dituzte. Lanak, guztira, 50.000 bat euro kostako dira eta Osasunbideak osotasunean ordainduko ditu.

### Gizarte zerbitzua udaletxera

Berritze lanek irauten duten bitartean, udalaren arabera, «bi hilabetez», medikuak eta erizainak Errekaundi pasealekuan pasatuko diete herritarrei kontsulta, orain arte gizarte zerbitzuen egoitza izan den tokian, hain zuzen.

Aldaketa horiek direla eta, gizarte zerbitzua udaletxera eraman dute eta hango bigarren solairuan ematen dute zerbitzua. Hala ere, aurretik hitzordua hartu beharko da Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera, 948 51 08 40 zenbakira, deituta.

## 51 neska-mutiko aste honetan hasi dira pilota eskolan

### TTIPI-TTAPA

Indartsu hasi du ikasturtea Umore Ona pilota eskolak, eta horren seinale da pilotari kopuruaren gorakada: herriko eta Aranoko 51 neska-mutilek eman dute izena: 31k eskupilotan (zortzi neska eta 23 mutil) eta 20k palan (sei neska

eta 14 mutil). Igor Elizegi pilota eskolako arduradunaren arabera, «lehengo urtean baino bost pilotari gehiago ditugu. Lau baja izan ditugun arren, beste bederatzi sartu dira». Atzean gelditu da, beraz, urte batzuek behera egin zuen eskola. «Bost urte atzera egiten

## Uraren hornidura eta saneamendu tasa bi txandatan kobratuko du udalak

### TTIPI-TTAPA

Orain arte irail-urri aldera ordaindu izan dute herritarrek uraren hornidura eta saneamendu-tasa, baina aurten bi txandatan ordaintzearen aldeko apustua egin du udalak, «bi kontzeptu desberdin» direlako. Bi kontzeptu hauek errazago desberdintzeko eta aurrera begira uraren horniduran izan den aldaketak aurreikusiz, udalak erabaki du aurten etxeko eta saneamenduko tasa bi txandatan kobratzea.

Uraren hornidura udalaren eskumena da, eta aurten da-

goeneko kobratu dute, uztailean. Etxeko tasa bost euro igo dutela gogorarazi dute, ondorioz, urtean 55 euro kobratuko dituzte.

Uraren saneamendua, bestalde, NILSA enpresa publikoak kudeatzen du, nahiz eta udalak bitartekari lanak egin herritarrei kobratzeko. Orain arte bezala, irail-urri aldera kobratuko dute, 110 euro inguru.

Beraz, herritarrek orain arteko kopuru berdintsua ordainduko dute osotara, baina tasa batean kobratu beharrean, bi txandatan.



AINHOA ANSA

## Astearteroko hitzordua jubilatuenen

Astelehenean 10:00etatik 13:00etara. Astearteroko hitzordua horri ekin diote berriz ere jubilotekako kideek. Ainhoa Ansa aranoarrarekin, oraingoz bost lagun biltzen dira jubilatuen elkarteetan eta denetarik lantxoak eta denbora-pasak eginez tarte atsegina pasatzeko aukera dute.

badugu, 16 pilotari bakarrik zeuden», dio Elizegik. Joera hori iraulita pozik mintzo da: «Goizueta bezalako herri ttiki baterako jende dezente da. Ez dakigu gorakadak zenbat irauten duen baina horretan segitzeko eta mantentzeko lanean segituko dugu».

### Mendialdeko txapelketa

Astelehen honetan, irailaren 13an, hasi zituzten entrena-

menduak eta Buruz Buruko Mendialdeko Txapelketarekin irailaren 10ean hastekoak ziren. Larraun, Leitzako Aurrera eta Araxes pilota elkarteekin elkarlanean antolatuta dute eta hilabete bat eta erdi iraunen duela aurreikusi dute. 90 pilotarik parte hartuko dute eta partidak Goizuetako, Leitzako, Lekunberriko eta Beteluko pilotalekuetan jokatuko dituzte.





Uztailean Lesakara egindako irteeran parte hartu zuten mendizaleak. O. ZABALA

## Oiartzunera mendi ateraldia egingen du larunbat honetan Arainburu taldeak

### TTIPI-TTAPA

Herriko plazatik abiatuta, Arri-xulo aterpetxera joateko irteera antolatu du Umore Ona-Arainburu mendi taldeak. Larunbat honetan, hilaren 18an, egin dute hitzordua, 07:00etan.

Sei orduko buelta izanen da, eta Arri-xulo aterpetxean bazkalduko dute. Itzulerako au-

tobusa, berriz, 17:30ean aterako da aterpetxetik.

28 laguntzako mugatu dute parte hartzeko Elena estankotan apuntatu behar zen asteazkenarako. Bakoitzak bere hamaketakoa eta musukoa eraman beharko ditu, azken hori, segurtasun neurriak mantendu ezin direnean erabiltzeko.

## Zakurrek lotuta ibili behar dutela oroitarazi du udalak

Udalak herrian zakurrek lotuta edota beraien jabeekin ibili behar dutela jakinarazi du bando bidez. Horrekin batera, herriko kaleak garbi mantentzeko «zikinkeriak jasotzeko» eskatu eta kakak biltzeko poltsak udaletxean jaso ditza-ketela oroitarazi du.

## Goizueta-Hernani autobus linearen ordutegia

Irailaren 6az geroztik hauxe da autobus zerbitzuaren ordutegia. Hernanira joateko 09:00-etan, 14:45ean eta 17:00etan –eskola egunetan bakarrik– aterako dira eta Hernanitik herrira etortzeko 12:00etan, 15:30ean –eskola egunetan bakarrik– eta 19:00etan.



Aranon aurreko denboraldian jubilotekan ibili zirenak. Aurten bi gehiago dira. A. ANSA

# Lau herrietako 20 lagun hasi dira jubilotekan

Ainhoa Ansa Zugarramurdi gidari dutela astean behin biltzeko hitzorduekin hasi dira

### TTIPI-TTAPA

Udako oporrak bukatuta, ohiko martxara bueltatu dira Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako jubiloteketako kideak. Ainhoa Ansa Zugarramurdi gidari dutela joan den astean hasi ziren asteroko hitzorduekin. Leitzan oraingo sei lagunek eman dute izena, Goizuetan bost apuntatu dira eta Areson hiru. Aranon aurreko ikasturtean baino bi lagun gehiago izanen dira, sei guztira.

Gainerakoan, orain arte bezala, Leitzan astelehenetan bilduko dira, Goizuetan as-

teartetan, Areson asteazkene-tan eta Aranon ostegunetan, herri guztietan 10:00etatik 13:00etara.

**Aurrez aurre edo etxez etxe** Leitzan iaz etxez etxe eman zuten jubiloteka zerbitzua, eta Ansa TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, ikasturte honetan «martxa hartu ahala erabiltzaileekin erabakiko dugu aurrez aurrekor animatuko diren edo ez». Goizuetan, berriz, jubilatuen elkartean egi-ten dute hitzordua, Areson udaletxeko goiko gelan eta Aranon Maisuenean.



**inelsa**  
**ZENER**  
ascensores  
igogailuak

Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

**T. 948 232 400**

**www.inelsazener.com**



**BIZIKLETEN SALMENTA eta KONPONKETA.**

 Kanttonberri, 1 | BERA

 T. 948 631 218

 joxemi@kateabike.com

 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

















## Legoeekin sormen tailerrak egingen dute irailaren 25ean

10:00etatik 13:30era izanen dira tailerrak eta aitzinetik izena ematea beharrezkoa izanen da

### TTIPI-TTAPA

Lego piezen bidez, sormenari tarte egiteko aukera izanen dute bortz eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoek irailaren 25ean, larunbatean, Elizondon egingen duten tailerretan. Gaztetxoek ordu eta erdiko bi saio izanen dituzte aukeran: lehenbizikoa, 10:00etatik 11:30era, dinosaueroi buruzkoa, eta bertzea 12:00etatik 13:30era, Erdi Aroa lantzeko.

Discover Bricks elkarteak gidatuko du tailerra eta, plaza mugatuak izanen direnez,



parte hartzeko aitzinetik izena ematea beharrezkoa izanen da. Horretarako, 636 47 99 65 edo 636 45 07 45 telefonora deitu edo [info@discoverbricks](mailto:info@discoverbricks). eshelbidera idaztea aski izanen da.

### Ikastaroetan izena emateko epea ortziralean itxiko da

Urritik aitzinera izanen diren tailerretan izena emateko epea irailaren 17an akituko da. Antzerki jolasaren tailerretan, gaita edo atabala ikastaroan, plastika lantegian... izena eman nahi dutenek 948 58 12 79ra deitu edo [kultura@baztan.eus](mailto:kultura@baztan.eus) helbidera idatz dezakete.

### Baztan Kantuz irailaren 19an Elizondon

Baztan Kantuz egitasmoak heldu den igandean, irailaren 19an, izanen du hurrengo geldialdia. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak Elizondon zehaztuta du hitzordua, 12:00etan, plazan. Hortik abiatuta karriz karriz ibiliko dira ordubetez.



M. MARITORENA

### Xingar jatea egin dute Anizen

Urtero bezala, aniztarrek udari bukaera emateko xingar eta ziztor jatea egin zuten abuztuaren 29an, hilabeteko hondarreko igandean. Haur zein helduak mahaiaren bueltan bildu ziren eta jan-edan bitartean solasaldi ederraz gozatu zuten.

### Zerbitzariendako ikastaroa irailaren 21ean hasita

Irailaren 21etik azaroaren 26ra zerbitzariendako 210 orduko ikastaroa izanen da Lekarozen. 09:15etik 14:30era izanen dira saioak (11:15etik 11:30era atsedena), Agefor enpresaren eskutik. Informazio gehiago izateko 630 27 93 26 telefonora dei egin daiteke.

### Komunikazio digitala langai irailetik aitzinera

Heldu den irailaren 20an, astelehenean, hasita urriaren 1era bitarte, 09:15etik 12:30era, Lekarozko aterpean komunikazio digitaletan trebatu nahi dutenendako ikastaroa izanen da. 30 orduz Internet bidezko komunikazioa, telelana, tresna digitalak... landuko dituzte.

**BRIKO BAZTAN, SL**  
Drogeria · Garbiketa produktuak  
Ferreteria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta maletak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBATE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



# Landa herrien bizi-iraunkortasunaz ikastaroa prest

Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu duten uda ikastaroa egingen dute urriaren 1ean Arizkunenean

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak *Landa herrien bizi-iraunkortasuna; Ondarea, etxebizitza eta komunitatea* goiburupean uda ikastaroa antolatu dute urriaren 1ean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Euskal Herriko landaguneetako herrien erronka handienetako bat izanen dute hizpide: hustea, fenomeno honek gune hauen egungo iraunkortasuna zalantzan jartzen baitu.

Bertzeak bertze, landa inguruetako herrien erresiliენტzia gaitasuna sendotzeko bideak jorratuko dituzte etorkizun iraunkor baterako, landa herrietako ondarea erai-kuntza gain lurralde kudeaketa ereduak aztertuko dituzte, etxebizitza kooperatiba ereduak landa ingurua bizi-

berritzeko izan ditzaketen aukerak eta honek dakartzan erronkak landuko dituzte eta etxebizitza eskubidea, lurraldearen eskubidearekin eta komunitatean bizitzeko aukerarekin lotuko dute. Aurrez aurre edo on-line parte hartzeko aukera emanen dute mahai-inguru eta tailerretan. [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webgunean eman daiteke izena eta 10 orduko balio akademikoa izanen du.

## Programa

Programari dagokionez, urriaren 1ean, ortziralean, 09:30ean *Erregistroa* jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena egingen dute Joseba Otondo Baztango alkateak eta EHUKo Koldo Telleriak. Ondotik, *Hirigintza landa inguruetan* gaia landuko du Dunak taldeko Amaia Albenizek, *Ondarea*



Ondarea, etxebizitza eta komunitatea landuko dute EHUKo uda ikastaroan.

*etxebizitzarako eraberritzeak* izanen dute hizpide Lierni Altube eta Ainhoa Negeruela arkitektoek eta *Ondarea lurraldearen kudeaketa eredu* EHUKo Ibon Telleriak. Ondotik mahai-inguru izanen dute. Atsedenen ondotik, *Landa inguruaren gentrifikazioa* izanen da Jean Claude Mailharin Nafarroa Behereko Amendüze-Unasoko hautetsiaren solasgaia. Bartzelonako CALCASE etxebizitza kooperatibako Rosa Binimelise *Etxebizitza kooperatibak landa inguruan-Katalunia* gaiaz ariko

da eta Bizkaiko Ametxe etxebizitza kooperatibako Rosa Lago Euskal Herriko landa inguruko etxebizitza kooperatibez ariko da. Goizeko lanak mahai-inguruarekin akituko dituzte.

## Bazkalondoan tailerrak

Bazkalondoan tailerrak izanen dituzte. 15:30etik 17:00etara tokian tokiko egoeren inguruko hausnaketa kolektiborako lan saioa izanen dute eta 17:00etatik 18:00etara etorkizunerako bideak zehazteko proposamen lan saioa.



BAZTANGO UDALA

## Nafarroa Behereko eta Lapurdiko mugak ikuskatzen

1856. urteko Mugetako Itunean xedatutakoaren arabera, urtero bezala, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko herri mugakideekin dituzten mugarriak berrikusi dituzte udal ordezkariak irail hasieran. Sara, Senpere eta Ainhoakoekin ibili ziren hilaren 6an; Itsasu, Ezpeleta eta Bidarraikoekin hilaren 7an eta Baigorri, Banka, Aldude eta Urepelekoekin hilaren 9an.

# Landa eremuaren ikerketa bultzatu nahi du udalak

Lekarozko Campusean eginen litzateke eta Europako laguntzetara aurkezteko aurrekontua onartu dute

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Lekarozko campusean landa eremuaren ikerketa eta berrikuntzari lotutako gune egonkorra sortu nahi du eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren enpresa politika, nazioarteko proiektioaren eta lanaren zuzendaritzaren babesa du.

Proiektua idatzi eta Europako laguntzetara aurkezteko 14.500 euroko (BEZ kanpo) aurrekontu moldaketa onartu zuen udalak abuztuaren 25eko ohiko osoko bilkuran, EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko zortzi botoekin eta Navarra Sumaren kontrako hirurekin. Gobernuak erdia diruz lagunduko du.

## Landa-inguruneari buruzko harreman-sarea

Baztango Udalak landa-inguruneari buruz gogoeta jarraitua bultzatu nahi izan du azken urteetan eta hori hainbat mintegi, udako eskola eta topaketatan gauzatu da. Horren emaitza aipagarriena da: Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, AgroParisTech, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi zientzia elkartea, Uharteko Arte Garaikide Zentroa, INTIA, Euskal Herriko Laborantza Ganbara...

## Ikerketa eta berrikuntza ardatz

Aipatutako ekimen horien ondorioz, landa eremuaren ikerketa eta berrikuntzari lotutako gunea sortzeko auke-

ra ikusi du Baztango Udalak, diziplina arteko izaera izan dena: elikadura sistemak, demografia, kultura, paisaia, biodibertsitatea, hirigintza eta arkitektura...

## Elkarlana, laguntza eta aholkularitza

Orain artio hainbat erakunde eta eragilerek proiektuari buruz solas egin du; horren ondorioz mugaz gaindiko edo/eta Europako laguntza deialdietara aurkeztea beharrezkoa ikusi da eta horretarako proposamen teknikoak landu ahal izateko aholkularitza kontratatzea; aurrekontu moldaketa horretarako da.

Modu horretan, aholkularitzak udazkenean Lekarozko campusean eginen den mugaz gaindiko mintegiaren antolaketan lagunduko du. Zehazki, egitarauaren garapenean, parte hartzaileen identifikazioan eta kontaktuan eta jardunaldian bertan parte hartuko du.

Mintegia Baztango Udalak, Nafarroako Gobernuaren enpresa politika, nazioarteko proiektioaren eta lanaren zuzendaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari talde batek bultzatzen dute.

Kontratatu den aholkularitzak aipatu hiru erakundeekin gunean parte hartzeko interesa edukitzen ahal duten erakundeak identifikatu ditu eta beraiekin harremanetan paratuko da. Eta azkenik, proiektuaren fitxa idatzi beharko du. Horrekin Euroeskualdeko eta Poctefa deialdietara aurkezten ahalko da.

## Artisau azokak irailaren 18an eta 25ean

Artisau eta nekazariak egingo dako lana ikusi eta erosi ahal izanen da Elizondon ondoko asteburuetan. Izan ere, heldu den larunbatean eta hurrengoan, hau da, irailaren 18an eta 25ean azokak izanen dira. Goiz osoan plazan paratuko dituzte postuak.

## Baztango Udalak webgunea berritu du

Udalak webgunea berritu du eta hainbat ataletan sailkatu ditu edukiak: enplegua, dokumentu ereduak, udal zerbitzuak, ordenantzak eta araudiak, taula eta iradokizun postontzia... Horrez gain, azken berriei eta bertzelako informazio interesgarriari ere tarte egin diote.



UTZITAKOIA

## Nerf txapelketa egin dute Elizondon

Hogei gaztetxok, lauko taldeetan banatuta, Nerf txapelketaz gozatu zuten Elizondon abuztu hondarrean. Merkatuko plazan bilduta, hainbat joko egin zituzten eta bukaeran parte-hartzaileei sorpresatxo bat eman zieten. Segurtasun neurri guztiak betez egin zuten txapelketa.



UTZITAKOIA

## Aroztegiaren kontra borrokan

Abuztu hondarrean, Artean egin ohi den Iraultza Txikien Akanpagan izan ziren lekaroztarrak. Bertzeak bertze, Aroztegi herri ekimeneko kideen eskutik, «Aroztegi makroproiektuaren aurkako borrokaren berri» izan zuten bertaratu zirenek.





# #ELKARLANERAKOORDUADA

Covid-19ak eragin duen pandemiak argi utzi du denok elkarren beharra dugula; munduko txoko batean gertatutakoak planeta osoarengan eragina duela. Ez hori bakarrik. Argi gelditu da mundu mailako krisi honi eta bertze batzuei erantzuteko modu bakarra elkarlana dela, batek bertzea babestea eta nazioarteko lankidetzaz.

**Nazioarteko lankidetzaz eta elkartasunaz inoiz baino garrantzitsuagoak dira.**

Kanpaina honen bitartez munduko txoko guztietan bizitzari eusten dioten ekimen solidarioak nabarmendu nahi ditugu. Gure auzo eta hirietan, oinarriko eskubideak bermatzeko milaka herritar ari dira elkar babesten.

Baina herritarren proposamenetatik haratago, nazio mailako eta nazioarteko politikak behar dira, horiek direlako krisitik ateratzeko ezinbertzeko eragileak; eta aldi berean, honen gisako pandemia bat ez errepikatzeko behar diren aldaketak sortzeko eragile ere bai.

**INOIZ BAINO  
BEHARREZKOAGOAK  
DIREN GAUZAK DAUDE**

**#ElkarlanerakoOrduaDa**

Eskaneatu,  
gehiago jakiteko

[eshoradecooperar.org](http://eshoradecooperar.org)



# «Saiatzen gara herrian denentzat kultur ekintzak antolatzen»

**KRISTINA FERNANDEZ PEREZ** ANIZKO ALKATEA

Urtarrilean hartu zuen Kristina Fernandezek Anizko alkate kargua. Hainbat lan egitea egokitu zaio, baina argi du «aniztarrek egiten dutela Anizen alde»

**M. MARTIARENA** | ANIZ

Baztango herri txikiena da Aniz, horrek ez du erran nahi bertan zer eginik ez dagoenik eta geldirik egoten direnik. Alkate kargua etxez etxe pasatzen den zerbait da Anizen eta urte hasieran jo zuen atea Kristina Fernandez Perezen (Aniz, 1971) etxean.

**Nolatan animatu zinen alkate aurkeztera?**

Nolabait errateko tokatu egiten zitzaidan eta herriko batzuk ere animatu ninduten kargua hartzera. Ingurukoen babesarekin eman nuen pausoa.

**Zein dira alkatetzan dituzun ardurak?**

Hainbat funtzio ditut. Batetik auzolanak antolatzea dago nire lanen artean. Baztango Udalarekin harremanetan egotea, juntetara joatea eta herritarren bitartekari gisa aritzea. Herritarrek udaletxe-ko zerbait behar badute laguntzeko hor egotea azken batean. Bestak edo ekintzak antolatzen direnean ere diruzain lanak egitea tokatzen zait edo harrera lanak bertze batzuetan.

**Urtarrietik hona zer lan egitea tokatu zaizu?**

Kargua hartu berriren bilera batzuk egin genituen herriaren kezka eta beharrak zein ziren ikusteko. Gaizki dauden gauzen konponketa eta saneamendua ditugu lehentasunen artean. Baztango Udalarekin bilerak egin, Baztan Hobetuzen ere parte hartu, Magnak



Kristina Fernandez da Anizko alkatea.

egin dituen bilera eskaeretara ere joan naiz eta bertako informazioa herritarrei ematea ere egokitu zait. Horrelako bileren ondotik herritarrekin biltzen naiz informazio guztia emateko.

**Zer moduz moldatzen zarete herrian?**

Herritarrek beti daude prest gauzak egiteko eta laguntzeko, hori abantaila da. Alkate izan arren ez ditut nik hartzen erabakiak, denon artean hartzen

ditugu. Zerbait egiteko dagoenean ere, nik ezin badut egin herriko bertze baten batek egiten du. Ongi moldatzen gara, badakigulako herriaren alde lan egiten dugula, herri bat sortzeko aritzen garela. Azken batean, herria sortzea denon artean egin beharreko zerbait delako. Nire izena gehiago azalduko da batean eta bertzean alkatea naizelako, baina aniztarrek egiten dute Anizen alde.

**«HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO BITARTEKARI LANA EGITEN DUT»**

**«ANIZ HERRI BIZIA IZAN DADIN JARRAITUKO DUGU LANEAN»**

**Nolakoa da egunerokoa Anizen?**

Ez dut uste bertze herrietatik desberdina denik, herri handiago batean edo hiri batean ere berdintsua izanen da. Agian lasaitasun gehixeago dugu hemen, baina bada mugimendua. Haurrak eskolara, bertatik etortzean karrikan jostatzen dira, helduok lanean eta herriaren ez bagaude etxean egoten gara gure eginkizunetan. **Herri aktiboaren fama duzue.**

Saiatzen gara denentzat kultur ekintzak antolatzen. Urteroko hitzorduak hor daude, inautek, Orakunde besta, Olenztzeroa eta herriko bestak. Aurten ere ez dugu bestarik izanen baina seinalea egingen dugu. Sei-zazpi lagunek aste kulturala taldea osatzen dugu eta abendurako asteburu kulturala antolatzen dugu. Azken urteetan Liburuaren Eguna ospatu dugu apirilaren 23an eta saiatsen gara urtero gauza desberdinak egiten. Horrez gain, orain dela bi urte *Gau Beltza* ere antolatu genuen. Euskal kulturgintzatik etorri zen proposamena, mugimendu polita sortu zen eta animatu ginen Anizen egitera. Arras giro polita sortu zen eta Euskal Herriaren arimen gaua lehenetik ospatzen zela ikasi genuen. **Aniz herri txikia da, nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?**

Ikusten dut etorkizuna badue-la herriak, jende gaztea bada-go, erreleboa hartzeko gogoia dutenak eta hori indargunea da. Baina herriaren etorkizuna ez da herriaren erantzukizuna bakarrik. Gizarteak, inguruneak eta ekonomiak baldintzatzen dute. Bertakoek izanen dute aukera Baztanen lan egiteko? Aukera izanen dute Anizen bizitzeko? Bertan bizitzen jarraitu nahiko dute? Nahiz eta nahi, batzuetan ez da erraza. Herri bizia da, 14 haur daude, gazteak ere bai, baina etorkizunari begira zaila egiten zait erratea. Jendea egon badago, orain denak kontent daude eta bitartean herri bizi baten alde lanean segituko dugu.





Baztandarren Biltzarra elkarteak uztailean omenaldi xume bat egin zion uztailean.

## Migel Iparragirre akordeoi irakaslea hil da

Arantzakoa sortzez, 40 urte baino gehiago eman zituen Baztango Musika Eskolan irakasle

### TTIPI-TTAPA

40 urtez Baztango Musika Eskolan akordeoi irakasle izan zen Migel Iparragirre Gonzalez abuztuaren 30an hil zen, 65 urte zituela.

### 40 urtez akordeoi irakasle

Baztanen 40 urtetik goiti eman zituen arren, sortzez arantzatarra zen Miguel Mari Iparragirre Gonzalez akordeoilaria. Etxetik eta ttikitatik izan zuen musikarekiko zaletasuna. Eta 13 urterekin, herrian bertan, Martin Ibarrola zenarekin solfeoa ikasten hasi zen eta

gero, Irun eta Donostiara joan zen akordeoia ikastera. Duela 48-49 urte, besta eta bertzelako ospakizunetan esku-soinua jotzen hasi zen eta duela 40 urte musika irakasle gisa hasi zuen bere ibilbidea, Baztango Musika eskolan, joan den urteko urriaren 30ean bere hondarreko klasea eman zuen arte. Musika Eskolako ikasleek txalo artean eta akordeoi soinuekin eskertu zioten egindako lan guztia. Horrez gain, aurren, Baztandarren Biltzarra elkarteak ospakizun handia behar lukeen egunean, omenaldia egin zion.



Joseba Otondo, Florentino Goñi, Pedro Lopez eta Ciriza kontseilaria.

## Almandozko Mendiola auzoak N-121-A errepiderako lotune berria izanen du

### TTIPI-TTAPA

Almandozko Mendiola auzoak zuzeneko lotune berria izanen du N-121-A errepidearekin. Lotune berria, sarrera eta irteerarekin, Almandozko etorkizuneko tunelaren hegoaldeko ahoan egingen dute. Nafarroako Gobernuak, Lurralde Kohesioko Departamentuaren bidez, eta Baztango Udalak bat egin dute aukeratutako konponbidearen xehetasunei ekitako. Zenbait aukera aztertu ondotik, talde teknikoek on-dorioztatu dute Almandozko hegoaldeko ahoko lotura dela aukerarik onena ikuspuntu

tekniko, ingurumeneko eta ekonomikotik, eta bideko segurtasuna bermatzen duela.

Lurralde Kohesioko Departamentuak Baztango Udalak eta Almandozko herriak Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari aurrekeztutako alegazioei erantzun die gisa honetara.

Gobernuak 2019ko urrian erabaki zuen Almandozko eta Belateko tunelen bikoizketari ekitzea. Aurreikusitako egutegiaren arabera, lanak 2022. urtean hasiko dituzte eta 2024. akabailan edo 2025. urte hasieran akitzea espero dute.



UTZITAKOIA

## Oteiza irabazle Uharte Arakilen

Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza eta Lagun zakurrak irabazi zuten abuztu hondarrean Uharte Arakilen izan zen Artzain Egunaren 53. edizioa. Egun berean izan zen gasna lehiaketan Etxelekuko gasnak lortu zuen lehenbiziko saria eta Kortariokoak laugarrena. Joxe Mari Istillart ere gogoratu zuten.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
VALLE DE CAJERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

# Urdazubiko mediku faltarekin kexu dira Baztango alkateak

Asteburuetak gabeziak «hamazazpi herritako 8.000 bizilagun baino gehiagori» eragiten diela salatu dute

## TTIPI-TTAPA

Abuztuko azken aste hondarean, Nafarroako Osasun Zerbitzuak guardiako medikurik gabe utzi zituen Urdazubi eta Zugarramurdiko herritarrek, «honek suposatzen duen guztiarekin». Baztango udalako alkateak eta Baztango herrietako hamabortz alkateek salatu dutenez, «Nafarroako Osasun Zerbitzuak babesik gabe utzi gintuen» eta «larrialdikasua izan zezakeen edozein herritar Elizondoko Osasun Etxera bideratua izan zen, edota kasu larrienetan, Elizondoko medikuak herri hauek joateko betebeharrak, bertako osasun etxeko larrialdiak artatzeko langilerik gabe utzi».

Hau honela izanik, Baztango alkateek ezin dute atzendu «ez dela Urdazubiko eta Zugarramurdiko herritarren arazoa soilik, Elizondoko Osasun Etxeari ere bete betean eragiten baitio. Domino fitxen gisara, Urdazubiko eta Zugarramurdiko guardiako medikuak kentzeak Erratzu, Arizkun, Azpilkueta, Amaiur, Elizondo eta Elbeteko herritarrek ere guti goiti-beheiti 3-4 orduz mediku gabe uztea dakar. Do-

mino fitxekin jarraituz, herri hauek batera mediku bat etorri beharko balitz, Oronozko kontsultategiko medikua mugitu beharko litzateke, Gartzain, Lekaroz, Irurita, Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz, Arraioz eta Oronozko herritarrek ere 3-4 orduz medikurik gabe utzi».

## «17 herrietako 8.000 biztanleren osasuna jokoan»

Domino joko honen lehen fitxa mugitzeak, Urdazubi eta Zugarramurdiko medikuak kentzeak, alegia, «17 herrietan biltzen garen 8.000 biztanle baino gehiagoren osasuna jokoan jartzea dakar. Medikuen erretiroak eta bajak ordezkatzeko ez diren momentutik, gure herritarren biziak jokoan daude eta horren erantzulea Nafarroako Gobernu da», diote alkateak.

«Gure herri eta bailarako alkateok –aipatu dute idatzian–, herritarren osasuna, bizitza eta eskubideak defendatzen ditugunez, Nafarroako Osasun Zerbitzuari falta diren medikuak lehen unetik ordezkatzeko eskatzen diogu. Herritarrik ez, mediku zerbitzurik gabe!».

## Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia egin du udalak

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak diruz lagunduko ditu 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikula gastuak, «euskararen gizarte

ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko». Dirulaguntza gehienez 420 euroko izanen da onuradun bakoitzeko. Urriaren 1a izanen da eskaera egiteko azken eguna, 14:00ak arte.



Dantzariak saio gustagarria prestatu dute irailaren 25erako.

## Dantzarien Eguna izanen dute irailaren 25ean Iruritan

### TTIPI-TTAPA

Iruritako dantzarien elkarteak antolatuta, urtean zehar ikasitakoa plazaratzeko Dantzarien Eguna izanen dute irailaren 25ean, hurrengo larunbatean, Iruritan. Egun horretarako emanaldi polita prestatu dute, 18:30 alderako. Eguraldiak lagunduz gero

errebotean egingen dute emanaldia eta dantzan herriko adin guztietako 80 dantzari inguru ikusi ahal izanen dira. Edukiera mugatua izanen da eta ikusleek sarrerak [www.iruritakodantzariak.info](http://www.iruritakodantzariak.info) loturaren bidez erreserbatu ahal izanen dituzte. Ez da deus ordaindu beharrik izanen.



NEREA MORTALENA

## Jokoak eta laxoa Arraiozko besten seinale

Urte normala balitz, irailaren 3, 4, 5 eta 6an Arraiozko bestak ospatuko zituzten, baina aurten ez da horrela izan. Hala ere, herriko haurrek, seinale gisara, irailaren 3an jokoak eta txokolata izan zituzten. Biharamuneko laxoa desafioan talde gorriak 9-4 irabazi zion talde urdinari.



# 423 etxebizitzetako energia gastua murriztu nahi dute

Elizondo, Irurita, Arraioz, Arizkun, Erratzu eta Oronozko 76 atarrietako pisu edo bizitegi-bloketan egin nahi dute

## TTIPI-TTAPA

Nasuvinsarekin lankidetzaz hitzarmena onartu zuen udalak, abuztuaren 2an egindako batzarrean. Hitzarmenaren helburua da Elizondo, Irurita, Arraioz, Arizkun, Erratzu eta Oronozko pisu edo bizitegi-blokeen energia-gastua murriztea, denera 76 atari eta 423 etxebizitzetan, hain zuzen ere.

Zehazki, proiektuaren helburua da hautatutako bizitegi parkearen energia berronertzeko proiektuaren dinamizazio eta laguntza lanak egin ahal izatea. Horrela, hitzarmenarekin, alde batetik jarduera koordinatuak abiaraziko dituzte, helburu hauetarako: bizitegi eraikinen birgaitze energetikoa, instalazio termikoak hobetzea, eraginkortasun handiko instalazio alternati-



Elizondoko Baztan Berri ingurua.

boak sustatuz, eraikinetan energia berriztagarriak gehitzea eta erabilera publikoko espazioa hobetzea eta egokitzea. Bertze aldetik, aipatu helburuak erdiesteko Nasuvinsaren eta Baztango Udalaren betebeharrak finkatu dituzte.

## Nasuvinsako teknikaria hiru urtez astean 11 orduz

Modu horretan Nasuvinsak hiru urteko epealdian astean

11 orduz teknikari bat bideratuko du Baztanerat zerbitzu hauetarako: energia berronertzeko proposamenak zehazteko laguntza ematea hautatutako eremuetan; prozesuak abian paratzeko hasierako dokumentazio tekniko egitea, talde tekniko esleipendunei jarraipena egitea eta laguntza ematea, jabeen erkidegoei eta udalari laguntza ematea esku-hartze orokorreko proiektuak garatzen eta onartzen laguntzeko, aurreproiektuak zehaztu ondoren jabeen erkidegoendako laguntza lanak egitea birgaitze-laneko akordioak lortzeari begira, egikaritzeko proiektuak idazteko prozesuan laguntzea; instalazioak hobetzeko eta energia berriztagarriak gehitzeko laguntza, energia fotovoltaikoa eta biomasa azpimarratuta...

Nasuvinsako teknikariaren kostua finantzatzeko 4.140 euroko ekarpena egingen du udalak.

Aldi berean, proiektuaren hasierako fasean esku hartze orokorreko bi proiektu egitea baloratuko du udalak Elizondoko Giltxaurdi alderdian bat eta Abartan karrika inguruetan bertzea.



Joxe Urroz zena, 2004an.

## Joxe Urroz irakasle eta herrigile ezaguna hil zen hilaren 2an

### TTIPI-TTAPA

Joxe Urroz Arrastio irakasle eta herrigile ezaguna irailaren 2an hil zen, 78 urte zituela. Oizen sortua, Baztanen eman zuen bere bizitzaren zatirik handiena. 1974-75 ikasturte-tik teknologia mekanikoa ikasgaia eman zuen Elizondoko Lanbide Eskolan eta 34 ikasturtez zuzendari ere izan zen ikastetxe horretan, 2008ko abuztuaren 31n erretiroa hartu zuen arte. Urte hartan inauguratu zuten Almandozko eskola berria eta Nafarroako Gobernuak Joxe Urroz omentzeko aprobetxatu zuen ekitaldia.

Baina Joxe Urrozen bizitza ez zen irakaskuntzara mugatu. Kirol arloan ere aunitz mugitu zen eta Laxoa Elkarreko lehen zuzendaritza batzordeko kide izan zen. Horregatik ere omendu zuten 2004. urtean, Laxoa Elkarreko 25 urte bete zituenean. Herri kirolen munduan ere murgildu zen, epaile eta gidari lanetan. Bertsozale handia zen eta Nafarroako lehen txapelketatik antolatzaile aritu zen, baita epaile ere. Komunikabideen arloan, *Xorroxin Irratian* laguntzaile izan zen urtetan eta herrigintzan ere aritu zen, herriko eta udaleko lanetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Menditarrak-BRT errugbi taldea lanean hasi da

Nahiz eta hasieran jokalaririk faltarengatik taldea arriskuan egon, Menditarrak-BRT taldeak nahiko jokalaririk bildu ditu eta senior eta sub-18 taldeek aurrendenboraldiari ekin diote Iñaki Ezkurra entrenatzailearen eskutik. Ateak zabalik dituzte.



Luzaketak Donezteben eginen dituzte.

## Eskaintza zabala du elkarteak ikasturte honetarako

Ikastaroeri buruzko informazioa eskuratzeko eta izena emateko elkartera deitu behar da goizez

### P. IRASTORTZA

Adin eta behar guztietara egokituta, ikastaro eskaintza ederra dakar Arkupeak elkarteak ikasturte honetarako.

### Bortzirietan

**Arantzan** yoga saioak izanen dituzte; **Beran**, berriz, frantses ikastaroa, mugikorra erabiltzen ikasteko saioak, dietetika eta nutrizioari lotutakoak eta pintura; **Lesakan** ere pintatzen erakutsiko dute eta Igantzin lorezaintza.

### Malerrekan eta Bertizaranan

**Donamarian** soinketa saioak emanen dira; **Donezteben** luzaketak, yoga, egur zizelketa, dietetika-nutrizioa, afektibitate eta sexualitatea, Garmin explorer, bankarekin harremanak, pilates-hipopresiboak eta pirograbatua; **Elgorriagan** aquagim; **Gaztelun** pintura. **Narbarten** ere pintura saioak izanen dituzte.

### Baztanen eta Xaretan

**Urdazubin**, **Zugarramurdin**, **Arizkunen**, **Erratzun** eta **Elizondon** jubilotekak segida izanen du eta horrez gain,

**Elizondon** dietetika eta nutrizioa, pintura, yoga eta lorezaintza izanen dituzte. Burua martxan paratu nahi dutenek **Ornoz-Mugairin** emanen den memoria tailerrea izanen dute aukera.

### Leitzaldean ere bai

**Leitzan** mobila erabiltzen erakutsiko diete hainbat saiotan.

### Izen-ematea

Interesa dutenek goizez (09:00etatik 13:00etara) elkartearen telefonoetakoren batera deituz (948 45 08 78 edo 618 56 78 37) eskuratu ahal izanen dute. Elkarteko kideek, gainera, izen ematerakoan «deskontu politikak» izanen dituztela iragarri dute.

### Bertzelako zerbitzuak

Ikastaroak ez ezik, masaje eta podologia zerbitzuak ere eskura izanen dituzte, astelehen eta ortzegunetan, Jaione Iri-sarri eta Ainara Narbarteren eskutik, hurrenez hurren. Baterako zein bertzerako aitzinetik ordua hartu behar izanen da.



Mari Koro emazteak eta Laia bilobak jaso zuten saria. UTZITAKOA

## Tomas Otegi izan da abuztuko janari-sortaren irabazlea

### TTIPI-TTAPA

Hagitz zintzo dabilta hilabeteroko galde-erantzunen jarraitzaileak. Abuztuan, erraterako, hemeretzi erantzun zuzen izan ziren eta, asmatu zutenen artean zozketa egin ondotik, Berako Tomas Otegi Peron etxeko janari sorta jaso

zuen Otegi eta argazkiak azaldu bezala, bere emazte Mari Koro eta Laia biloba bertaratu ziren saria jasotzeko. Zorionak familia! Laster botako dute hurrengo galdera eta parte hartu nahi dutenek 618 56 78 37 telefonora bidali beharko dute erantzuna Whatsapp bidez.

## Buletinak prest dituzte eta dagoeneko ordezkariak jaso ditzakete

### P. IRASTORTZA

Dagoeneko prest dagoen elkartearen 24. buletinak Aniz herriaren irudia dakar azalean eta egin diren eta egin ezin izan diren jarduerak biltzen ditu barrenean. Horrez gain, bi urtetako adinduenen oroigarriak eta jakin beharreko

bertzelako hainbat kontu ere bildu dituzte. Herrietako ordezkariak buletinak bulegoan jasotzen ahal dituzte. Horretarako Doneztebeko bulegoko zenbakira, 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 telefonora, dei egin dezakete, 09:00etatik 13:00etara bitarte.

## Adinekoei oroigarri bana bidaliko die elkarteak

### P. IRASTORTZA

Ez iaz ezta aurten ere ezin izan zaie elkarteko adineko bazkideei hagitz merezia duten omenaldia eskaini. Hortaz, bi urteotan omentzekoak ziztutenei oroigarri xume bana bidali die elkarteak eta herrietako ordezkarien eskutik

jasoko dute. Ezkondurik 65 urte daramatzaten hiru; 60ko bi eta 50eko 38 dira oroigarria jasoko dutenak. Horrez gain, 102 urte beteko dituen bazkide batek eta iaz 85 urte bete ziztuzten 26k eta aurten beteko dituzten bertze 26k ere izanen dute.





Eskola pareta eta teilatu berriarekin. ARGAZKIAK: MARIFA ETA KORO



Azketa gaineko bide zimentatu berria.

## Herriko etxea berritzeko lana ez du nehork hartu

Proiektua egin zenez geroztik materiala aunitz igan da eta murrizt gelditu da 491.000 euroko aurrekontua

### MARIFA ETA KORO

Herriko etxea moldatzearen kontura berri txarrak ditugu. Irailaren 3an jakin behar zen ea nork hartzen zituen berritzeko lanak, baino zoritxarrez ez ditu nehork hartu.

Diotenez, proiektua egin zenez geroztik, materialaren prezioa aunitz igan da, eta ondorioz gaur egun lanak egiteko aurrekontua murrizta gelditu da (491.417,30 euro gehi BEZa).

Beraz, proiektua berri behar da, prezioa igan, eta berriz ere lizitaziorat aterako da noizbait. Aipatzekoa da

herriko etxearen hiru solairutan egin nahi dituztela lanak. Beheitikoan, bi sarbide bereizi egin nahi dituzte, bat ostu-jatetxera sartzeko eta bertzea, udal bulegoetara joateko. Gaur egun bigarren solairuan dauden udal bulegoak lehenbiziko solairura eraman nahi dituzte eta bigarrenean erabilera anitzeko aretoa egin. Gaur egun duen sabaia kenduta, teilatuak duen zurezko egitura bistan utziko dute. Bigarren solairuan gelatxo tiki bat ere izanen da, bulego edo biltegi moduan erabiltzeko. Igogailua ere jarriko dute.



Kilima taldea plazan, errefetaren seinale.

### Eskola berria eta Azketa gaineko bidean porlana

Herriko Etxeak lan pare bat egin ditu uda honetan. Alde batetik, eskolako teilatua aldatu eta kanpoko paretak pintatu, eta bertze aldetik Azketako gaineko aldeko bidea zimendatu.

Eskolako lana haundia izan da, eta 58.000 euro kostatu da, baina, zorionez, 31.000 euroko dirulaguntza izan da.

Bertzalde, Azketako gaineko aldeko bideko lanak franko

presaka egin dira. Gero eta jende gehiago ibiltzen da hortik, eta lurra irristakorra denean arrisku egoerak sortzen omen dira. Beraz, momentuz zimendatu da, eta bertze fase batean harri-xabala emanen zaio.

### Errefetaren seinale

Ez zen errefetarik ospatu abuztaren 28an, baina horren seinali tiki bat izan zen iluntzean, Kilima taldeak kontzertu bat eskaini baitzuen plazan, eta baita giro polita jarri ere.

**IBARDIN**  
31780 Bera

**BEHOBIA**  
20305 Irun

**LUZAIDE**  
31660 Luzaide

**DANTXARINEA**  
31712 Urdax

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta urtarrilaren 1<sup>a</sup> izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

## Xaretako hiztegia

**Pitxik (edo fitsik):** Deus. **Petto:** Huts egin.  
**Pinpulka erori:** Pertsona bat malda beheiti erori eta beheiti joatea. **Pirripitan erori:** Gauza tiki aunitz lurren erori eta barreiatzea. «Arto pikorrak pirripitan gan zaizkin».

## «Alkerdi babesten ari gara baina batzuen irudiko mantsoegi»

**IÑAKI ARIZTIA URRIZA** URDAZUBIKO ALKATEA

2019ko ekainean hartu zuen Urdazubiko aginte makila eta geroztik egin duen bidez eta berteak bertze, turismoaz, Alkerdiz eta guardiako medikuaren aferaz solastatu da TTIPI-TTAPAREKIN

**G. PIKABEA** URDAZUBI

Zinegotzi zela ezagutu zuen Urdazubiko Udala barrenetik, eta alkatearen aginte makila eskuan hartuta segitzen du bidean. 2019ko ekainaz geroztik Iñaki Ariztia Urriza (Urdazubi, 1980) da Urdazubiko alkate. «Nire herria ezagutzen eta maitatzen duen herritartza» du bere burua eta egindako bidea, herriari bete-betean eragiten dioten turismoa, Alkerdiko harrobia eta bertze hainbat kontu izan ditu hizpide.

**15 hilabete daramatzazu Urdazubiko alkate karguan. Nolako balorazio eginen zenuke?**

Balorazio positiboa eginen nuke. Hasmenta beti zaila izaten da udaletxe barneko egitura ezagutu arte, baina ardurara gogotsu eta indarrez hartu nuen.

**Santiago Villaresen 12 urteko agintaldiaren lekukoa hartu zenuen...**

Santiagorekin batera bere udal taldean zinegotzi ere aritu nintzen (2015etik 2019ra), eta aitzineko agintaldian bere taldearen zerrendan aurkeztu nintzen. Iduri du Urdazubin alkateak ez duela lan aunitz egin behar, herri ttiki bat da baina bere berezitasunak eta Iparraldearekin ditugun akordioak direla eta, esperoan eta prest egon behar da beti ahal denean laguntza emateko.

**Zinegotzi izatetik alkate izatera aldaketa handia izan zen?**

Aldaketa izugarria da. Zinegotzi izanda, udaleko edozein



Pandemia tarteko proiektu handiak alde batera utzi dituztela kontatu du Ariztiak.

arazo zegoenean deitu egiten ziguten, eta ahal genuenean lagundu eta alkateari lan karga hori apaltzen genion. Orain, alkate izanda, lan guztia eza-gutzeko aukera dut eta nire ardura da aitzinera ateratzea edo tokatu den lana nori pasatu erabakitzea.

**Pandemia tarteko ezohiko agintaldia izaten ari da...**

Bai, Urdazubin gehien sumatu genuena muga hetsi izana izan zen. Udalaren martxan ere sumatu genuen. Debeku aunitz etorri ziren eta denak leitu eta jakinaraztea gogorra izan zen. Herritarren artean, bertze herri guztietan bezala, beldur handia sortu zen eta garrantzitsua segurtasuna ematea izan zen.

**Dantxarineko pasabidea hestearen ondorioak handiak izan ziren?**

Hasmenta hartan nahiko handiak, bai. Zabor bilketa, adibidez, Iparraldeko enpresa baten esku dago eta muga hetsita, gure herrira pasatzea debekatu zioten. Gauza bera gertatu zitzaizen Iparralderat lanera edo erosketak egitera joaten ziren herritarrei.

**Turismoa diru sarrera handia da Urdazubirendako. Udal aurrekontuaren zenbatekoa da?**

**«AZKEN HAMAR URTEOTAN BULKADA GOGORRA EMAN DIOGU TURISMOARI»**

Zaila da zenbaki bat ematea, baina % 50etik goiti izanen da. **Turismoa zenbat indartu nahi duzue?**

Azken hamar urteotan bulkada gogorra eman diogu herriko turismo arloari. Beti bezala, opor garaian lan handia egiten da eta udazkenetik udaberrira lasaitasuna izaten da herrian. Herrian ditugun jatetxe, landetxe, hotel eta bertzelakoak denak pribatuak dira baina gure herritarren gozamenerako ere badira. Beti prest gaude edozein proiektu aurkeztu eta egokia irudituz gero, ahal dugun bezala laguntzeko.

**Alkerdiko harrobia ere eztabaida iturri izan da Urdazubin...**

Alkerdiko harrobiaren gaiak beldur eta kezka handiak sortu zituen bere garaian, eta oraino ere kezka sortzen du, baina afera nahiko lotua dugu.

**Azalduko zeniguke?**

Udala, Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentua, Nafarroako Gobernuko Meategien Atala, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentua eta enpresa errekonstruzio planarekin ari gara. Duela aste batzuk denak harrobian elkar-tu ginen, dena bertatik bertara ikusteko, eta departamentu bakoitzak bere txostenetan galdegiten duena zergatik egin daitekeen edo ez baloratzeko. Urdazubiko Udalak lehendabiziko alegazioetan erreparazio minimo bat eskatzen zuen eta lur mugimendu batzuk errekonstruzio planean, gure ustez, aurkikuntza berrietatik kanpo gelditzen direnak. Azken hila-beteotan aurkikuntza gehiago izan dira, galeria gehiago, margo eta aurkikuntza arras garrantzitsuak agertu dira eta horrek dena aldatzen du. Interes Kultureko Ondare izendatua den eremu horretan, ezta Urdazubin ere, ez da inoiz harrobirik izanen, ezta antzeko ustiapenik ere. Hori lotua dago.

**SOS Alkerdi plataformak harrobiaren berrezarpen proiektua alde batera uztea eskatu du...**

Leheneratze proiektuak zalan-tza aunitz sortu izan ditu Na-



farroako Gobernuako departamentuetan. Horrela adierazi zioten udalari, eta elkarrekin bilera batzuk antolatzen ari gara, irtenbide hoberena zein izanen den adosteko.

### Zein da udalaren iritzia?

Urdazubin harrobia arras garrantzitsua izan zen urte aunitzetan. Gero, guti goiti-beheiti 2010etik, itxita eta ustiatu gabe egon zen. Udalak deus jakin gabe, inbertitzaile berriekin berriz hasi ziren lanean eta denok orduan jakin genuen. Geroztik eginahalak egin ditugu harrobiko ustiapena gelditzeko, eta gerora historiaurreko aurkikuntzak agertu direnean, are gehiago. Udalak, urtero, 20.000 euroko partida gorde eta ordaintzen dio Aranzadi Zientzia Elkarteari, aurkikuntza horiek aztertu eta poliki-poliki ezagutzera emateko. Bortz urte daramatzagu horretan eta oraino ez dugu finitu. Udalak beti babestu du eta gure teknikarien aholkuei segituz ahalik eta hobekien ari gara, baina batzuen gusturako mantsoegi.

**Azken udal hauteskunderi erreparatu boto kopuruan ez du aldaketa handirik izan Azkar taldeak. 2007an 140 boto, 2011n 154, 2015ean 151, 2019an 147... Boto-emaile fidelak ditu?**

Bai, gure boto-emaileak beti fidelak izan dira eta espero dut egindako lanak kontuan hartuta, pixkanaka boto-emaile gehiago lortzea.

**Nolako harremana duzue oposiziozko Geroa Bai taldearekin?**

Lehen oposizioan egon zen Urdazubi Elgarrekin taldearekin harreman zaila izan genuen. Baina orain, Geroa Bai taldearekin, nahiz eta jende bera izan, harreman baikorra da. Ez gaude denean ados, noski, baina elkarlana indartu dugu. **Udalak zein proiektu ditu esku artean?**

Burutan beti proiektu aunitz ditugu, baina oraingoz, pandemia dela eta, proiektu handiak alde batera utzi eta lehen-tasuna duten beharretan jarria dugu begia.

### Zein dira lehentasuna duten proiektu horiek?

Auzo batzuetan saneamendua berritu nahi dugu, Euskal Hirigune Elkargoarekin uraren eta hondakinen alorrean ditugun hitzarmenak ere berritu nahi ditugu, hondakinen bilketa hobetu eta modernizatu, bide batzuk konpondu, gai sozialetara bideratutako partida ekonomiko batzuk aztertu eta hobetu...

### Zein dira zure ustez Urdazubiren ahalguneak eta indarguneak?

Gabezia guti ditugu eta edozein arazo sortzen denean, lehen-tasunez hura konpontzen saiatzen gara. Indargune garrantzitsua autofinantziaziorako dugun gaitasuna dela uste dut.

### Zein dira etorkizuneko erronkak?

Herritarrek krisi garai hau ahalik eta hobekien pasatzea nahi genuke eta gure esku dagoen laguntza guztia emanen dugu.

### Guardiako medikuaren faltak ezinezona sortu du herrian...

Mediku faltak kalte izugarria sortu digu, bai guri baita Zugarramurdiko eta Baztango herritarrei ere. Jakin orduko, herriko medikuarekin jarri nintzen harremanetan eta idatzi batzuk igorri dizkiogu Nafarroako Osasun Zerbitzuari. Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango udalek bilera bat ere eskatua dugu. Lanean ari gara eta espero dut fite erantzutea, arazo larria baita.

### Zerbait gaineratuko zenuke?

Urdazubiko udal gobernuak Azkar taldean beti prest gaude herritarrei aditzeko eta beraien kezkek eta lehentasunak mahai gainean paratu eta irtenbideak bilatzeko. Herri honek dituen berezitasunak ezagutu behar dira; mugako edo mugaz gaindiko komertzioak arazoak sortitzake, baina aldi berean diru sarrerak sortzen ditu, langabeziarik ez dago... Hainbat pentsamendutako jendea izaten ahal gara, baina denok ados gaude herri ikusgarri batean bizi garela eta gure bizimodua babestu nahi dugula erraterakoan. Eta ahal badugu, hobetu nahi dugu, noski.



Bizilagunak mediku kontsultaren aitzinean protestan, abuztuaren 28an.

## Asteburuetakoa guardiako medikua kendu dutelako herritarren arrenkura

### ARANTXA ETA IRAIA

Uda finitzea ailegatu bezala, Urdazubiko osasun etxean guardiako mediku gabe gelditu dira. Horren harira, abuztuaren 28an elkarretaratzea egin zen osasun zentroaren aitzinean. Honela, Zugarramurdiko eta Urdazubiko herriko mediku gabe gelditzeaz gain, gurera hurbiltzen diren anitzen larrialdiak ere Elizondoko medikuak artatu behar izatera

pasa zen. Egoera honek bi herrietako biztanle eta bisitariak larrialdiren bat izanez gero 20 kilometroko bidea egitera behartzen ditu. Oraingoz, guardia bi erizainek betetzen dute. Hau dena salatze aldera egin zen elkarretaratzea.

Baztango eta Zugarramurdiko alkateekin batera Iruñean bilera bat egitera joatekoa da udal ordezkariak, lehenbailen egoera hau konpontzeko.

## Kontrabandisten lasterketarako izena emateko epea zabalik da

### ARANTXA ETA IRAIA

Duela bi urteko edizioaren oinarria jarraituz aurten ere Urdazubiko Kontrabandisten lasterketa antolatu da urriaren 9 eta 10ean. Lehen egunean

gaueko lanak lasterketa izanen da 19:15ean (9,5 km), eta bigarren egunean maratoi erdia izanen da 10:00etan. Jadanik izen ematea zabalik da [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) helbidean.



**Montxo**  
JATETXEA • ERRETEGIA  
@asadormontxo

*Etxeok berriz bueltan*

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

*Etxera eramateko aukera*





Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

## «Euskara ikasteak herrian integratzen lagundu dit»

LUCAS DURAN ARANDA URDAZUBIN BIZI DEN ARGENTINARRA

Argentinatik Urdazubira, hiritik herrira, jotzearekin batera, bizimodua aunitz aldatu zaio Lucas Durani. Aldaketa oro, ordea, onerako izan da. Orain, herriko «lasaitasunaz» gozatzen ari da

### N. BAZTERRIKA

«Corralitoak eragindako egoera politikoak eta ekonomikoak» bultzatuta, Informatika ikasketak akitu zituenean, Argentinatik Madrilera jo zuen Lucas Duran Arandak (Tucuman, 1977). Hiru urteren ondoren, Madrilgo handitasunetik ihesi, maletak hartu eta Euskal Herrira lekualdatu zen. Donostian bizi izan zen urte batzuek eta hura «aunitz maitate» zuen arren, gerora Urdazubin egin du habia.

### Hiritik herrira, baserrira

Tucumanen, hiru milioi biztanle inguru dituen Argentina ipar-mendebaldeko hiri batean, sortu eta hazi zen Duran baina gaur egun hirurehun biztanle pasatxo dituen herrian, Urdazubin, bizi da.

Hiriko bizimodua utzita, baserri munduan sartua da eta argi du hori dela gustuko duena. Dagoeneko, horretara ohitua dago eta ongi barneratuak ditu bere egitekoak. «Goizean goiz» hasten du eguna: «oilategia ireki, antzarrei sagarrak eman, ardiaren borda ireki eta bazkatu eta ahate eta oiloetara joaten naiz». Animaliak utzita, telelanaren txanda izaten da: «08:00etan hasten dut lana, etxetik aritzen naiz. Informatikaria naiz eta softwareak, app-ak eta web orrialdeak egiten dituen Bartzelonako enpresa batentzat egiten dut lan. Arratsaldean baratzean



Baserritik bizi nahiko lukeen informatikaria da Lucas Duran.

aritzen naiz eta gero animalien ganoa joaten naiz berriz ere».

### Euskara

#### hizkuntza baino gehiago

Eguna ongi aprobetxatzen duen horietakoa da Duran, ikasteko prest izaten da beti. Donostiara jo zuenean, erraterako, euskara ikasteari ekin zion: «AEKn hasi nintzen eta hizkuntzaz maitemindu nintzen. Arras polita eta berezia

da... baita arras zaila ere». Ikasten segitzen du: «beti ikasten dut zerbait».

Argi du hizkuntza bere «integrazio prozesuarendako arras garrantzitsua» dela. Izan ere, «hizkuntza komunikazio tresna baino gehiago da. Haren bidez ezagutu dut historia, kultura, ohiturak, mitologia... Eta orain horren parte naizela sentitzen dut. Niretako hemengoak izan eta euskararik ez jakitea zail da ulertzeko».

**«BIZILAGUNEK ETXEAN BEZALA SENTIARAZTEN NAUTE»**

**«ETORKIZUNEAN BASERRITIK ETA BARATZETIK BIZI NAHIKO NUKE»**

Ikasketa prozesua «polita» izan da berarendako, «hainbat herrialdeetako kideekin biltzeko» aukera izateaz gain txoko batzuk ezagutu ahal izan dituelako: «barnetegian ere izan nintzen Arantzan!». Ahalegina eta denbora behar izan ditu: «ordu aunitz behar dira, poliki-poliki ikasten da». Baina emaitzak merezi du: «hemengo jendeak eskertzen du».

### Urdazubin «etxean bezala»

Urdazubik «bizitzako ametsa» betetzeko bide eman dio Durani. Izan ere, baserrian bizitzeko nahia egia bihurtu zaio eta nahi bezala, «naturaren erdian eta animalien bueltan» egiten du egunerokoa. Gainera, etxe atarian du horrenbertze desio zuen baratzea. Bertakoa du bikotekidea eta, horrez gain, «bizilagun onenak» dituela sentitzen du: «etxean bezala sentiarazten naute».

Argentinatik «ama, aita, familia eta lagunak» dira falta dituenak eta haiek bisitatzeko hasieran «bi urtean behin» joaten zen sorterrira. Hondarreko urteetan, ordea, ez du bueltazterik izan: «hipoteka eta koronabirusa dela eta lau urte daramatzat joan gabe. Heldu den urtean joan ahal izatea espero dut».

Hala ere, argi du, joan-etorria egiteko txartelak erosiko ditu, etorkizunean ere Urdazubiko «lasaitasunaz» gozatzen segitu nahi duelako: «hau da bizi kalitateala». Berarendako duena, amarendako ere izan dadila nahi du eta, akaso, itzulerarako txartel bat gehiago ere beharko du: «leku hau magikoa da eta ama ekarri nahi dut nirekin bizitzeko, hemen gelditzeko».

Momentuz, dena utzi gabe, ametsen gibeletik segituko du eta horrela bizitzen segitzearekin batera «animalia gehiago ere» ekarri nahi ditu familiara, «noizbait baserritik eta baratzetik bizi ahal izateko». Denborak aginduko du eta... «ikusiko dugu!».



# AIZKORA

## ERAKUSTALDIA



**IRAILAK 25**  
**16:00**

DANTXARINEA Venta Axular

# IKER VICENTE <sup>VS</sup>

# MIKEL LARRAÑAGA

Harria jasotzen

**JON GOENATXO**

Altueran enborra mozten

**ENEKO SARALEGI**

Enborra mozten

**AITOR SARALEGI**

**ZELAI**

**BIOK**



Aurtengo Xilaban parte hartuko duten 24 bertsolariak.

## Larunbat honetan Makean hasiko da banakako Xilaba

24 bertsolarik parte hartuko dute eta finala azaroaren 13an Donibane Lohizunen egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Bi urtez segidan taldeka aritu ondotik, hemen da bakarkako Xilaba. 24 bertsolarik eman dute izena eta larunbatean, hilaren 18an, hasiko da lehia. Finala azaroaren 13an iraganen da, Donibane Lohizunen.

**Lehenbiziko kanporaketa** larunbatean Makeako herriko

gelan izanen da, 17:00etan, eta sei bertsolari ariko dira: Karlos Aizpurua Etxarte, Mizel Mateo, Irati Alcantarilla, Gillen Hiribarren, Maddi Ane Txoperena Iribarren eta Oier Urreiziti.

**Bigarren kanporaketa** irailaren 25ean, Muskildiko Pospesenean egingen dute, 17:00etan. Sei bertsolari ariko dira:

Bittor Thicoïpe, Ramuntxo Christy, Xumai Murua Berra, Xan Alkhat, Maddalen Arzallus Antia eta Miren Artetxe.

**Hirugarren kanporaketa** urriaren 2rako iragarri dute, Hiriburuko La Perlen, 17:00etan. Josu Txoperena Iribarren, Patxi Iriart, Iker Altuna, Aitor Servier Etxexuri, Pettan Prebende eta Kerman Diaz izanen dira bertsotan ariko direnak.

**Laugarren kanporaketa** urriaren 9an Gabadiko herriko gelan iraganen da, 17:00etan. Bertze sei bertsolari ariko dira: Johaine Sarrailet, Amets Arzallus Antia, Maddi Sarasua Laskarai, Maïndi Murua Berra, Odei Barroso eta Egoitz Zelaia.

Kanporaketak bukatuta, **hiru finalerdi** jokatuko dituzte:

urriaren 16an Mauleko Maule Baithan, urriaren 23an Bardozeko Ezker paretan eta urriaren 30an Izpurako Faustin bentaberrin. 17:00etan izanen dira eta fase honetan kanporaketatik sailkatuko diren hemezortzi bertsolari ariko dira.

Hala erabakiko dute finalean ariko diren sei bertsolariak zein izanen diren: finalaurrekoetako hiru saioetako lehenak eta puntuazioaren arabera lehenbiziko bertze hirurak. **Finala** azaroaren 13an izanen da, Donibane Lohizuneko Jai-Alai pilotalekuan, 17:00etan. Puntu gehien metatu duten bi bertsolariek buruz buruko jokatu ondotik, erabakiko du nor izanen den aurtengo Xilaba txapelketako txapelduna.

### Epaille eta gai-jartzaile taldea

Bertsoak epaitzeaz zazpi lagun arduratuko dira: Zuhaitz Olazabal, Ainhoa Sarasua, Abel Zabala, Eneko Bidegain, Maïlen Berra, Lur Renteria eta Iban Thicoïpe. Gai-egileen taldean, berriz, bederatzi lagun ariko dira: Antton Lannes, Joana Itzaina, Amaia Castorene, Aritz Bidegain, Amairu Lujanbio, Lierni Elortza, Pantxika Solorzano, Xabi Elgar eta Oihana Larrandaburu.



GANEX

## Indar jokoak eta pilota partidak Saran

Beraien xedeak bete ahal izateko dirua bildu asmoz, uztailan eta agorrilean asteatero-asteatero indar jokoak eta pilota partidak antolatuko dituzte Zazpiak Bat dantza taldeak eta Izarra pilota eta errugbi taldeek plazan. Zenbaitetan 500 eta 600 sarrera ere saldu dituzte, eta kontent dira.



GANEX

## Kontrabandisten Eguna Saran

Giro ederra sortu zen abuztuaren 29an Kontrabandisten Egunaren kariatara. Kontrabandisten Lasterketa, Sorgina Trail lasterketa, Kontrabandista Tiki... Egitarau bete izan zuten. Taloak jateko eta pottokekin ibiltzeko aukera ere izan zuten hurbildutakoek, eta azokak ere ez zuen hutsik egin.





Auzapeza eta zenbait hautetsi, Amotzeko eskola berriaren alean. JL BESSONART

## Gela berria eta berrikuntzak eginak Amotzeko eskolan

170.000 euroko inbertsioa egin dute eta gurasoek galdegindako klase elebiduna edekitzeko aukera emanen du

### JEAN LOUIS BESSONART

Amotzeko eskolan lan garrantzitsuak eramanak izan dira azken denboretan eta artisauen inplikazioa aipatzekoa da, obrak bukatuak izan baitira, buruilaren epea ongi errespetatuz. 170.000 euroren lanak iragan dira berritze lanetan, baita gela berri baten eraikun-

tzan ere. Handitze honek aukera polita eskainiko du, xedea baitzen klase elebidun baten edekitzea gurasoek galdeginik. Orain gauzatu behar luke, irakasle postu erdi bat lorturik. Dena den, gela berri honek poza handia sortu du buraso, irakasle eta ikasleen artean, leku hertsietan zirelakoan orain

arte. Bertzalde, numerikoa hedatzeko eta hobetzeko asmotan hiru dossier eskatuak izan dira, baita onartu ere nazional mailan, honek erran nahi du estatuak proiektuen %70 diruztatuko duela.

### 1.175 ikasle sei ikastetxetan

Orokorki, erraten ahal da gure herriko eskoletan sartzeak ongi iragan direla. Ikasleen kopurua mantendu da eskola gehiengatik, emendatze ttipi batekin San Josep eskolan eta ikastolan. Ama eskolan eta lehen mailetan, zifra hauek ditugu: Eskola publikoan 255, San Josepen 187, Amotzeko eskolan 73, ikastolan 120. Arretxea kolegioan 320 bat inguru eta Saint Christophe lizeoan 220.

## Franck Dolosor herriko kazetaria Euskal Telebistatik Urdin Irratira

### TTIPI-TTAPA

Euskal Telebistan egindako «22 urteko etapa zoragarria» buruilaren 4an bukatu zuen Franck Dolosor herriko kazetaria. Irailaren 6an, Urdin Euskal Herria Irratian hasi zen lanean, Ipar Euskal Herriko irrati publikoan. ETBko *Iparraldearen orena* saiorako bere azken erreportajeak buruilaren 13an pantailaratu zituzten. Halere, larunbatero 21:15ean Radio Euskadi irrati *La galeria* saioan segituko du lanean, Begoña Yebrarekin batera.

TTIPI-TTAPA aldizkarian ere zenbait urtez berriemaile eta sustatzaile izan zen Dolosor. Bide on!



Franck Dolosor ETBrako lanean.

## Helduentzako euskara ikasteko izen emateak buruilaren 23an Denen Etxean

### JL BESSONART

AEKren ekimenez abian dira euskara ikasteko kurtsuak urriaren 4tik aitzinera, ekainaren 24a arte. Astero bortz edo sei oren emanen dituzte, klaseen arabera. Anarthean, izen-emateak egin beharko dira Denen Etxean, mediatekaren ondoan, buruilaren 23an 16:00etatik 19:00etara.

Edozein klase edekitzen ahal dute: fisik ez dakitenentzat, zerbait dakitenentzat, euskara hobetu nahi dutenentzat, baita EGA taldea ere, alfabetizazioa.

Izen-emateak [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean, 05 59 25 76 09 telefonoan edo [iparraldeko@aec.eus](mailto:iparraldeko@aec.eus) helbide elektronikoan egin daitezke.

## Alexander Big Band taldearen eskutik jazz kontzertua larunbatean Larrekon

### TTIPI-TTAPA

Alexander Big Band taldearen eskutik jazz kontzertua antolatu du Senpere Kultura eta Ondarea elkarteak buruilaren 18an, larunbatean 20:30ean Larreko kultur gunean. Sartzea 18 euro ordaindu beharko da, 10 euro adin ttikikoek eta ikasleek. Osasun pasea nahitaezkoa izanen da.

Alexander Big Band 20 musikariz osatutako taldea da, horietarik bat kantari paregabea, Tarnoseko musika eskolako zuzendaria eta pianista den Arnaud Labastieren gidaritzapean. Kontzertuak besta giroko musika mundu baterat eramanen gaitu, Count Basie edo Duke Ellington amerikar big banden gisara.

## Gazte mugimendua berpizteko asmoz martxa egin dute

Doneztebe eta Arantza lotuz hainbat ekitaldi egin dituzte eskualdeko gazte mugimenduetako kideek antolatuta

### TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun, eta Doneztebe eta Arantza lotuz, Gazteon Mendialdea Berpiztu dinamika antolatu zuten Baztan, Malerreka, Bortziriki eta Leitzaldeko gazte mugimenduetako hainbat kidek abuztu hondarrean. Abuztuaren 28an, Do-

nezteben egin zuten lehenbiziko hitzordua, Altsasuko Auzian auzipetutako Adur Ramirez de Aldak bere esperientzia kontatu zuen zineman bildu ziren 25-30 lagunentzako aitzinean.

Ondotik Arantzara abiatu ziren eta arratsaldean, mahaia-  
ren bueltan, Aroztak herri eki-



Gazte Martxaren azkeneko egunean, gazteak herri kiroletan aritu ziren. UTZITAKOIA

meneko kideek eta Baxoa Euskaraz egin zuten Ipar Euskal Herriko ikasleek hartu zuten hitza. Afalondoan Olaia Iantziarekin kantaldia izan zuten eta gauetz Arantzako frontoian

egin zuten lo. Biharamunean, goizean herri kiroletan aritu ziren eta eguerdian 50 bat lagun bildu ziren bazkaltzeko. Pleura taldearen kontzertuarekin borobildu zuten asteburua.

## «Eskualdeko gazte mugimendua berpizteko beharra ikusi dugu»

HARITZ BEREAU GAZTEON MENDIALDEA BERPIZTU DINAMIKA

«Eskualdeko gazteria mobilizatzeko» helburuarekin Gazteon Mendialdea Berpiztu dinamika antolatu dute uda honetan eskualdeko gazte mugimenduetako kideek. Tartean ibili da Haritz Bereau sunbildarra.

### Zein izan da helburua?

Eskualdeko gazteria mobilizatzeko, gazte mugimenduko kide diren edo norbanako bezala mugitzen diren gazteak biltzea, hausnarketa eta eztabaidarako espazioak irekiz. Pandemiak gogor kolpatu du gizartea orokorrean, baina gazte mugimenduan ikaragarriko eragina izan du. Eskualdeko gazte mugimendua momentu kritikoa egon da eta gazte mugimendua gazte aktibazioarako ezinbertzeko tresna dela pentsatzen dugunez, berpizteko beharra ikusi dugu.

### Ze balorazio eginen zenuke?

Hagitx kontent gelditu gara, sententzio onarekin. Politika gazteak juntatzea eta gainera,

gazteak motibatuak ikusi genituen. Hagitz asteburu aberasgarria izan zen, hainbat eskualdetako jendearen arteko harremana lantzeko baliagarria, baita gazteria motibatzen ere. Espero dugu gazte mugimendua indartzeko pauso bat izatea. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu euren alea paratu duten guztiei. Horien artean, Doneztebeko Udalarari zinema uzteagatik eta batez ere Arantzako Udalarari, aitzinera ateratzen laguntzeagatik.

### Zein da mendialdeko gazteen arteko harremana?

Aunitzetan zaila izaten den arren, hainbat eskualdez osaturiko eremua lantzen saiatzen gara. Eskualde bakoitzaren berezitasun propioez jakitun bagara ere, Leitzalde, Malerreka, Baztan eta Bortzirietan antzeko kezka eta arazo ugari ditugu. Badira problematika zehatz batzuk eskualde guztiei eragi-



ten dietenak. Gutxieneko harremana mantentzea beharrezkoa da, guztion artean indar handiagoa izanen dugulako.

### Gazteengan nolako eragina izan du pandemiak?

Eragin negatibo nabarmena izan du, pandemia hasi zenetik komunikabide eta jende aunitzen ahotan egon baikara. Egungo sistemaren gabeziak estaltzeko asmoz, gazteria kriminalizatzeko hautua egin dute, eta gazteon aurkako kanpaina erraldoia martxan jarri dute. Egunero irekitzen dituzte albisteak gazteon «arau-haustea» kontatuz, baina ez digute gazteentzako langabezia, prekarietateaz, emantzipatzeko arazoak edo gazteon osasun mentalaz solas egiten. Orokorrean gazteria,

kriminalizazio mediatikoaz nazkatuta dago, baina haserre hori modu antolatuan gestionatzearen falta sumatzen dut.

### Zein dira aitzinera begira dituzten erronkak?

Ez dira erronka zehatzak. Gure erronka orokorra mendialdeko gazteria aktibatzea da, egungo injustizien aitzinean gazteria aktibo eta kritikoa bat eratuz. Hainbat borrokaren arteko elkarlana bultzatzea dugu helburua. Zein mezu luzatuko zenienke eskualdeko gazteei? Eskualdeko eta gure herriko etorkizuna gure esku dagoela. Injustizien aitzinean geldirik ez egotea, eta antolatu eta borrokatzea beharrezkoa da. Gaur borrokatzen ez denak eragin zuzena izanen du etorkizunean.



# EGUTEGIAK 2022

Hainbat formatutako egutegiak egiten ditugu



**ESKATU AURREKONTUA  
konpromisorik gabe!**

## «Txapelarekin borobildu dut herri kirolean nire hogeigarren urtea»

JOSETXO URRUTIA BALEZTENA NAFARROAKO TXAPELDUN HARRI-JASOTZEN

Nafarroako harri-jasotze txapelketa irabazi du Josetxo Urrutiak laugarren aldiz. Horretaz gain, gurdi-jokoa ere irabazia dauka bitan eta ingudekoa ere bedertzitan irabazia du (baita Euskal Herrikoa behin). 2001ean hasi zen herri kirolean eta grina hori ez zaio apaldu

**AITOR AROTZENA** | LEITZA

Josetxo Urrutia duela 44 urte jaio zen Leitza, baina Beintza-Labaienekin lotura handia dauka, ama bertakoa izaki. Ezkonduta Betelun bizi da. Mekazinatuko enpresa batean aritzen da karga-deskarga lanean, garabiarekin Lekunberrin, baina herri kirolen munduan egin du bere lekua. Nafarroako harri-jasotze txapelketa irabazi berri du, laugarren aldiz, abuztuaren 21ean Lekunberrin jokaturako saioan. Baina ingude altxatzen ere Nafarroan eta Euskal Herrian txapeldun izana da, gurdi-jokoa ere Nafarroan txapeldun, txingekin aritua, sokatiran Berriozarko taldearekin probatua... Etorkizunean ere urte batzuk eman nahi lituzke plazaz plaza, horixe baita herri kirolean gehien gustatzen zaiona: «daukazuna eman eta norbere buruarekin gustura gelditzea».

**Nafarroako harri-jasotze txapelketa irabazi berri duzu... Zer suposatzen du horrek zuretzat?** Laugarren aldiz irabazi dut eta hamalautan txapeldunorde izan naiz. Berezia izan da, hoguei urte bete baitira herri kirolean hasi nintzela, 2001ean. Ilusio berezia egin dit. Urte batzuk badira hemen nabilela eta txapela lortzea urteurrena ospatzeko eta pastelari ginda jartzeko modua izan da. **Pena, halere, bi harri-jasotzaile besterik ez izatea... Nola ikusten**

**duzu harri-jasotzearen etorkizuna?**

Pena da bai. Nafarroan, ni hasi nintzenetik asko moteldu da kontua harri-jasotzen, aizkora beti izan da afizio gehiago, jende gehiago atera da. Harri-jasotzen eta ingudean eta horrelakoetan gorabehera gehiago izaten dira. Urteren batean bost ere aritu izan gara harri-jasotzen, bestetan bi bakarrik... Nafarroan beharbada ez dugu harri-jasotzen halako afiziorik izan... Kontraesana dirudi, harri-jasotzaileak ezagunenak eta pisu handiena jaso dutenak Nafarroan, Leitza bertan ditugulako: Perurenarrak eta Saralegi. Izen handiak dira, baina atzetik ez dute segida handirik izan.

**Izen handiak ez ezik, harri handiak ere badira horiek ibiltzen dituztenak... Zuk ere izan duzu harri handiekin probatzeko modurik edo aukerarik?**

Pisu handietara joateko mutil handia izan behar duzu. 200 kilo erraz jasotzeko ehun kilo pasatuak izan behar dituzu, mutil sendoa izan behar duzu, bestela ezinezkoa da. Etxe bat eraikitzerakoan bezala, oina-

**«NAFARROAN EZ DAUKAGU HARRI JASOTZEN AFIZIORIK IZAN»**

rri ona izan behar duzu, pilare onak... Ni beti 75-80 kilo artean ibili izan naiz eta ez daukat pisu horiek altxatzeko gairik, ezinezkoa da... Gaia izanez gero gustura saiatuko nintzateke! Nik altxatu dudan handiena 177 kilokoa izan da, txapelketa bat prestatzen. Ez nuke askoz gehiago altxatuko igual! Beti izan dut begi bistan 200 kiloko zenbaki borobil hori, baina ez naiz saiatu ere egin... beti txapelketak izan ditugu, dela Nafarroakoa, dela Euskadikoa, hori ere polita da eta ez dugu beste harri handiagoetan zentratzeko modurik izan, eta hori ere beharrezkoa da.

**Euskal Herriko txapelketan ere aritzen zara, baina hor txapela garesti egonen da...**

Hor harri-jasotzaile gehiago ari dira eta maila handikoak gainera... Hori futboleko Europa League jokatzeko bezala da eta ni, ez nuke erregionalekoa esango, baina bigarren mailakoa naiz horien artean. Euskadiko txapelketan lehia-tu naiz, baina zaila izaten da hor aurrean ibiltzea. Denak ez dira Izeta, baina denek maila handia daukate.

**«ETXAURIKO HARRIA DA KUTTUNENA NIRETZAT»**

**Harri txikiekin aritzen zara, zein da gehien gustatzen zaizuna... Igual zilindrikoa aipatuko nuke, ehun kiloko zilindro zahararekin oso gustura aritzen naiz. Han eta hemengo herrietako eta auzoetako erakustaldietan eta apustuetan, harri bereziak ere izaten dira, forma berezikoak... Zein izan da orain arte topatu duzun bereziarena? Eta altxatzeko zailena?**

Niretzat kuttunena Etxauriko harria dela esango nuke. Igeldoko harriaren antzekoa da, 136 kilokoa, eta nahiko konplejoa da altxatzeko, baina horretaz gain, herriko jendeak oso ongi hartzen ninduen eta gustura sentitzen nintzen herri horretan. Ez harriarengatik hutsa, herriak egiten dizun harrera ere polita da. Igeldokoa ere berezia da, altxatzeko harri zaila da, Donostian zaude, telebista pila bat inguruan, oihartzun handiagoa dauka beharbada, baina niretzat kuttunena Etxaurikoa da. Eta altxatzeko zailena Igeldokoa da niretzat, gorputzez luze xamarra izatea eskatzen baitu eta ni ez naiz hala.

**Harri-jasotzen ez ezik, ingude altxatzen ere aritzen zara... Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izan zara modalitate horretan... Harri-jasotzearekin konparatuta erabat teknika ezberdina beharko da...**

Oso esplosiboa da bai, minutu eta erdiko lana, baina entrenatzeko errazagoa da. Nire kasuan harri-jasotzeko entrenamenduaren oinarria hor daukazu, fondoa... teknika pixko bat garatu eta gustura aritu naiz, ongi moldatu naiz. Euskal Herrikoa behin irabazi nuen, 2015ean, bi urtez kolpe bakarrera gelditu nintzen txapeldunorde, baina Nafarroako txapela zazpi aldiz lortu dut.

**Gurdi-jokoa ere aritua zara txapelketetan... Zer moduz? Kanpotik ikusita, behar bada gogorrena ematen du...**

Hor ere Nafarroako bi txapel lortu ditut eta Euskadikoan behin parte hartu nuen, baina





Josexo Urrutia harri borobilarekin lanean. Hogei urte bete ditu herri kirolean.

lehen esan dizudana: hor gurdia eramateko zaldi handiak zeuden! Iparraldeko kirolariek lehia handia ematen dute modalitate honetan, Lapurdiko bat bada oso ona, Ousmane Drame bizkaitarra ere hor dabil indartsu azken urteetan... Halere, ez nuke esango gogorrena denik, niretzat harri-jasotzea gogorragoa da. Sokatira ere probatu dut, urte bat egin nuen Berriozarrekin, hasi berriak zirenean, eta hori ere nahiko gogorra izan zen: ez zara zu bakarrik ari, taldearekin batera aritu behar duzu, esperientzia gazi-goza izan zen.

**Beste modalitatekeri ere probatu duzu? Edo probatzeko asmorik?**

#### **Pentatloia ere hor ageri da azken urteetan indartsu...**

Txingekin ere aritu naiz. Nafarroako txapelketan aritu izan naiz, baina hirugarren postutik ez naiz pasatu, ez ditut esku onak horretarako... Pentatloiak tentatzen dit, erakargarria ematen du: kirol ezberdinak biltzen ditu eta horietako bat baino gehiago probatua naiz eta eginen nuke proba. Joan den urtean Baio-

**«PENTATLOIAK TENTATZEN NAU, ERAKARGARRIA EMATEN DU»**

nan Euskal Herkulea proba antolatu zuten, zortzi kirol bilduz, eta gustatu zitzaidan esperientzia. Gogorra izan zen, baina polita. Iparraldeko sei kirolari eta Nafarroako bi izan ginen. Lasto altxatzea ere sartua zen eta inoiz probatu gabea nintzenez, sekula entrenatu gabea, hor galdu nuen dexente. Sufritu nuen baina gustatu zitzaidan, erakargarria iruditu zitzaidan.

**«BITXIA DIRUDI BAINA PATINATZEA ERE ASKO GUSTATZEN ZAIT»**

**Bitxikeri bezala, patinatzea ere gustuko omen duzu... Itxura batean, ez dirudi herri kirolak eta patinajeak zerikusi handirik dutenik...**

Pixko bat ibiltzen naiz patinatzen bai, gurpil gainean, izotz gainean probatu dut eta ez zait gustatzen. Ez dauka herri-kirolarekin batere zerikusirik, egia da, baina garai batean ikastaroren bat egin nuen, probatu nuen eta gustatu egin zitzaidan... Probatu gabe ez dago jakiterik eta probatu eta gustatzen baldin bada, aurrera!

#### **Etorkizunera begira zer asmo dituzu kirol arloan?**

[Arnasasakon hartu du, pentsakor] 44 urte beteak dauzkatz eta hogeitun egin ditut herri kirolean, bere apalean, egin ditudan markak hobetzea zail ikusten dut. Orain, niri plaza beti gustatu izan zait eta etorkizunean ere gustako zait seguraski. Beraz, urte batzutan behinik behin plazan disfrutatzen segitzea gustatuko litzaidake. Plazara joan, daukazu guztia eman, norbere buruarekin eta lanarekin gustura gelditu, ikusleak gustura daudela ikusi... hori gauza ederra da niretzat.

#### **Zein izan da herri kirolak utzi dizun oroitzapenik gozoena?**

Pisu bikoitzean apustua jokatzen nuen 2016ko abenduaren 3an, Nafarroako Egunean, Lasarteko Urtzi Telleriaren aurka. Gogorra izan zen prestatuntza, baina beharbada herri kirolean izan dudana momenturik ederrena izan zen. Ez irabazi nuelako bakarrik, hori ere ongi dago, gustura gelditu nintzen egindako lanarekin. Gorabeherak izan nituen, orduan aita ingresatua neukan minbiziarekin, bada-kizu, burua bi aldetan daukazu aldi berean... berari eskaini nion garaipena. Momentu berezia izan zen nire bizitzan eta nire bizitzako momenturik onena kirol ibilbidean. Aita ere gustura gelditu zen eta betirako hor gelditzen diren oroitzapenak dira.



Azagran aritu ziren Ttuku-Ttuku eta Beti Gazte taldeetako kirolariak. Bikain ibili ziren denak.

## Ipar Martxan indartsu dabilta gure kirolariak

Irailaren 5ean Azagran egindako proban podiora igo ziren Ttuku-Ttuku taldeko zenbait emakume

### TTIPI-TTAPA

120 kirolari baino gehiago bildu ziren irailaren 5ean Azagran, Pablo Ariza zenaren omenez egindako bigarren ipar martxa proban. Horieta-ko batzuk Espainiako Koparako baliagarria zen proban lehiatu ziren eta bertzeak proba irekian. Eskualdeko

kirolariak ere baziren tartean, Ttuku-Ttuku taldekoak eta Beti Gaztekoak eta podiora igo ziren horietako batzuk.

Honela, Espainiako koparako baliagarria zen proban aritu zirenen artean, Ttuku-Ttuku taldeko Ainara Unanua elizondoarra hirugarren izan zen emakumezkoen senior

kategorian eta Beti Gazteko Alejandro Ordoki lesakarra bosgarren C mailako gizonz-ko beteranoetan. Elizondon bizi den Jon Medrano laugarren izan zen sailkapen orokorrean eta bigarren gizonzkoen senior mailan.

### Txapelketa irekian podioan

Txapelketa irekian, sailkapen orokorrean bosgarren izan zen Ttuku-Ttuku taldeko Amaia Odriozola donamariatarra eta emakumezkoen senior kategorian bigarren izan zenez, podiora igo zen. 60 urtetik goitiko emakumeen Master B kategoriako podioko lehen bi koxkak Ttuku-Ttuku taldeko Mari Atxa eta Bego Arizmen- drentzat izan ziren.

## Laxoa Kopako finala jokatu dute Arraiozen irailaren 25ean

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako Laxoa Elkar-teak antolatutako kopa torneoko finala irailaren 25ean jokatu dute Arraiozko plazan, 17:00etan.

Lehen finalerdia irailaren 11n jokatzekoa zuten Arraioz-ko plazan. Lehen partida horretan, Jon Apeztegia (Doneztebe), Aitor Zubigarai (Arraioz), Jokin Apeztegia (Doneztebe) eta Mikel Sagaseta (Irurita) aritzekoak zirena laukote batean eta Xabier Bengoetxea (Arraioz), Ramontxo Etxebes-te (Doneztebe), Iñaki Etxandi (Irurita) eta Aritz Alunda (Arraioz) bertzean.


Irailaren 18an, ordu eta leku berean jokatu dute bigarren finalerdia Mikel Mindegia (Arraioz), Josu Juanena (Doneztebe), Joseba Juanena (Doneztebe) eta Oinatz Jautsaratsek (Irurita), Ioritz Zelaieta (Oiz), Gorka Urtaşun (Irurita), Iñaki Maylin (Doneztebe) eta Jon Gamiozen (Arraioz) kontra.



LUIS ITURRIOZ

## Beti Gazte estreinekoa 3. mailan

Ixtura ona eman arren, hirugarren mailako ibilbidean estreineko partidari galdu egin zuen Beti Gazte futbol taldeak irailaren 5ean Durangon (Bizkaia). Cultural de Durango talde historikoak 2-0 irabazi zion Lesakakoari. Asteburu honetan Mastegin jokatzekoa zuen Anaitasunaren kontra.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Plazaz Plaza txapelketako finala Leitzan

Hamalau jardunaldi eta hamazazpi partida jokatu ondotik, Plazaz-Plazako final handia jokatu zuten abuztuaren 28an Leitzako plaza betean. Aldaregia eta Ruiz de Larramendi irabazten hasi ziren arren, azkenean Salsamendi eta Orbegozo ongi nagusitu ziren (22-12).





Sarako Kontrabandisten Lasterketaren 51. edizioan parte hartu zuten kirolariak, abiatu baino lehen. XAGU-LESACA

## Joseba Larralde kontrabandisten krosean garaile

Hirugarren garaipena segidan lortu du beratarrak eta Ane Eltzaurdia eta Ainhoa Etxegarai emakumeen podiora igo dira

**TTIPI-TTAPA** | SARA

Giro ederra izan zuten abuztuaren 29an Sarako Kontrabandisten Egunean. Jardueraz betetako egitaraua izan zuten, eta Kontrabandisten Lasterketaz gain, Sorgina Trail emakumeendako lasterketa ere egin zuten lehenengo aldiz.

37 emakumek hartu zuten parte eta Maïke Cuenca hendaïarra izan zen garaile 38.06ko denborarekin. Bigarren postua lortu zuen Elorri Hargindegik

(38.09) eta Lilou Aguerre izan zen hirugarren (39.33).

Arratsaldean, urtero bezala, haurren txanda izan zen lehenbiziko, Kontrabandista Ttiki lasterketarekin eta ondotik egin zuten Kontrabandisten Lasterketa. Lasterkariak 8,4 kilometroko ibilbidea egin zuten Sarako plazatik abiatuta eta ohi bezala, lasterkariak galtza luze beltzekin eta kamiseta zuriarekin egin zuten ibilbidea. Gizonezkoek zortzi kiloko zakua eraman zuten bizkarrean eta emakumezkoek lau kilokoa, garai bateko kontrabandisten lana gogora ekarritz. 36 lasterkari hartu zuten

parte eta Joseba Larralde beratarrak lortu zuen hirugarren aldiz segidan lehenbiziko postua, 39.28 segundoko denborarekin. Bosgarren garaipena du Saran eta hamaika segundorengatik ez zuen iaz lortutako marka (39.17) hobetu. Mathieu Gachen izan zen bigarren (42.27) eta Jean Marc Berroa hirugarren (42.48). Maud Combarieu izan zen lehenbiziko emakumea bigarren urtez, 48.51 segundoko denborarekin. Bigarren postua Ane Eltzaurdia beratarrak (53.12) eskuratu zuen eta hirugarrena Ainhoa Etxegarai beratarrak (54.08).

## Xanta Sousa lesakarra Nafarroako txinga-eramate txapelkun hamargarrenez

**TTIPI-TTAPA** | ETXALAR

Nafarroako txinga-eramate txapelketa nagusitasunez irabazi zuen abuztuaren 28an Etxalarren Xanta Sousa lesakarra. 31 plaza egin zituen. Bigarren postua Esti Gastearena sunbildarrak eskuratu zuen (25 plaza eta 1,30 metro) eta hirugarrena Nerea Sorondo beratarrak (11 plaza eta 3,30 metro). Nafarroan bere hamargarren txapela du Xanta Sousa eta Euskal Herrikoan ere bortz irabaziak ditu.

Gizonezkoen Nafarroako txinga-eramate txapelketan

Iosu Marturet antsoaindarra izan zen txapelkun hamar plaza eskasekin (9 plaza,  $\frac{3}{4}$  eta 5,12 metro), Imanol Martin berriozartarraren (8 plaza,  $\frac{3}{4}$  eta 2,65 metro) eta Josu Elizalde beteluarraren (4 plaza eta 6,30 metro) aitzinetik. 50na kiloko txingekin aritu ziren.

### Errekorren jabe

Xanta Sousa 2007an hasi zen txinga-eramatean lehiatzen. 2007an, 2008an eta 2010ean bigarren izan zen Nafarroako txapelketan, baina 2011n lortu zuen lehen txapela eta ge-



Txinga-eramate txapelketako podioak, Xanta Sousa eta Iosu Marturet txapeldunekin.

rozтик Nafarroan jokatutako guztiak irabazi ditu. Euskal Herrikoan ere 2011n irabazi zuen lehen txapela eta bertze

lau irabaziak ditu. Errekorra ere berea du, 55 plaza (1.540 metro) egin baitzituen 2016an Eltziegion (Araba).

## IRAILAK 16 - 30

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



UTZITAKOIA

### LEITZA Talo Eguna

Taloak, artisau azoka, umeentzat talo tailerra, helduentzat talo lehiaketa, DJ Porruren ikuskizuna...  
Irailaren 19an, plazan, 10:00etatik aurrera.

### AZOKA

#### ELIZONDO Artisau azokak

Plazan, irailaren 18an eta 25ean, goizez.

#### LESAKA Merkatu ttikia

Behoko Plazan, irailaren 25ean, 10:00etatik 14:30era.

### BERTSOAK

#### LESAKA Berto saioa

Aitor Sarriegi, Sustrai Colina, Ane Labaka, Josu Sanjurjo eta Ekhiñe Zapiain. Gai-jartzailea: Iratxe Muxika. Plaza Zaharrea, irailaren 26an, 18:00etan.

### IKASTAROAK

#### IGANTZI Grafiti tailerra

Irailaren 18an, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era.

#### LEKAROZ Komunikazio digitala

Aterpean, irailaren 20tik urriaren 1era, 09:15etik 12:30era.

#### Zerbitzarietzako ikastaroa

Aterpean, irailaren 21etik azaroaren 26ra, 09:15etik 14:30era.

#### ELIZONDO Legoekin sormen tailerra

Irailaren 25ean, 10:00etatik 11:30era eta 12:00etatik 13:30era.

### IKUSKIZUNAK

#### LESAKA Arkanbele kantak

Poema errezitaldia, Mikel Taberna (hitza), Joseba Irazoki (musika) eta Oier Fuentesekin (irudia). Harriondoan, irailaren 16an, 19:30ean.

#### ZUBIETA Oberenako dantzarien saioa

Plazan, irailaren 19an, 12:00etan.

#### IGANTZI Herriko dantzarien saioa

Frontoian, irailaren 25ean, 20:00etan.

#### IRURITA Dantzarien emanaldia

Errebotean, irailaren 25ean, 18:30ean.

### KIROLAK

#### GOIZUETA Arritxulora mendi ateraldia

Plazatik abiatuta, irailaren 18an, 07:00etan.

#### URDAZUBI Aizkora erakustaldia

Dantxarineko Axular bentan, irailaren 25ean, 16:00etan.

#### ARRAIOZ Laxoa Kopako finala

Plazan, irailaren 25ean, 17:00etan.

#### ZUBIETA Herri kirol saioa

Plazan, irailaren 26an, 12:00etan.

### KONTZERTUAK

**BERA**  
Keu Agirretxea & Pablo Novoa  
Altzateko plazan, irailaren 19an, 18:00etan.

#### Organo kontzertua

Arakistain (organoa) eta Xabier Barriola (tenorea).  
Sanesteban elizan, irailaren 25ean, 18:30ean.

#### ELIZONDO Baztan Kantuz

Plazatik abiatuta, irailaren 19an, 12:00etan.

**IGANTZI**  
Ruper Ordorikaren emanaldia  
Igerilekuko tenis pistan, irailaren 26an, 19:00etan.

### LEHIAKETAK

#### IGANTZI Gazta lehiaketa

Irailaren 26an.

### SOLASALDIAK

#### ELIZONDO 'Pandemiak eta literatura' mahai ingurua

(H)ilbeltzaren barnean, Elixabete Garmendia eta Anjel Lertxundirekin. Gidari Danele Sarriugarte. Irailaren 18an, Arizkunenea kultur etxean, 11:00etan.

### OSPAKIZUNAK

#### LEITZA Talo Eguna

Plazan, irailaren 19an, 10:00etatik aurrera.

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren aurkezpena  
Plazan, urriaren 2an, 18:00etan.



Nire aukera

## «Argazkiekin indartzen dut poesietan erakusten dudana»

JOAKIN IRIARTE ZAPATA VALENTZIAN SORTUTAKO BAZTANDARRA



Castelló probintzian bizi da Joakin Iriarte Zapata (Valentzia, 1970), baina baztandarra du bihotza, euskalduna. «Hitzekin eta irudiekin maiteminduta» dagoen artista da, olerkigintza eta argazkilaritza lantzen dituen.

**Arbasoen arrastoen gibeletik**  
Duela 23 urte joan zen lehen aldiz Oronozera Iriarte. «Orduan ezin nuen imajinatu zer izanen zen Baztan niretzako. Urte batzuk beranduago, Belateko tunela pasatu eta Baztanera ailegatzen ginen bakoitzean, alabari erraten nion: azkenean etxean gaude!».

Nafarrak ditu gurasoak, eta bere arbasoak eskualdekoak direla uste du Iriartek; «Baztandik eta ingurutik Baldorbara joan ziren, eta handik Oibarrera eta Kasedara, Zangoza ingurura».

Bailaran eta sare sozialetan ezagutu zituen Baztango lagunak, «familiakoak bezala» direnak. Euskal Herriko hizkuntzan, kulturean eta historian murgiltzen lagundu zioten, eta haiei esker «errazagoa izan da euskara ikastea». Edozein zalantzarekin laguntzen diote eta «nire azken liburuetan ere parte hartu dute».

Bere kabuz hasi zen Iriarte Valentzian euskara ikasten; «1998an Elizondo bisitatu ondok, Auritzen eman nituen egun batzuk, eta bertan erabaki nuen euskara ikasi nahi nuela, gure ama hizkuntza

**«NIRE HITZEN  
BIDEZ EMOZIOAK  
KOMUNIKATZEA  
DUT HELBURU»**

berreskuratzeke». Liburuak eta CDak erosi zituen Elkarren «eta horrela hasi nintzen ikasten, nire etxean, bakarrik».

### Mundua ikusteko bertze modu bat

16 urte zituela hartu zuen Iriartek argazki kamera lehenengoz, eta nahiz eta berak bere burua argazkilaritzat ez izan, «mundua kameraren bidez begiratzeta gustatzen zaion pertsona» da. Unibertsitatean, farmazia ikasten ari zenean, olerkigintzarekin hasi zen. «Inspirazioa etortzen zitzaidanean, edozein paper zatitan hausnarketa eta olerkiak idazten nituen».

Orain, bi arte hauek uztartzen ditu bere lanetan eta emaitzak «arras interesgarriak» dira. «Nire olerkiak irudiekin aberasten ditut, hau da, argazkiekin indartzen dut poesietan erakusten dudana. Argazkiak hitzik gabeko poemak izatea gustatuko litzaidake, nire olerkien soinu-banda bisuala».

Lau liburu argitaratu ditu dagoeneko, eta «nahiz eta edizioak tikiak izan, harrera arras ona izan dute». Olerki eta argazkien arteko nahasketak jendearen interesa piztu du, eta erantzuna «gero eta hobea izan da liburu berri bakoitzarekin».

Liburu hauetako batean bereziki, Baztan da protagonista. *Baztan: begirada bat laino artean* izeneko lanean bailarako bazterretan murgiltzen ditu irakurleak. «Betitik liluratuta sentitu naiz lainoz estalitako paisaiekin. Basoetan, laino artean, neure buruari erraten diot: hemengoak sentitzen naiz». Olerki batean laburbildu du sentimendu hori:

*Nire ametsak sortzen diren  
lurrera itzultzen naiz,  
non zuraren ildoak  
nire bihotzaren arrailak diren,  
non euria  
nire oroimenaren malkoak  
diren*

### Komunikatzea helburu

«Emozioak eta sentimenduak komunikatzea eta irudietan islatzea» da Iriarteren helburua. Bere azken liburuan, *Me senté a mirar*, «minbizia gainditu ondok, arras sentimendu sakonak agertzen dira». Lagunen, zenbait artisten eta pertsona ezezagunen erretrato eta begiraden bidez, emozioak erakusten ditu; «tristura, heriotza, maitasuna, beldurra, indarkeria sexista, eta, zergatik ez, samurtasuna».

Hainbat erakusketa egin ditu Castellón, eta bere lanak eskualdean ere aurkeztu ditu; «Lesakan artisau azokan parte hartu nuen, poema batzuk irakurri nituen Itziar Telletxeak gitarrarekin lagundu zidan bitartean». Baina bereziki gogoan duen aurkezpena Iuritan egin zuena da. «Hunkigarria izan zen, Baztan eta Castellóko lagunek nire olerkiak irakurri zituzten, poema batzuei musika eta ahotsa emanez».

Iriarteren lanak hobeki ezagutu nahi dutenek hainbat aukera dituzte; «*Baztan: begirada bat laino artean* nirekin harremanetan jarriz lortu dezakezue, *Haizegoa Leihoetan* Elizondoko liburutegian dago, eta *Me senté a mirar*, nire azken lana, Agalir argitaletxean eta Elkar liburu-dendetan lortu dezakezue».

### Etorkizunera begira

Momentuan, ipuin labur batzuen bilduman ari da lanean, «eta erakusketa baterako erretrato batzuk ere prest dauzkat, argazkiak atera nituen kafetegian erakutsi nahiko nituzkeenak».

Etorkizunean, bere ametsa «nire olerki batean oinarritutako antzerki bat idaztea» da. Bertze artisten, idazleen eta argazkilarien proiektuetan parte hartzeko asmoa ere badu, eta noski, eskualdera bueltatzeko. «Baztanen eta Bortziritan ikusiko dugu elkar».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

SALGAI



**LESKA.** Koxkonta salgai. 4 solairu: jatetxea, sagardotegia eta garajea, goian etxebizitza (6 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela). Prezio berria: 395.000 euro. ☎618 55 23 10.



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

**NARBARTE.** 90 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Bizitzera sartzeko prest. Aukerakoa. ☎627 73 51 13.

### EROSI

Bikote gaztea etxebizitza bila. Pisua baino nahiago etxea, bizigarria izatea, baita eraberritzeren bat behar badu ere. ☎666 13 18 54 (Andoni)

### ERRENTAN EMATEKO

**ELIZONDO.** Txokoto auzoan egoera onean dagoen apartamentua errentan emateko, urritik ekainera. Apartamentuak 2 logela, sukalde-egongela eta komun bat. ☎697 96 60 50.

**IRUÑEA.** Unibertsitate ondoan 3 logelako pisua errentan emateko. ☎644 46 69 15.

**IRUÑEA.** Emakume gazte batek gela bat errentan eman nahi dio ikasten ari den neska bati. Lanerako giro lasaia, pisu oso argitsua (atikoa) eta ederki zaindua, unibertsitateetatik gertu, bainugela propioa. Prezio negoziagarria. ☎635 95 64 79.

### ERRENTAN HARTZEKO

**IRUN.** Lagun batek pisu bat aurkitu nahi du beste zonaldeko ikasle batekin konpartitzeko. Irailtik ekainera. ☎948 45 07 08.

**LESKA.** Errentan hartzeko pisu baten bila ari dira. Egoera onean dagoen pisu bat, 3 logela eta berogailuarekin eta luzerako kontratua nahi dute. ☎615 71 76 79.

**LESKA.** Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osorako. Erretzailea ez dena eta anima-

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

liarik ez. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.

### KONPARTITUAK

**DONOSTIA.** Etxalarko bi neska gazte pisukide bila ari dira 2021-2022 kurtsorako. Pisua Amara auzoan. ☎634 98 12 86 / 638 80 78 51.

**BERA.** Logela bat errentan hartuko luke irailtik abendura. ☎669 48 17 31 (Josemari).

**DONOSTIA.** Baztango mutil gazte bat Donostian konpartitzeko pisu baten bila dabil. ☎645 26 49 60.

**DONOSTIA.** Bortzirietako gizonezko batek pisu konpartitu batean gela bat hartu nahi du. Lasaia, txukuna eta erretzailea ez dena. ☎609 47 72 77.

**ELIZONDO.** Gela bat errentan hartzeko norbait behar dute. ☎622 40 21 95.

### GARAJEAL/LOKALAK

#### EROSI

**LESKA.** Garaje bat erosi nahi dute Plaza Zaharraren inguruan. ☎638 14 70 81.

### ZERBITZUAK

#### ZURGIN-LANAK

## ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

### LANA

#### ESKARIAK

Pertsona helduekin eta etxeetan zaintza-lanetan aritzeko emakumea

## BASERRIA

### BEHI-AZIENDAK

#### Aretze gizenak:

#### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

#### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

### ZALDI-AZIENDAK

#### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

### ARDI-AZIENDAK

#### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,50/9,50
- 8-10 kilokoak: 7,50/8,10

### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 37 €

**Zerri gizona** 1,215 €

**Zerramak** 0,440€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 27tik irailaren 3ra bitarteko prezioak)

prest. Autoarekin. Berehala hasteko. ☎666 37 53 72.

Neska bat adinekoak zaintzen ariko litzateke, asteburuetan edo interna moduan. ☎632 75 93 48.

### ESKAITZAK

**SUNBILLA.** Ariztigain kanpinear zerbizaria eta sukalde laguntzailea behar dituzte. ☎948 45 05 40.

Frantses pixka bat dakiena behar dute Larhango benta batean lanean segituan hasteko. ☎607 56 60 22.

**URDAZUBI.** Montxo ostatuan sukaldean eta zerbizatzan aritzeko langileak behar dituzte. ☎848 85 00 21.

**LEITZA.** Goizez 07:30etik 09:00etara 2 eta 5 urteko haurrak zaintzeko norbaiten bila. ☎658 75 93 34.

**BERA.** Zalain jatetxean zerbizaria behar dute. ☎948 63 11 06.

**IRUN.** Jatetxe batean zerbizaria behar dute. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. ☎650 17 30 31.

**LEITZALDEAN** emakume euskalduna lan bila, garbiketarako egiteko edo haurrak zaintzeko. ☎617 80 88 48.

**ARRAIOZ.** Simply supermerkatuan kutxazain aritzeko langile bila, goizez edo arratsaldean lanean aritzeko lanaldi osoan. ☎948 45 26 56.

**Zerbizaria** behar dute Botxo ostatuan. ☎617 72 34 75.

### ANIMALIAK

#### SALGAI

**LEITZA.** Txerrikume pintoak salgai, bizirik edo labean erretzeko prestatuta. ☎690 98 61 18.


### OPARITZEKO

**Katakumeak** opari. Informazio gehiago Whatsapez edo mugikorretik. ☎626 43 71 26.

**Setter ingeles** arrazako zakurra oparitzeko, oraingo jabeak osasunarengatik zaintzeko zailtasunak dituelako. Oilagor ehizan hagitx ongi aritzen da. ☎697 34 75 73.

### DENETARIK

#### SALGAI



Armairu *rustikoa* salgai. Prezioa: 500 euro. Konpromisorik gabe ikusteko aukera. ☎664 25 47 57.





**LESAKA.** Bi habia-ohatze (*cama nido*) salgai. Banaka erosten ahal dira. Egoera onean. Edozein zalantza izanez gero deitu lasai. ☎639 91 89 72.



Etzeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



FAGOR CFH-150 **izozkailua** salgai. 465 litro. 150 x 65 x 80 cm (luzera, zabalera eta altuera). Oso gutxi erabilia. 200 euro negoziagarri. Konpromisorik gabe ikusteko aukera Erratzun. ☎685 78 51 15.

Berriki erosi dugun **koltxoia** salgai. 150 x 180 neurrikoa, gutti erabilia eta ongi zaindua. ☎676 38 94 81.

#### GALDU-AURKITUAK

**LESAKA.** Trenbidean edo Otsango errekan, Erramuegitik Berrotarango tartean, kirolerako eguzkitako betaurrekoak galdu zituzten uztailaren 27an. ☎628 57 22 73.

**DONAMARIA.** Artze auzoko Migeleña etxe inguruan kartera galdua, dokumentazio guztiarekin. ☎948 45 04 67.

#### MOTORRAK

##### SALGAI

**Mitsubishi Montero** autoa salgai. Prezio negoziagarria. Gasolina. ☎690 05 09 03.

#### TAILERRAK




## URTEBETETZEAK



**Xabat Andueza**  
**Arruabarrenak** irailaren 3an urtea bete du. Zorionak gure ebeko sinpatikoari lehen urtebetetzean. Muxu potolo bat familiaren partetik!



Elizondoko **Elaia**  
**Muruaga Elizegik** irailaren 6an 4 urte bete ditu. Aunitz urtez, *pollite!* Lau muxu potolo familia guziaren partetik.



**Eider Legarrea** eta **Mattin:** Aunitz urtez *pollite!* Berriz ere zuen urtebetetze-egunak ailegatu dira eta hemen gaude ebekoak goxo-goxo ospatzeko, besarkatzeko eta bizitzaz gozatzeko prest!!! Egun zoragarriak pasatu eta kontent bizi!! Animaleko besarkada Unax, Amatxo eta nahi duenaren partetik!!!

## Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz** TTIPI-TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal

batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

**Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

**Ordaintzeko:** Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) edo *ERRAN.EUS*en bitartez.

## SORTZEAK

- **Manex Baraibar Inda**, Arraizkoa, abuztuaren 25ean.
- **Ione Uranga Etxegarai**, Sarakoa, uztailaren 25ean.
- **Arhane Bazterrika Loiarte**, Zubietakoa, abuztuaren 30ean.
- **Unax Bazterrika Loiarte**, Zubietakoa, abuztuaren 30ean.

## EZKONTZAK

- **Jeremy Iparragirre** eta **Lorea Harispe**, abuztuaren 28an Saran.
- **Yves Nguyen Dinh** eta **Amaia Iturria**, abuztuaren 28an Saran.



**ttipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola  
72673152-A  
epemuga 2023/04  
Zk. 372

ttipi-ttapa

# HARTU TTIPI TXARTELA eta erabili

pegatina hau ikusten  
duzun denda eta zerbitzuetan

*Aprobetxatu aukera!*




HILBERRIAK

- **Adriana Kiupski**, Sarakoa, uztaillaren 24an, 21 urte zituela.
- **Alphonse Barrenetxe**, Sarakoa, uztaillaren 28an, 77 urte zituela.
- **Manuel Endara**, Sarakoa, uztaillaren 29an, 72 urte zituela.
- **Bernard Larralde**, Sarakoa, abuztuaren 5ean, 90 urte zituela.
- **Jean Beola**, Sarakoa, abuztuaren 10ean, 81 urte zituela.
- **Martina Etxebertz Iparrea**, Erratzukoa, abuztuaren 27an, 88 urte zituela.
- **Miguel Iparragirre Gonzalez**, Elizondokoa, abuztuaren 30ean, 65 urte zituela.
- **Francisco Arraztoa Apezetxe**, Elizondokoa, irailaren 2an.
- **Jesus Elizegi Goñi**, Gartzaingoa, irailaren 2an, 57 urte zituela.
- **Joxe Urroz Arrastio**, Iruritakoa, irailaren 2an, 78 urte zituela.
- **Francisco Ortiz Ortiz**, Leitzakoa, irailaren 7an, 88 urte zituela.
- **Marcelino Jorajuria Lastiri**, Arantzakoa, irailaren 7an, 59 urte zituela.

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
**948 63 54 58, 744 48 43 61 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)**

- ▶ **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**  
 Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
 Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

**948 05 90 90**  
**ENPATIA, HURBILTASUNA**  
**ETA BEGIRUNEA**  
**[www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)**

**BEILATOKIAK:** Elizondo, Arantza, Bera, Igantzi Doneztebe

**IZARRA**  
 HEHEN, ZURE ONDOAN  
 ADU, A TU LADO

**IRACHE**  
 tanatorioak

**948 56 43 55 / 948 19 70 70** LEITZA (Ind. Landa II, 7. nabea)

**Zuen ondoan, betidanik**

- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzazko taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiak lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxe zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorrek.

URTEURRENA

**Serapio**  
**ANCIZAR IRIARTE**

Lesakan, 2020ko irailaren 11n, 86 urte zituela  
**I. urteurrena**

Zure begi urdinen distira eta  
 Ezpainetako irria  
 Beti gurekin daude.

**Maite zaitugu, Serapio!**

ANCIZAR-IRIARTE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joxe**  
**URROZ ARRASTIO**

Elizondoko Lanbide Eskolan zuzendari zein tutore lanbidearen heziketa hontan euskararen promotore eskualde honi eman diozu hainbat ikasgai... balore doluminak familiari ta zuri agur eta ohore.

ELIZONDO LANBIDE ESKOLA

**BB**  
 BAZTAN BIDASOA  
 Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
 BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokia  
 MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: **[funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)**


Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*




# HITZ GEZIDUNAK

	Baztango herritarra	Zer eratako?	Ehun zati	Europako ekialdeko estatua	Ur-jauzi ezaguna
	◆ Deitura	Erregai mota	Funts, muin		Kanpo, landa
				Moila, nasa	
				Nafarroako udalerrria	
	Zarata, iskanbila				
	6. hilabetea				
Etsaiak, aurkariak	Azterketa				Kontso-nantea
◆ izena	Iratzea, garoa				Okerra
		Modu atzizkia		Bizkaiko udalerrria	
		Gudua		Selenioa	
Herri baxenabartarra				Detektagiailu mota	
Ertijioso				Musika nota	
		◆ Sorterrria			
		Interjekzioa			
Bokal mehea	Emakume izena			Iodoa	Uranioa
Lotura	Akuri			Barrearen onomatopeia	Bigarren bokala
				Klariona	
				Praseodimioa	
Urrea		Jainko egiptoarra		Kolore sistema	Musika nota
Ogi egilea		Nitrogenoa		Bokala	Kontso-nantea
				Hitzez adieraziak, esanak	

◆ Gure lurraldeko bertsolaria eta feminista


## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Hegazti basati mota. [2] Atmosfera presio bereko puntuak lotzen dituen marra. [3] Ardien bazkalekua, etxolaren ingurukoa.
- [4] Norgehiakoetan irabazleari eman ohi zaiona. [5] Gure lurraldeko udalerrria, Lapurdin. [6] Era, iparraldeko haurrideek erraten duten gisara. [7] Euskal Herriko egunkaria. [8] Sasoi, aro. [9] Nafarroa Behereko eskualdea. [10] Gasteizko kontzejua. [11] Baztango herria.

## ERANTZUNAK




# PLAZAN BAZAN




## SUDOKUA

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiarri)

MARIPURTZIL!  
POZIK ITZULI  
ZARA ESKOLARA,  
EZTA?



## HAMABOSTEKOA

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)




# ZAKU LASTERKETA

Lehen iruditik bigarrenera bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan hainbat gauza aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?





# BERA



## HURRENGO ERAIKUNTZA

6 ETXEBIZITZA IGOGAILUAREKIN  
ZALAIN AUZOA

170.000 €-tik hasita



Eraikuntza  
Taldea  
D O N E Z T E B E


T. 948 02 16 64  
[www.gruporhconstruccion.com](http://www.gruporhconstruccion.com)

# DONEZTEBE

## HURRENGO ERAIKUNTZA

2 DUPLEX IGOGAILUAREKIN  
MERKATARIEN KARRIKA


182.500 €-tik hasita



1. DUPLEXA

### 1. DUPLEXA BEHEKO SOLAIRUA + LEHENA

Eraikitako a. \_150m<sup>2</sup>  
A. erabilgarria \_84m<sup>2</sup>  
Lorategia \_65m<sup>2</sup>  
Garajea \_A: 19m<sup>2</sup>



2. DUPLEXA

### 2. DUPLEXA BIGARREN SOLAIRUA + ATIKOA

Eraikitako a. \_153m<sup>2</sup>  
A. erabilgarria \_98m<sup>2</sup>  
Balkoia \_4,3m<sup>2</sup>  
(gutti goiti behiti)